# 150 SALMOAK

**Dom Xavier Diharce, O.S.B.**
**IRATZEDER**

Imprimatur :
Baionan, 1963-ko ekainaren 24-ean.
P. Narbaitz, vic. gén.

Editions Ezkila.
Tous droits de reproduction et d'adaption réservés pour tous les pays.

# 1

1. BAI DOHATSUA zuzen ibilki den gizona :
Ez du onhartzen gizon makurrek diotena.
2. Bekatoreen bidean ez da hura sartzen,
Ez eta ere trufatzaileen lagun jartzen.

3. Zuzen denari Jainko legea zer gozoa !
Gau eta egun Haren legean du gogoa.
4 Iduri luke ur-bazterrean den zuhaitza :
Ordu denean fruitu nasaiak baitakartza.

5. Haren ostoa ez da zimeltzen, ez erortzen
Egin guziak ongi doazko eta zuzen.
6 Ezta ez hala gizon makurrez, ezta hala :
Bainan aizean lasto-errautsa den bezala.

7 Azken auzian ezta egonen tzarrik xutik ,
Ez eta ere zuzen bilkuran gaizkilerik.
8 Gizon zuzenen urratsak Jaunak zaintzen ditu,
Gizon makurren bideak aldiz onik eztu.

(9) Ospe Aitari Gizon egin den Semeari
Elizan ari den Izpiritu Sainduari
(10) Lehen bezala Heieri ospe orai ere
Hala dadila menderen mende betiere !

# 2

1 ZERTAKO DIRE jendaiak oro inarrosi,
Denak marmaraz nahiz nausi ?
2 Lurreko jaunak xutik zaizkote bat jazarri,
Bai Jainkoari, bai Kristori.
3 "Hauts dezagun hauts Heien manuen Iokarria
Bota dezagun uztarria" .

4 Zeru gainetan badagon Harek hetaz irri,
Jaunari zaizko irringarri.
5. Noizbeit hasarre, denen lazgarri oihuz ari,
Kexu diote guzieri :
6. Nere errege nik dut hautetsi eta jarri
Zion mendian denen Nausi".

7 Jaunak errana: "Nere Semea Zare bai Zu,
Egun zaitut Nik egun sortu.
8. Galda-zkidatzu eta Jendaiak Zure dire,
Mundu bazterrak oro Zure.
9 Burdin zigorraz diozute Zuk manatuko,
Nola pegar bat errautsiko".

10 Orai bederen, erregek, izan doi bat zentzu,
Lurreko jaunek, egin kasu.
11 Jaunak nahian guziak ibil dena beldur
Daldaran egin Hari agur.
12 Ez hasarraraz, laster du-eta Jainkoak su.
Hari daudenak zoin dohatsu !

## 3

1. ZENBAT JENDE ZAIT ibilki, Jauna, tzarki neri,
   Oldarka zenbat den jazarri !
2. Zenbat den zenbat nitaz dionik irriz ari :
   "Ez salbatuko Jaunak hori".

3 Jauna, geriza eta indarra nik Zu zaitut:
   Zuri esker dut burua xut.
4. Nik dutanean oihuka deitu Jauna lagun,
   Mendi saindutik Harek entzun.

5 Etzaten naiz ni, etzaten eta lo egoki,
   Jainkoa lagun beti jeiki.
6. Milaka jenden ni deus beldurrik ezin unki,
   Nahiz hor dauden noiz ausiki.

7 Xuti, Jainkoa, bai xuti nere salbatzeko;
   Eman etsaier mazelako.
8. Salbatzaile jauts etsaien hortzen kraskatzeko,
   Jauna guk indar sekulako !

## 4

1 DEIKA NAGOZU, Jauna,zu zaitut beti lagun
   Urrikal nitaz, nere oihua, otoi, entzun.
2. Gizasemeak, noiz arta zauzte bihotz gogor
   Ez-deusetarat, gezurretarat hoin lerrakor ?

3 Bazinakite adiskidentzat zoin ona den :
   Deitu orduko daut neri Jaunak ihardesten.
4. Kexa, bai kexa; ez egon beti bekatutan
   Ixildu-eta, pentsaketan sar zuen baitan.

5 Bihotz garbien eskaintzak egin Jainkoari
   Eta gaurgoiti oso-osoki egon Hari.
6 Jendek diote : " Nork emanen nork zoriona "?
   Begitartean duzun argia ixur, Jauna.

7 Nasaikiago dautazu eman bozkario
   Ogi-ioitetan, mahats-biltzetan duten bain
8 Etzan orduko bake osoan naiz Iokartzen,
   Zuhauk fidantzan bainauzu,Jauna, ni .finkat

## 5

1 BEHARRIRAT HAR, otoi Jauna,
   Nik zuri egin dei auhena..
2 Entzun otoïkti 8iotana,
   Neri± érrege, nere Jauna.
   Zu ganat doa Fêté 65ib ;
   Goizetik Ëuti ï r goldéa !
3. Gbizellk nago Zu noiz mintza
   Eta geroztik, Jauna, beha.

5 Ez duzu laket bekatua
   Tzarrik ez dago zure baitan
6 Gaizki-biderat makurtua
   ddekezu aintzinean.

7 Hastio duzu gaizkilea,
Makurra galtzen bere hartan.
8 Gaitz eta odol ixurlea
Ezin dezake Jaunak jasan.

9 Zure grazien uhainean
Zauden etxerat ni banoa.
10 Tenplo alderat otoitzean,
Apalik daukat behakoa.

11 JOANARAZ BIDE zuzenean
Etsaien gatikni, Jainkoa.
12 Bidea ezar aintzinean
Malda, trabarik gabekoa.

13 Heien ahoa dena gezur
Heien bihotza gaitz iturri.
14 Hobi ziloa dute zintzur,
Mihian berritz ele zuri.

15. Heier zafraka, Jauna, bihur :
Obrak zaizkoten kaltegarri.
16 Egin daukute ainitz makur,
Aiherka dire Zuri jarri.

17 Zuri daudenek bozkario !
Betiereko zeru sari.
18 Jauz bekiote Laudorio
Zure izenak zaindueri.

19 Guziak ongi doazkio,
Jauna zure den gizonari.
20 Gaitz orotarik beti zaio
Zure bihotza zaintzen ari.

## 6

1 **EZ OTOI JAUNA** sutan jar eta neri jazar
Ez otoi, ni jo hasarrean.
2 Urrikal nitaz, ahul naiz ahul, eman indar,
Bainago hezur ikaretan.
3 Arima ere ikaretan dut ilun bakar,
Atsegabeen ilunbetan.

4. Zuk, nere Jauna, Jainko hain ona, Zuk noiz arte
Ni bazterrerat hola bota ?
5 Nere arima salba dezazun itzul zaite,
Zure bihotza ona baita.
**6** flieriotzean nor ote zutaz orroit daite
Nork hil-ziloan Zuri kanta ?

7 Ezindua naiz auhenez beti, minez beti :
Gauez-gau nago nigarretan.

8 Nere ogea nigar-nigarrez dut maiz busti :
Nehoiz bakerik nere baitan.
9 Nigarrek jana orai begian argi guti,
Kraskatzen naiz ni etsaietan.

10 Kaltegileak, zoazte nitarik, zoazte urrun :
Nigarrak dauzkit Jaunak entzun.
11 Nere otoitzak ditu zerutik Jaunak entzun,
Onhartu dauzkit deiak egun.
12 Etsaiak zaizkit apalik joanen kopet ilun,
Ikara eta Iotsa lagun.

# 7

2 ZURI NAIZ DENA Jainko Jauna :
Etsai guzien aztaparretik Zuk, otoi, ken.
3 Ez nadin izan heiek fana:
Lehoin hortzekin heiek iresten, nihork zaintzen.

4 Nere Jainkoa, Jainko Jauna,
Zerbeit bekatu balinbadaukat eskuetan,
"Dudan etsairik etsaiena
Jauz bekit eta ezar nezala oinen pean.

5 Ez badut eman zor nuena,
On zenarentzat tzar izan banaiz zerbeitetan,
6 Nere izena eta dena
Ahalgez ase dakizkitala errautsean.

7 Xuti ba, Jauna hasarrean :
Jeikirik zafra etsai horien errabia.
Bai xuti,Jauna : zuzen izan,
Zu baitzaitugu zuzen ororen iturria.

8 Lurreko jenden biltzarrean,
Har, guzien Jaun, deneri gora den alkia.
9 Jar nere alde, Jaunen Jauna,
Zuzen baitzare zuzen, eta ni barnez garbi.

Pitz eta lagun zuzen dena
Ilbaizkileak hez, beren gaizkitik diten geldi.
Barnez dakizu barnez dena,
Bihotzen berri dakizu, Jauna Jaun zuzena.

II

NERE INDARRA Jainko Jauna :
Bihotz garbiek alde baitute beti alde.
12 Hura jaunen Jaun zuzenena :
Hasarre baino zoin aiseago adiskide.

Bainan hartan lo zer su dena :
*13* Itzuli nahi etzaizkionak beldur beude.

Har dezatela har ezpata,
Ukur ditela beren tiroak norat bota.
14 Beren kaltetan ari dire :
Suzko eztenen sista-zauriak sarri bere.
15 Zorigaitz urne nahi dute ;
Bertzen kaltea sor nahi eta berek kalte.

16 Egin dautate zilo neri :
Beharko dute nahitez berek han erori.
17 Bertzentzat nahi kalte hori
Izanen dute beren kaskoan berek sarri.
18 Nik esker onak, Jauna, Zuri:
Zuzen denaren Jainko Jaunari kantu berri.

# 8

2 ZURE IZENA, Jainko Jauna,
Zoin eder zaitan zeru-lur zabal zabaletan!
Zure betiko Jauntasuna

Zeruetarik zenbatez gora gora doan !
3 Haurnoek Zuri Kantu, Jauna,
Haurrloen bozak etsaien herra garrait dezan.

4 Zuk eskuz egin zeru-gaina,
Izarrak eta gau-ilargia ikustean,
5 Zer ote da ba zer gizona,
Hartaz hartua izaiteko Zu hoinbertzetan ?

6 Gutiz aingeru baten heina
Gutiz ez baitu, hanbat diozu dohain eman.
7 Munduan duzu jaun emana,
Lur guzikoak hari ezarriz oinenpean.

8 Harek azpiko dauka dena
Ardi, kabala eta ihizi mendietan..
9 Airez, itsaspez dabilana
Hegaztin, arraign zeruan eta itsasoan.

10 Zure izena, Jainko Jauna,
Zoin eder zaitan zeru-lur zabal zabaletan !

(11)Ospe Aitari, Semeari
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.

## 9

1 ESKERRAK ZURI eskerrak, Jauna, bihotz osoz :
Bai Zuri kantu, hoin miragarri zarelakotz.
2 Ez nauke bozez ez nauke zure amodioz :
Zuri Jainkoa, soinuz nagozu bozkarioz.

3 Etsaiak zaizkit gibelerat joan iheslari :
Zure begitik behingotz dire hil erori.
4 Alde zitzaizkit bai eta lagun Zu etorri;
Zuzen alkian guzien buru Zare jarri.

5 Makur jendeak Zuhauk ditutzu porroskatu,
Heien izena betikotz duzu ezeztatu.
6 Etsai-hiriak egin ditutzu basa-mortu :
Baziren ere orroitzapenik nihork eztu.

7 Badago Jauna betierekotz denen Jainko :
Zuzen alkia berme daukio sekulako.
8 Hak du zuzenki mundu-zabala ikertuko,
Nun den zuzena erresumeri erraiteko.

9 Jauna geriza bertzeek joak direneri,
Oren beltzeko geriza eta ihes-harri.
10 Badaude Zuri badakitenak zure berri,
Ez baitzaude hotz zure ondotik doanari.

II

11 SOINU KANTUZ HAS Zionen dagon Jainkoari,
Harek eginak aipa gorarik herriz herri.
12 Badaki Harek nun noren odol den ixuri,
Gogor ez dago dohakabeen oihueri.

13 Urrikal nitaz beha zer dutan nik jasaiten,
Beti bezala heriorako atetik ken.
nain Zion atetan Zu aipatzen,
Zure Iaguntzaz denak nerekin pitz ditezen.

15 Etsai-jendeek egin zilorat berek jauzi,
Eman sarean oinak sartzerat berek utzi.
16 Nun nor den zuzen garbi du Jaunak erakutsi :
Gizon makurra bere makurrez gal-arazi.

17 Gizon makurrak berritz lurperat doatzila,
Heiek baitute ahantzi Jauna bizi dela.
18 Dohakabea beti utzia ez dabila :
Alferrik ez da alferrik joanen Jauna bila.

19 Xuti ba, Jauna, ez nausitzerat utz gizona.
Jender erakuts zure begitan zuzen dena.
20 Sar-araz, Jauna, zure ikara hoitan barna :
Gizona gizon eta Zu berritz Jainko Jauna.

III

21 ZERTAKO JAUNA, zertako zaude hola urrun ?
Oren beltzean, hinka gaixtotan nun zaude nun?
22 Gaixtoa kantuz, dohakabea beti ilun,
Gaixtakerien beldurrik gabe nihoiz nihun.

23 Bekatoreak bere gaizkiez zer espantu !
Burroka dabil : Jainko beldurrik harek eztu.
24 Harrorik dio : "Zer irrisku da, zer bekatu ?
Jainkorik ez da" Harek holako hitzak ditu.

25 SAhanzten Zaitu, guziak ongi badoazko :
Etsai guziez badu bai trufa bai xixtako.
26 Bihotz barnean dio: "Banaiz ni sekulako :
Menderen mende etzait ez deusik gertatuko".

27 Ahotik badu gezur tzarkeri burrustaka,
Mihi azpitik gaixtakeriak dariozka.
28 Hiri ondoko sasitan dago xeletaka,
Hobengabea, denen ixilik noiz nun kaska.

29 Begiak dauzka dohakabea noiz heldu den
barrandan dago, lehoinen pare da gordetzen.
Barrandan dago noiz gaizo hura bil dezaken.
Hartzen du hartzen, eta sarean sar-arazten.

31 0Lurreratzen da, herrestan joaten eta jauzten,
Dohakabeak bere eskurat eror diten.
32 Barnean dio: "Ahantzia du, lasai gauden;
Ez dago beha Jainkoak ez du deus ikusten".

IV

33 UTI BA,JAUNA: zure eskua, otoi! luza;
Dohakabentzat ez bihotz begiz izan hotza.
34 Zertako Jaunaz gaixtoak trufak derabiltza:
"Janen du janen fededuneri eman hitza".

35 Nigar, mineri egiten duzu bai behako,
Heien maiteki zure eskuan ezartzeko.
36 Dohakabea oso-osoki Zuri dago,
Umezurtz denak nor du Zu baino lagunago ?

37 Makur eta tzar den gizonari hauts besoa :
Akabo hura Zuk hasarrean bada joa.
38 Menderen mende denen Errege da Jainkoa :
Bere Lurrean fedegabentzat herioa .

39 Entzuten duzu dohakabeen deia, Jauna :

Pizten ditutzu eta bazaude heier dena.
40 Zuk zaintzen duzu indar-gaberi den zuzena
Zure aldean deus lurra eta deus gizona.

## 10

1 JAUNAREN BAITAN naiz ni bizi
Ez erran neri: "Zoazi, zoazi.
2. Zoazi mendirat airez-aire ,
Xorien pare zoazi, zoazi .

3 Haro Zu ganat daukatela
Gizon makurrek arranbela,
4 Bihotz-garbiak ea nola
Ixil-ixila jo ta zila.

5 Oro lurrerat badoatzi,
Zuzenak ote nolaz bizi ?
6 Jauna gain hartan da egoki :
Jaunak zeruan du jar-alki.

7 Lurrerat dago dena begi
Nork nun zer gaizki, nork zer ongi.

8 lkertzen ditu ona, tzarra :
Gaizkitzalentzat Jaunak herra.
9 Heieri baitu su botako
Ifernu-aize sekulako.
10 Bai zuzena da Jainko Jauna :
Harek moite du zuzen dena.
11 Osoki zuzen den jendea
Egonen zaio Hari beha.

## 11

1 HEL OTOI JAUNA! Orai saindurik ezta nihun,
Jenden artean egia bera nun ote nun ?
2 Solas orotan gezurrik baizik ezin entzun :
Guziak dire bihotzez maltzur, barnez ilun

3 Noiz behar ditu gezur ezpainak Jaunak hetsi;
Heien solasak, solas ederrak zankez hautsi?
4 Baderasate: "Gu mihiz erne, mihiz handi;
Ezpainak gure: Nor nun ote da gure nausi" ?

5 Bihotz apalen min guziez naiz urrikaldu
Jeiki ordu da, dio Jainkoak, jeiki ordu.
6 Dohakabeen otoitz auhenak zaizkit heldu :
Deika denari emanen diot salbamendu".

7 Hitzak Jaunari hitz garbi-garbi badoazko :
Zazpitan urtu zilar garbien iduriko.
8 Zuk, Jainko Jauna, gaituzu beti beiratuko,
Lagunduko zuk oraitik eta sekulako.

9 Tzarrak onari dena itzuli ari zaizko;
Ez ahal dire gaixtoak orai nausituko.
(10) 0spe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den lzpiritu Sainduari.

## 12

1 NOIZ ARTE JAUNA, utzia nauzu arras ote ?
Egin ba neri begitarte.
2 Noiz arte minek nere arima dabilate,
Griñek bihotza jaten daute ?

3 Noiz arte nitaz etsaiek trufak badauzkate ?
Nitaz, Jainkoa orroit zaite!
4 Ez nadin itzal, nere begiak argiz bete;
“Gu nausi" erran ez bezate.

5 Ez utz etsaiak espantuz jauzten, bentzun arte;
Zuri bainago hil ez naite.
6 Nere bihotza kantari piztuz etor zaite;
Diotan zenbat nauzun maite.

## 13

1 BURU GABEEK derasatenez: Jainkorik ez !
Usteldu dire beren gaizkiez; gizonik ez.
2 Gizonetarat Jauna zerutik so dabila :
Baden zentzurik, baden doanik Jainko-bila.

3 Gizonak dire denak makurtu, denak tzartu :
Ezta munduan nihun gizonik, nihun onik.
4 Noiz arte tzar hoik hala dabilzka Zuri uka ?
Hoikien herrak noiz arte gauzka bere bazka?

5 Zuzenen alde Jauna baitago hek Iaztuko,
Tzarrak alferrik jazartzen zaizko: Jauna Jainko.
6 Zion menditik Jauna noiz heldu behar zaiku,
Emanez guri bai salbamendu eta esku.

7 Bere jendea Jaunak bakean ezartzean,
Bai zer loria denek orduan bihotzean!
(8) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.

## 14

1 NOR DAUKE JAUNA, zure baitan,
Zu zauden mendi saindu hartan ?
2 Bihotza garbi dabilana,
Zuzen zuzena den gizona;
3 Egiari bai datxikona,
Bertzez gaizkirik ez diona.

(4) Nor dauke, Jauna, zure baitan,
Zu zauden mendi saindu hartan ?
5 Bertzen kaltetan ez doana,
Auzoen trufan ez dagona,
6 Tzarrentzat sorik ez duena :
Handi baitauka fededuna.

(7) Nor dauke, Jauna, zure baitan,
Zu zauden mendi saindu hartan ?
Hitz eman-eta hitzekoa,
5 Diru xurgatzen ez baitoa.
Jauntzen ez dena joz gaixoa :
Sekulako xut holakoa.

## 15

1 ZAUDE NERE ZAIN, Jainko Jauna
Zuri bainago Zuri dena.
2 Zu zare bai Zu nere Jauna :
Nik Zu gabe nun zoriona ?

3 Bere lurreko sainduekin,
Zain adiskide nauen egin.
4 Nasaiki nigar, nasaiki min,
Jainkoaz bertze jainkoekin.

5 Ez naiz sartuko heien baitan,
Ez heien odol ixurtzetan.
6 Heien izena nik sekulan
Ez dut izanen ezpainetan.

7 Jauna, Zu zaitut ondorio
Eta biziko bozkario.
8 Zuk eman hori ez galtzeko,
Zuhaur beti zain zagozkio.

9 Nere zorteak nau ezarri
Toki gozoan izigarri.
10 Ondoriotzat dutan hori
Zoin maitagarri zaitan neri.

II

11 NIK ZER ESKERRAK Jainkoari,
Betitik baitut aintzindari.
12 Bihotza daukat gauaz ari :
"Hago Jaunaren erranari".

13 Biziko urrats guzietan
Jauna dut beti aintzinean.
14 Egoiki baitzait eskuinean,
Nork nau joko ni, nork sekulan

15 Bihotza dut nik lorietan
Zer boza dudan nere baitan !
16 Gorputza ere, zer bakean,
Pausatuko zait hil-hobian.

17 Nere arima duzulako
Zuk ifernutik aterako.
18 Zure den huni ez etzaio
Bere gorputza ustelduko.

19 Bizirat nauzu lagunduko
Gozo nasaiez han beteko.
20 Zure ondoan Zuhauri so,
Zer zoriona sekulako !

## 16

1 ENTZUN GAUR,JAUNA zuzen dena
Onhar nik egin dei auhena.
2 Dena beharri egon, Jauna,
Gezurrik gabe dut ezpaina.

3 Begitarteaz egin argi :

Beti naizela zuzen ari.
4 Baitzaude beti dena begi,
Maiteki beha zuzenari.

5 Nere bihotza iker, zila :
Haro gaizkirik ez dutala.
6 Ni marmarikan ez nabila
Bertze gizonak maiz bezala.

7 Zuk erraneri naiz ni jarri,
Legeen bidez bainaiz ari.
8 Hurbildanik naiz josten Zuri :
Ez naiz baztertu, ez erori.

9 Deika nagozu: entzun, Jauna,
Beharrirat har nik errana..
10 Erakuts gauzik ederrena :
Zure betiko bihotz ona.

11 Salbatzen duzu beti, Jauna,
Zu ganat ihes ari dena.)
12 Zain nezazula Zuk, Jainkoa
Zaint nola begi ñiñikoa.
13 Zure hegalpen itzalean
Etsai herratik zaint bakean.

II

13 NERE ETSAIAK errabian
Guziak dauzkat inguruan.
14 Herra eta gantz heien baitan :
Hor ditut mintzo espantutan.

15 Dena hortz dauzi, dena begi
Noiz behar nauten kraskarazi.
16 Nola Iehoinak noiz ausiki,
Noiz umeekin tanpez jauzi.

17 Xuti ba, Jauna, ordu baita :
Denak lurrerat Zuhauk bota.
18 Libra nezazu har ezpata,
Hetarik libro dutan kanta.

19 Heiek bizi hau dena dute :
Bete ditutzu gauzez bete.
20 Semek nun goza badaukate
Ondokoeri utzi arte.

21 Nik hil-ondoan zer bakea :
Zuri garbirik behatzea !
22 Iratzartzean zer asea
Begitartean Zuri beha.

## 17

1 MAITE ZAITUT NIK: Zu baitan Jauna, dut indarra
Zuri esker dut beti garraitzen gaitz-oldarra .
2 Zu, zaitut, Jauna, itsas -harroka, ihes-lurra,
Nere geriza deusek ezin har, ezin urra.

3 Hura dut lagun, aterbe, murru, ezkin-harri
Eta etsaien kontrako indar izigarri.
4 Deika nago ni on baino hobe den Jaun horri
Eta jausten zait etsaietarik salbagarri.

5 Hartua nintzen heriotzeko uhainetan :

Uholde gaitzek banindaukaten ikaretan.
6 Ifernuak nau inguratua. gau-saretan ,
Heriotzeak bere aztapar beltzen baitan.

7 Minen erditik Jainkoa ganat oihuz ari,
Indar guziez dei egin diot Jainkoari.
8 Eta zerutik entzun daut entzun oihu hori :
Dena beharri egon zait, nitaz urrikari.

II

9 INARROSIAK izan dirade lur mendiak,
Jainko Jaunaren hasarre gaitzak irauliak.
10 Igan zaizkio sudurretik ke lazgarriak,
Ahotik berritz su-garrak eta itzindiak.

11 Zeru zeruak apaldu ditu jauts nahian,
Jautsi da bera, hedoi bat beltza oin azpian.
12 Eta badagon airez aireko alki hartan
Hegaldatu da aizeak dauzkan hegaletan.

13 Gau-ilunbez da estali eta dena jauntzi ;
Hedoi nasaien ur beltzak ditu egon-toki.
14 leGar bat doako, munduko deusek ezin geldi :
Unkiak oro egiten ditu su-itzindi.

15 Zeru-karraskaz egin du Jaunak ihurzuri,
Adi-araziz bere mintzoa munduari.
16 Suzko eztenak igorri ditu, zoin lazgarri,
Ximixtak bots eta guziak iheslari.

17 Nahasi ditu urpetaraino itsasoak,
Harrotu ditu lur guziaren azpikoak.
18 Zerutik oro nahasi ditu Jaun Goikoak,
Oro nahasi haren kexuen hats-orroak.

19 Jaunak eskua zeru-gainetik daut eskaini
Eta nindagon ur gaifzetarik hartu nau ni.
20 Nindaukan etsai indartsuari nau ebatsi,
Neri guziak nituelarik arrunt nausi.

21 Zorigaitzeko eguna jauzi zaitaneko,
Jaun Zerukoa lurreratu da ni zaintzeko.
22 Eman daut Harek osasun eta bozkario
Salbatu nau ni baitu neretzat amodio.

III

23 ZUZEN BAINOA Jaunak ordaina eman neri,
Esku garbien araberako Jaunak sari.
24 Jarri naiz-eta beti Jaunaren nahieri :
Ez naiz sekulan Jaunaren ganik urrun ari.

25 Haren manuak badauzkat beti begietan :
Ez nabila ni hek noiz nundik utz detzazketan.
26 Bizi nitzaio osoki garbi aintzinean,
Gal-bideari beti dut beti kasu eman.

27 Eman daut sari, hartu baitut nik zuzen bide :
Gure Jaunari esku garbiak ezin gorde.
28 Adiskideak beti zaitu Zu adiskide,
Fedez beteak Zu zaitu ere beti alde.

29 Garbi denari Zu beti garbi, beti zuzen;

Maltzurrarekin zoin segurretik ari zaren.
30 Jende apala duzu-eta Zuk goraltxatzen;
Espantuz goiti dauden begiak Zuk apaltzen.

31 Nere bizian Zu zaitut, Jauna, nik Argia;
Nere gau eta bihotz-ilunben Iduzkia.
32 Aise dut hola gainditzen etsai harresia :
Jainkoa lagun, traben gainetik zer jauzia

33 Jainko-bidea osoki garbi eta zuzen :
Haren hitzetan garbi ez denik ezta sartzen.
34 Hari daudenak makurrik gabe joan ditezen,
Jainkoak berak ditu gau-egun begiratzen.

IV

35 JAUN ZERUKOAZ bertzerik ote nor da Jainko?
Gure Jainkoaz bertze nor ote gu zaintzeko ?
36 Jaunak emanik garrait-indarra dut gerriko :
Etzait urratsa zuzen bidetik baztertuko.

37 Egin nau harek nota orkatza zangoz arin
Eta egoitza gain-gainetan daut nere egin.
38 Moldatu bainau, gudu egiten dut nik jakin
Bai eskuekin, bai eta suzko eztenekin.

39 Zuk emanik dut salbamenduko erredola,
Zuk erakutsiz dakit ibiltzen nundik nota.
40 Zuk zabaldurik, nere bidea zoin zabala,
Nere zangoa trabarik gabe baitabila.

41 Nere etsaien ondotik noa hek hartzeko :
Ez naiz itzultzen, xehakatuak ez direno.
42 Hek ezin xuti arte banago heieri jo :
Erortzen zaizkit eta badauzkat zangopeko.

43 Gudurakoan garrait-indarraz nauzu jauntzi
Eta ,etsaiak nere azpian lurrerazi.
44 uk ni lagunduz, denak ihesi baitoazi :
Nolaz ditezke ez bazine hor hola izi ?

45 Oihuka daude eta nihor ez lagun heldu ;
Jaunari deika : elkorrarena egiten du.
46 Aizeak nola errautsa ditut porroskatu:
Nere zangoak bideko lohi egin ditu.

V

47 JALIA NAUZU nahasmendutik zuk jalia,
Ainitz jendaien jaun buru nauzu ezarria.
48 Arrotz jendea nere azpiko zait jarria,
Entzun orduko egiten baitu nik nahia.

49 Arrotz herriek denek lausengu, denek agur,
Ez jakin aski nere alderat nolaz ukur.
50 Arrotz herriak hor ditut ahul eta uzkur :
Atera zaizkit gerizetarik nere beldur.

51 Gora Jainkoa ! Eskerrak Zuri oi, Harroka !
Salbatu bairiau, Hari guziak bil goreska.
52 Indar eman daut, etsaiez nadin ni mendeka,
Berak jendaiak nere azpiko deramazka.

53 Libratu nauzu, etsai guzien harrigarri
Eta jazarka zabilzkitanen jaun ezarri.

54 Hortako zaitut goraipaturen herriz herri,
Eginez kantu zure gaitzeko izen horri.

55 Erregeari diozu beti, dei orduko,
Indar emaiten etsai guzien garraitzeko.
56 Zure Kristori ona bai ona baizitzaio,
Dabidi eta haren semeri sekulako.

## 18

1 ZERU ZERUEK aipatzen dute Jainko Jauna,
izartegiak Haren lana.
2 Goizak goizari erraiten dio Hak egina,
Gauak gauari berri ona.

3 Goizak errana eta gauaren berri ona
Adi daiteken errexena.
4 Mundu guzirat badoa heien hitz ozena,
Lurrez lur heiek diotena.

5 Han eman dio iguzkiari egon-toki,
Dadien handik beti ieiki.
6 Errege jaun bat gelatik bezein Iorioski,
Bidean bozik baita joaki.

7 Bazterrez bazter zeru zeruan da ibilki,
Hango bideak ongi dazki.
8. Mundu guzirat igortzen baitu, zoin nasaiki,
Bai indar eta bai iguzki.

II

9. JAINKO LEGEA on ona da,
Bihotz gogoen pizgarria.
10 Jaunaren hitza ezin alda,
Jende lañoen zuhurtzia.

11 Haren manuak beti zuzen,
Bihotzarentzat bozkario.
12 Garbiki dute joan-arazten,
Soari argi baitzaizkio.

13 Jainko-beldurra zoin garbia !
Menderen mende garbi doa.
14 Jaunak errana zoin egia,
Gezur izpirik gabekoa.

15 Urrea ezta hain dirdira,
Den garbiena balitz ere.
16 Eztiak eztu gozo hura :
Jaunaren hitzek nun zer pare ?

17 Zure hau beti naiz heiekin,
Hek nota bête dena begi.
18 Nork bere hutsak xuxen jakin ?
Huts gordetarik Zuk ni garbi.

19 Handikeririk ez utz nitan,
Ez dakitala nehoiz nausi.
20 Garbi nindake bai orduan,

Hoben handitik arrunt garbi.

21 Nik erran hitzak onhar-zkitzu
Eta bihotzak derrautzuna.
22 Zuri ari naiz: Zu zaitut Zu
Nere Harria, nere Jauna.

## 19

1 EGUN BELTZEAN entzun zaitzala Jaunak entzun,
Hura guduan alde duzun.
2 Tenplo saindutik dagola beti zure lagun,
Zion-go Jaunaz duzun bentzun.

3 Beha dezala egin ditutzun eskaintzeri :
Izan zaizkoia laketgarri.
4 Eman dezala zure bihotzak nahi hori,
Indar Zuk hasi guzieri.

5 Zu nausitzean eginen dugu jauzi, oihu ,
Banderak goiti esker-kantu.
6 Zure xedeak Jaun Zerukoak behar ditu
Agian denak bururatu.

7 Badakit orai, Jaun Zerukoak emanen du
Bure Kristori salbamendu.
8 Zeru gainetik haren otoitza entzun baitu,
Esku indarraz du lagundu.

9 Beren zaldiez, beren karroez batzu azkar,
Guk Jauna baitan dugu indar.
10 Hek xutik egun, erortzen eta deus-ez bihar;
Gu beti xutik: nork Io, nork har ?

11 Zure indarra emozu,Jauna, erregeri :
Onhar guk egin otoitz hori.
(12) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Bai Izpiritu Sainduari.

## 20

1 ZURE INDARRAK Erregeri kar pizten dio,
Zure laguntzak irrintzin eta bozkario.
2 Nahi zuena zure eskutik egin zaio,
Entzun ditutzu haren ezpainen deiak oro.

3 Egundainoko ongi nasaiez duzu bete,
Haren buruan urre koroa eman arte.
4 Egin du harek bizi zadien zuri galde
Eta zuk eman urte urteak mendez mende.

5 Zure laguntzak ospe handia eman dio :
Handitasuna edertasuna du soineko.
6 Zure ongiez bete baituzu sekulako,
Badu nasaiki zure baitako bozkario.

II

7 DENA JAUNARI bazaude beti zu osoki :
Jaunari esker zu nehoiz nehork ezin unki.
8 Zure eskuak etsaiak bitza denak aurki ;

Zure eskuinak herraz dauden hoik jo garrazki.

9 Egin ditela lobe gorria bezalako,
Begitartea Zuk agerturen duzuneko.
10 Jaunak hasarrez erreko ditu sekulako:
Bai suak ditu guzi guziak iretsiko.

11 Heiek egina lurretik arrunt ken zazu ken,
Heien semeak gizon artetik suntsi diten.
12 Badaude tzarki Zuri zer egin dezaketen ;
Karkulen gatik etzaizkitzu hek nausituren.

13 Zu ikus-eta bai ihes egin dezatela ;
Heien alderat heda gerlako arranbela.
14 Xuti ba, Jauna, ager Zu baitan den ahala,
Zure indarra dezagun aipa, zor bezala.

## 21

1 Nere Jainkoa, nere Jainkoa, nun zaude nun ?
Zergatik ote nere oihutik egon urrun ?
2 Nere Jainkoa, egunaz nik dei, Zuk ez entzun,
Gauaz nik oihu, bainan Zuk deusik nihoiz nihun.

3 Alta, Jainkoa, Izraeldarrek Zuri kantu;
Zuri baitzauden, bai Zuri Aitak, Zuk libratu.
4 Hek oihu eta zure eskuak zaindu ditu :
Zuri baitzauden, ez dire segur hek dolutu.

5 Ez naiz gehiago gizonki, bainan lur-zizari,
Jenden ahalge, guzi-guzien laidogarri.
6 Ikus orduko, guziek neri trufa, irri,
Ezpain muturrez eta buruaz keinuz ari :

7 Jaunari zagon, libra dezala: bego Hari.
Ken dezala ken, maite duenez hor ageri".

8 Amaren ganik Zuk nauzu-eta jalgarazi,
Haren bularraz Zuk ni goxatu, Zuk ni hazi.
9 Zure altzorat dut nik sortzetik egin jauzi;
Amaren ganik jalgiz geroztik nik Zu Nausi.
10 Ez egon urrun: atsegabetan naiz gaur bizi;
Ondoan egon, denek bainaute denek utzi.

II

11 ZEZEN SALBAIAK ni nolaz irets badabilzka,
Basan-lurreko abreak ditut inguruka.
12 Agoa zabal nitarik nahiz egin bazka,
Egoki zaizkit lehoinen pare marrumaka.

13 Ura bezala xirrixtan ari dut odola,
Hezurrak oro zoin bere alde doatzila.
14 Bihotza daukat urtu ezkoa den bezala :
Hertzeetarat xorta-xortaka badabila.

15 Hara zintzurra harria bezein gor dutala,
Mihia berritz idor idorra nola taula.
16 Zakur salbaiak ni nolaz irets badabilzka,
Gaizki egile osteak dauzkat inguruka.

17 Esku zangotan egin dautate zilo neri
Hil-hobian den hil-errautserat naiz erori.
18 Hezurrak ditut guziak oro nik ageri ;

Bozkariotan neri behaka zaizkit ari.
19 Jauntzi zatiak hartu dauzkitet beren sari,
Egina dute soin-gainekoaz "ea nori".

20 Nitarik otoi, ez egon, Jauna, beti urrun :
Nere laguntza zatozkit laster nere lagun.
21 Entzun bai entzun, hil ezpatari ken nezazun,
Nere bizia zakur hortzari har dezozun.
22 Entzun bai entzun, lehoin ahotik ken nezazun,
Naizen gaixo hau bas-adarrari har dezozun.

III

23 ZURE IZENA aipatuko dut anaieri,
Bil-egunean emanez dener zure berri.
24 Jainkozaleek, eskerrak eman Jainkoari;
Izraeldarrek, beldurrez-maitez has kantari.

25 Ez dio Jaunak ez uko egin, ez beltzuri
Behar gaitzean ginabiltzanen beharrari.
26 Begitartea ez dauku ere gorde guri :
Deitu orduko, aditu gaitu oihuz ari".

27 Zu zaitut, Jauna, Zu bihotz-kantu biltzarrean,
Jainkoa maite duten gizonen aintzinean.
28 Zu zaitut kantu hitzeman gauzen eskaintzean.
Janen dute bai behartsu jendek ausarkian.
29 Jainkozaleek orduan kantu denek betan :
"Zuen bihotzak bizi ditela bai mendetan".

30 Mundu huntako guziak dire orroituko
Eta guziak Jainkoa ganat itzuliko.
31 Herri guziak, jende guziak betan zaizko
Ahuspez eta goresmen-kantuz etorriko.

32 Jauna da-eta Jauna,zuzenez, denen Jainko,
Herri guziak behar baititu bere peko.
33 Lurreko jaunek izanen dute Hura Jainko,
Lur-errautserat doatzinek Jaun ezautuko.

34 Nere arima, nere bizia Hari dena;
Nere ondoko jendea ere Jaunarena .
35 Erranen baitu gerokoeri nor den Jauna,
Sortuko diren jenderi "Hau du hau egina".

## 22

1 JAUNA DUT ARTZAIN: ez naiz egonen beharrean.
Zer gainetarat nerabilan !

2 Ur bazterreko pausa lekurat banerama,
Pitz dakitan hor pitz arima.

3 Haren ondotik bide zuzenez ni banoa :
Haren izena zoin gozoa !

4 Ilunbez ala gaitz-erreketan joanik ere,
Nik ez beldurrik, hor baitzare.

5 Zure begia, zure makila hor direno,
Badut nik bake, badut gozo.

6 Zuhauk dautazu ezartzen neri mahain xuri,
Etsai guzien harrigarri.

7 Ixurtzen duzu nere bururat usain ezti,
Basoan badut gaindiz-gaindi.

8 Nik zoriona eta grazia ditut lagun,
Nere bizian gau et-egun.

9 Banago-eta Jaun Zerukoa den etxean,
Epe luzerik luzenean.

## 23

1 JAINKOARENAK mundua eta mundukoak,
Bai lurra eta lurrekoak.
2 Harek du lurra itsas gainean ezarria
Ibai artean hor jarria.

3 Nor iganen da Jainko Jaunaren mendiraino ?
Dagon tokian nor sartuko ?
4 Eskuak eta bihotza garbi dabilana,
Gezurretarat ez doana.

5 Eginen dio Jaun Zerukoak ongi hari;
Emanen dio Jaunak sari.
6 Jainko Jaunaren begitartea noiz nun goza
Holakoak bai badabiltza.

7 Ateak, zabal ! ateak, altxa ! heldu boita
Ospe gaitzeko Erregea.
8 Nor ote da ba ospe gaitzeko Erregea ?
Jainko Jaun ezin garraitua.

9 Ateak, zabal ! ateak,altxa ! heldu baita
Ospe gaitzeko erregea.
10 Nor ote da ba ospe gaitzeko Erregea ?
Zeruetako Jaun Goikoa.

## 24

1 ZU GANAT DAUKAT nere arima, Jainko Jauna,
Zuri nago ni Zuri dena.
2 Zuri bainago ez nadila gal, ez ahalka :
Ez utz etsaien trufen bazka.

3 Osoki Zuri dagon jendea gal ez daite,
Hitza jaleak bai gal beite.
4 Zure bideak erakuts, Jauna, otoi ! neri :
Emazu ere xendren berri.

5 Zure egia igor zadazu aintzindari,
Dena bainago beti Zuri.
6 Zer amodio duzun guretzat orroit, Jauna,
Zer sekulako bihotz ona !

7 Ez gogoan har nere gazteko bekatuak,
Nere gaitz ezin ukatuak.
8 Neurri gabeko bihotz onean har nezazu,
Osoki ona baitzare Zu.

II

9 ONA DA ONA eta zuzena Jainko Jauna:
Harek xuxentzen makur dena.
10 Apalak ditu zuzen zuzenik joan-arazten,
Beren bidean ibil diten.

11 Haren bidean egia eta amodio,
Hari josiak bagitzaio.
12 Zure izena orotan dadin aipatua,
Barka zadazu bekatua.

13 Fededunari Jainkoak berak erakusten,
Nundik ibili behar duen.
14 Zorionean eta bakean dago hura,
Haren haurrena daite lurra.

III

15 HARI DAUDENAK ditu Jainkoak adiskide,
agertzen da maiz heien alde.
16 Nere begiak Jaunaren ganat dauzkat beti,
Saren artetik nadin xuti.

17 Beha zadazu , nere oihua bihotzez har:
Dohakabe naiz eta bakar.
18 Nere barneko atsegabeak arin-zatzu,
Hersturetarik ken nezazu.

19 Beha zertan den nere ezina, nere mina
Hobenak ahantz, barka dena.
20 Ikus etsaiak neri jazarka zenbat diren,
Zoin finki nauten hastiatzen.

21 Begira zazu nere arima, hel ba, Jauna,
Ez utz galtzerat zure dena.
22 Hobengabeak eta zuzenak zain nezate ;
Zuri nagola orroit zaite.

23 Ken, otoi, Jauna, zure jendea ken librorik
Bere herstura minetarik.
(24) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 2 5

1 JAR NERE ALDE, zuzen bidean bainabila:
Zu lagun noa zure legean den bezala.

2 Ni, Jainko Jauna, iker ta froga nezazula,
Nere errainak eta bihotza funski zila.

3 Gogoan baitut Zuk duzun bihotz hoin zabala
Eta gau-egun zure egian bainabila.

4 Gizon makurren artean ez naiz nehoiz jarri,
Ez eta ere gezurtiekin makur ari.

5 Gaizki egilen bilkurak zaizkit higuingarri :
Ihesi noa makur dabiltzan guzieri.

II

6 GARBI GARBIAN ditut eskuak garbituko,
Aldareari kantuz inguru bainoako.

7 Zu goresteko jende guziak hor lekuko,
Eta Zuk egin miragarrien aipatzeko.

8 Maite dut, Jauna, zure etxeko eder hura
Eta Zu zauden egon-tokiko apaindura.

9 Ez nezazula bekatoroser otoi! junta,
Odol-gizonen bizi-molderat ez ni bota.

10 Heiek daukate aztaparretan bekatua,
Eskuina dute dena emaitza zabaldua.

11 Ni aldiz, Jauna, garbi garbian banabila :
Otoi, begira eta urrikal nakizula.

12 Nere zangoa behar-bidean zuzen doa;
Bil egunetan goresten zaitut Zu, Jainkoa.

## 26

1 JAUNA DUT ARGI, Jauna geriza; ni nork izi ?
Jauna dut lagun: nork behar nau ni dardarazi ?

2 Jauzten badire nitarik nahiz egin bazka,
Etsaiak zaizkit lurreratuko daldaraka.
3 Etsai-armadak etor ditela: ni ez beldur :
Pitz bedi gerla: Jaunaz osoki nago segur.

4 Hau dut Jaunari bakar-bakarra, hau galdea:
Haren etxean bizi naizeno egoitea.
5 Haren gozoen gozoaz nadin beti goza,
Begiz ikusiz Jainkoarena den egoitza.

6 Egun beltzetan gordeko bainau aterbean,
Gordeko eta xut ezarriko arkaitzean.
7 Hargatik orai inguru dauden etsaieri,
Burua gora nagokiote dena irri.

8 Irrintzinezko eskaintza diot Jainkoari
Eskainiko nik bai soinuz eta kantuz ari.)

II

9 ENTZUN, JAINKOA, otoizka dagon nere boza;
Urrikal zaite, ihardets neri: otoi ! mintza.

10 Bihotza deika, beha ta beha banabila,
Zure zeruko begitartea gaupez bila.
11 Etzadazu ba begitartea hola gorde,
Ez hasarrean zure zure hau utz debalde.

12 Ez ni arbuia, Zu zaitut, Jauna, Zu laguntza;
Salbatzailea, ez ni Zu ganik urrun haiza.
13 Nere aitamek arras utzia banaiz ere,
Jainkoak beti nau atxikiren, bainau bere.

14 Zure bidea nundik norat den erran, Jauna;
Etsaien gatik erakuts bide segurrena.
15 Ez ni ersaien aztaparretan eror-araz,
Aiherka zaizkit eta gezurka jeiki herraz.

16 Badut sineste : ikusiko dut zoin den ona
Bizi direnen lurrean ona Jainko Jauna.
17 Egon bakean Jaunaren beha ; izan gizon :
Altxa bihotza eta Jaunaren beha egon.

## 27

1 OIHUZ NAGOZU: Jauna, etor !
Etzaitela ba egon elkor.

2 Ez barait lagun heldu nehor,
Beldur naiz eta hilik eror.

3 Nere oihua otoi! entzun:
Haro nun deika nabilazun.
4 Eskuak luze nik gau-egun,
Tenplorat diot : etor lagun !

5 Izan Zu nitaz urrikari
Eta ez libra gaizkileri.
6 Badauzi dena ele zuri :
Azpitik gero gaizki ari.

7 Bihur zozute gaixtoeri
Berek merezi duten hori.
8 Heien eskuak makur ari :
Zuk araberan eman sari.

9 Jaunak eginez hek daude hotz;
Lurrera zatzu sekulakotz.
10 Eskerrak Zuri, nauzulakotz
Otoizka entzun, dena bihotz.

11 Neretzat Jauna zer geriza !
Hari osoki dut bihotza.
12 Lagundua nau: ai, zer boza !
Nere Kantuak gorets beza.

13 Jauna fededun jenden alde,
Bere kristoren adiskide.
14 Fededunen zain, Jauna, zaude:
Erabil-zatzu mendez mende.

## 28

1 BIHUR JAUNARI, Jainko semeek, zor eskerrak,
Bihur bai ospe, bai indarrak.

2 Bihur Jaunari Harek eginen ospe gaitza,
Kantuz, ahuspez Hari mintza.
3 Jainko-mintzoak itsas-uretan zer indarra !
Jainko-mintzoa zoin ederra !

4 Jainko-mintzoak xehatzen ditu krask! zuhaitzak,
Liban mendiko zedro gaitzak.
5 Ergien pare mendiak ditu jauz-arazten,
Bai ximixt eta sugar pizten.

6 Jainko-mintzoak basa-mortua inharrosten,
Kadez-mortua kordokatzen.
7 Jainko-mintzoak bihurdikatzen haitz buruak,
Oihanak uzten bipilduak.

8 Jainkoa mintzo ihurzurien karrasketan.
Dagon tokian denek : Ospe !
9 Jaun zagon Jauna uholdearen egunetan,
Jaun dago Jauna betiere.

10 Jaunaren ganik haren jendeak indar duke,
Ainitz ontasun eta bake.
11 Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Bai Izpiritu Sainduari.

## 29

1 BAI, GORA JAUNA, Zuhauk bainauzu eskuz hartu,
Ez duten nitaz etsaiek trufa ez espantu.

2 Zure alderat, nere Jainkoa, nere Jauna,
Egin dut oihu eta Zuk eman osasuna.

3 Atera duzu nere arima ifernutik;
Zaindua nauzu hil-ziloraino Ierratzetik.
4 Jainko Jaunari Haren gizonak has kantari :
Eman gogotik eskerrak Haren izenari.

5 Haren hasarrek apur bat baizik ez diraute;
Bizi guzian gu ma itez Harek begitarte.
6 Gauerakoan soari nigar jauzten zaio,
Eta goizean zerurainoko bozkario.

7 Zorionean nindagolarik nion gora :
"Ez nezake ni nehork neholaz errekara".
8 Eman zinautan bai ohorea bai indarra !
Zuk begitartea gorde orduko zer daldara !

9 Banago, Jauna, oihuka Zuri aspaldian,
Zure betiko bihotz onari otoitzean.
10 Zer behar duzu odol huntarik irabazi,
Zer, hil-zilorat egiten badut hilez jauzi ?

11 Zukerrautsetik ba ote duzu Iaudorio,
Zure Egia zoin den handia ote dio ?
12 Entzun, Jainkoa, urrikal nitaz, otoi !
Zato, Jainkoa, eskua luza, nere lagun.

13 Nuen dolua egin dautazu dantza jauzi,
Kopa kendurik betiko bozez nauzu jauntzi.
14 Zor dautzu, Jauna, nere arimak soinu kantu ;
Nahi zaitut Zu beti ta beti goraipatu.

## 30

1 NERETZAT IZAN beso zabal,
Jauna, betikotz ez nadin gal.
2 Libre nezazun eman hegal,
Ni ganat laster, otoi! apal.

3 Izan zakizkit ihes-harri,
Eta goi-hiri salbagarri.
4 Zu zaitut harri, Zu goi-hiri
Zu bidez-bide aintzindari..

5 Bertzen saretik salbu noa,
Nere zain duzu Zuk besoa.
6 Zure eskutan nago dena,
Salbatzen nauzu, Jainko Jauna.

7 Hastio duzu bai hastio
Nork zerbeit ezdeus baitu Jainko.
8 Ni Jainkoari nagokio,
Harek neretzat amodio.

9 Goxatu duzu nere mina,
Zuhauk arindu nauzu, Jauna.
10 Ez nauzu egin etsaiena,
Bainan bai aldiz xut emana.

11 URRIKAL,JAUNA, indar eman;
Zenbat min eta beldur dutan!
12 Nigarrak dauzkat begietan,
Ariman eta hezurretan.

13 Bizia baitaut histen minak,
Nik urtez urte zer auhenak!
14 Indarrak ditut arrunt joanak
Eta hezurrak elgar janak.

15 Etsai ditudan guzieri
Bilakatu naiz trufagarri.
16 Auzoko jendek nitaz irri,
Adiskideek ni lazgarri.

17 Ohartzen bazait norbeit neri,
Hura bidean ihes ari.
18 Ahontzia naiz hil iduri :
Puxka tzarretan naiz erori.
19 Ainitzek dute sistu egin:
Eta nik beldur, nik bihotz-min.
20 Bilduak zaizkit elgarrekin,
Ni nolaz garbi nahiz jakin..

21 Jaunari dena nagokio :
Jaunari diot: "Nik Zu Jainko".
22 Banaukazu-ta Zuk eskuko :
Etsaietarik ken betiko.

23 Begitarte on egin, Jauna,
Zure zurea bainaiz dena.
24 Erakuts neri bihotz ona
Ez dadila gal zure dena.

25 Gaizkileak bai gal ditzazu :
Ifernuetan beude mutu.
26 Heien agoak egin baitu
Maiz gezur eta maiz espantu.

III

27 ONA DA ONA Jainko Jauna,
Jainkozalentzat zoin den ona !
28 Dohakabentzat ona Jauna,
Gizon guziek dakitena.

29 Bihotz barnean badauzkatzu :
Mundutik urrun, ixilean.
30 Hegalen pean badauzkatzu :
Gaizkitik ihes, zer bakean!

31 Jaunari denek esker eman,
Neretzat baita ona izan .
32 Betiko bihotz zabalean
Deusik ezin har hiri hartan.

33 Erran dut erran, bihotz ilun :
"Zure begitik ni zoin urrun!".
34 Alta ! zuk nauzu beti entzun,
Noiz eta deika nindagozun.

35 Jainkozaleek, maita Jauna !
Zaintzen du Jaunak fededuna.
36 Aldiz nasaiki zer ordaina
Espantueri den emana !

37 Altxa burua, pitz kantari,
Bazaudeztenak Jainkoari.
(38)Ospe Aitari, Semeari,
Bai Izpiritu Sainduari !

## 31

1 DOHATSU ZINEZ bere gaizkitik garbi dena,
Baitu guzien barkamena.
2 Dohatsu zinez hoben gabetu den gizona,
Hak adiskide baitu Jauna.
3 Haren bihotza gezurrik gabe baita dena,
Haren baitan den zoriona !

4 Ixil-ixila dolu minetan bizi nintzen,
Hezurrak janak, dena auhen.
5 Zure eskua gau eta egun ari baitzen
Nere gainean hasarretzen.
6 Nola beroak baitu lastoa udan histen,
Nere indarrak joaten ziren.

7 Aitortu dautzut egina nuen bekatua,
Ez dut erdizka salatua.
8 Erran dut erran: "Aitortuko dut nik egina,
Barka zadazun, Jainko Jauna".
9 Eta Zuk, Jauna, kendu dautazu bekatua,
Behin betikotz barkatua.

10 Hortako zaitu zurea denak otoiztuko,
Zerbeit oren beltz dueneko.
11 Hura tanpezko uholde gaitzek ez Iaztuko;
Hari nehoiz hel ezin zaizko.
12 Zu zaitut indar: gaitzetik nauzu beiratuko,
Salbamendua dut gerriko.

II

13 ERRANEN DAUTZUT zuk hartu behar bide hori,
Nihauk erranen norat ari.
14 Beti zuri so, emanen dautzut argi zuri,
Nihau ibiliz aintzindari.

15 Zaldi mandoak zentzurik gabe badoatzi :
Ez heien pare, otoi! bizi.
16 Heien lasterra gidez arrastez behar hezi,
Bertzenaz heiek makur jauzi.

17 Gaizkileak min, Jainkozaleak bozkario :
Jauna tinki zain dagokio.
18 Gizon zuzenak, pitz Jauna baitan, bozkaria !
Bihotz garbiak hau loria

## 32

1 BIHOTZ GARBIAK, bozkario !
Jaunari kantu zor baitzaio.
2 Garbi denari doakio
Helaraztea laudorio.

3 Jainko Jaunaren goresgarri,
Xirribika jo kantuz ari.
4 Kanta gogotik kantu berri,
Bai soinu-kantu egin Hari.

5 Jaunaren hitza beti zuzen,
Haren egintzek oneratzen.
6 Zuzen legeak ditu maite,
Haren bihotzak lurra bete.

7 Jaunaren hitzak ditu egin
Zeruak beren guziekin.
8 Jaunaren hatsak dauzka berdin
ltsas-uhainak elgarrekin.

9 Jaunaren beldur bego lurra,
Denetan bedi sar beldurra.
10 Hitz bat erran du : horra lurra .
Zer bizi eta zer indarra !

11 Jendek nahia Jaunak aize;
Heien karkulak alfer daude.
12 Jaunak nahiek badiraute :
Haren bihotza mendez-mende.

II

13 HERRIAK JAUNA badu Jainko,
Hura dohatsu sekulako.
14 Zeru gainetik Jauna dago
Gizasemeri so eta so.

15 Bere zerutik ukurtua,
Begien pean du mundua.
16 Harek du dena moldatua,
Bai gizon-bihotz bai eskua.

17 Armada gaitzak deus ez dire,
Gerla-gizonak fitsen paren.
18 Zaldi azkarra zer da ere ?
Indar gaitza dues berez bere.

19 Huna bai Jauna dena begi,
Hari daudenen zain egoki.
20 Heriotzetik ditzan jalgi
Eta nasaiki eman ogi.

21 Jainko Jaunaren beha gaude :
Hura guk lagun, adiskide.
22 Harekin goazi zeru alde :
Jaun izenean dugu fede.

23 Gure gainerat ager, Jauna,
Zure betiko bihotz ona.
24 Gure bihotza baita dena
Zuri osoki, Jainko Jauna.

## 33

1 JAUNARI BETI esker emaiten nagokio
Hari nik beti laudorio
2 Jaunaren baitan arima kantuz banabila :
Bihotz apalak pitz ditela .

3 Denek batean gorets dezagun Jainko Jauna
Eta goraipa Jaun izena.
4 Jaunaren bila nindoan eta huna Jauna :
Beldurra baitaut urrun joana.

5 Jaunari beha egon begiak dirdiraka
Ez zaitezten gal, ez ahalka.
6 Dohakabeak dei egin dio : Jaunak entzun ;
Hersturik ez dut hura lagun.

7 Armaden pare dago Jaunaren Aingerua:
Fededunen zain xutitua .
8 Gozatuz goza, beha ba zoin den gozo Jauna:
Dohatsu Hari darraikona!

9 Jainkoarenek, izan Jaunaren beldur saindu:
Fede duenak dena badu .
10 Handi-mandiak hits eta gose badabiltza ;
Jainkozaleak dena gauza.

II

11 ETOR SEMEAK nahi dautzuet erakutsi
Jaunaren beldur nola bizi .
12 Nun ote da nun bizi egarri den gizona,
Nahi bailuke zoriona ?

13 Zure mihia begira zazu tzarkeritik ,
Zure ezpainak gezurretik.

14 Gaizkitik urrunt eta zuzenki bizi zaite :
Bila bakea urtez-urte.

15 Dena begi da Jauna zuzenen zaintzen ari,
Dena beharri oihueri.
16 Gaixtagineri Jaunak hasarrez begiratzen,
Heien izena noiz nola ken.

17 Zuzenek oihu eta Jainkoak entzun ditu,
Hersturetarik berak hartu.
18 Bihotz errautsi apaldueri hurbil Jauna:
Zaintzen du zaintzen apal dena.

19 Gizon zuzenak baditu minak eta minak,
Bainan hetarik kentzen Jaunak.
20 Haren hezurrak, hezur guziak zaintzen ditu,
Ezin baitzaio bat kraskatu.

21 Bere gaizkiak hilen du hilen gaixtagina,
Onentzat duen herrak fana.
22 Bere gizonen zaintzale hor da hor Jainkoa :
Hari dagona ezta joa.

## 34

I.

1 NERE BELTZAILEN beltzaile jar :
Oldartueri, Jauna, oldar.
2 Gudurakoak zurekin har:
Xuti nere zain dena indar.

3 Altxa zuk lantza eta bota;
Etsaieri jo, har ezpata.
4 Noiz arimak noiz entzunen du:
"Zuretzat ni naiz salbamendu".

5 Ahalka eta hits ditela
Badabiltzanak nere bila.

6 Lotsaz ihesi joan ditela
Dabilzkitanak ni jo nota.

7 Aizeak lasto litsen pare,
Joan bitza Jaunak airez-aire.
8 Heien bidea lerra bide,
Jaunak ditzala tanpez bere.

II

9 ZERGATIK OTE tzartu dire,
Eman baitute neri sare ?
10 Egin dautate zilo ere,
Nere bizia nahiz bere.

11 Beren saretan herioa
Berek dutela tanpezkoa.
12 Neretzat zuten hil-ziloa:
Heien zangoa horrat doa.

13 Nere arima doakio
Jaunari dena bozkario .
14 Jaunak indarra eman dio
Eta barnea piztu zaio.

15 Indar guziez diotala :
"Nor da nor, Jauna, Zu bezala ?
16 Hara libratzen dakizula
Azkarren petik, Zuk, apala".

III

17 LEKUKO BELTZAK zaizkit jeiki :
Omen naizena nik banaki.
18 Nik heier ongi, heiek gaizki :
Arima ilun dut osoki.

19 Hek zaudenean aldiz eri,
Dolu minetan nintzen ari.
20 Ez nuen hartzen deus janari,
Otoitz- nigarrez Jainkoari.

21 Anai galtzean min bezala,
Hara heientzat min nuela.
22 Ama hiltzean min bezala,
Hara ilunik nindagola.

23 Orai ni ere naiz erori
Eta denek bat heiek irri.
24 Denak bat nitaz trufaz ari,
Betbetan zaizkit hek jazarri.

25 Denak inguru badabilzka,
Kitzikan eta ausikika.
26 Trufaz ni naute beren bazka :
Hau herra eta hortz-karraska !

27 Jauna, noiz arte zaude hola,
Nagon zilotik zato bila.
28 Orroen petik ken zazula
Nere bizia, nere xoila.

IV

29 EMANEN DITUT lorietan
Eskerrak zuri biltzarrean.

30 Gaitzeko jenden aintzinean,
Zer kantu eman behar dutan !

31 Zuk ez utz neri etsaiak so,
Min hautaz dena bozkario.
32 Zuk ez utz nitaz keinuz oro,
Urririk naute ni hastio.

33 Nehoiz ez dire bakez mintzo,
Onak dituzte nahas gogo.
34 Trufan dagozkit dena aho:
"Ai! Ei! bi begiz bagaude so!"

35 Behazu Jauna mintza zaite :
Jauna, noiz arte urrun zaude ?
36 Iratzar, xuti nere alde :
Nere Jainkoa, jeiki zaite.

V

37 JAR NERE ALDE, izan zuzen,
Nitaz trufan ar ez ditezen.
38 Bihotz barnean ez dioten :
"Hara ! nun dugun gaur iresten"!

39 Ahalgez beite denak bete,
Nere kaltea on baitute.
40 Ahalgez, lotsaz gorde beite,
Ni trufa-bazka bainaukate.

41 Egin bezate aldiz besta,
Alde direnek Zuri kanta :
42 "Holako Jaunik nihun ezta,
Bere gizonez baitu arta".

43 Nere mihiak du erranen :
"Jauna, zoin zaren beti zuzen!
44 Zoin gostuz ari behar naizen
Egun guzian Zu aipatzen"!

## 35

1 GAIZKIA ZAIO barnean mintzo gaixtoari;
Jainko beldurra eztu bizian aintzindari.
2 Bere burua bai garbi dauka eta xuri:
Nork ikus ote, nork higuin haren gaizki hori ?

3 Ahotik ele bezenbat gezur badario
Harek ongia eztu on eta eztu gozo.
4 Ohean ere zer gaizki egin pentsu dago;
Onik ez duen bide gaixtoa laket zaio.

5 Zerua bezein bihotz zabala Zuk, Jainkoa :
Zure egia hedoietarik harat doa.
6 Zuzentasuna Zuk mendi gaitzez goragoa;
Zuk erran hitzak: neurrigabeko itsasoa.

7 Bai gizon eta aberen lagun bazabiltza :
Zuk, Jauna, duzun amodioa bai zer gauza!
8 Gizasementzat heldu denean oren beltza,
Zure hegalen itzal azpian zer geriza !

9 Zure etxea bihotz guzien pizgarria :

Zure gozoen ur nasaietan zer loria !
10 Zure baitan da bizitzearen iturria,
Zure argian dugu ikusten guk argia.

11 Zure bihotza zureek dugun beti gaza :
Zure zuzenak garbiak oro lagun bitza.
12 Gizon harroen zangotik, otoi! ni geriza :
Ez nezatela gaixto eskuek urrun haiza.

13 Hara nun diren gaizkizaleak hor erori :
Lurrean datza, ezin berritz lot bideari.
(14)Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den lzpiritu Sainduari.

## 36

1 GAIXTOERI SO ez du balio kexa zaiten
Ez eta, otoi! gezurtzaleen bas bekaizten.
2 Hek oro dire nola belarra laster histen,
Nola pentzea egun loretzen, bihar ioaten.

3 Egon osoki Jaunari eta ongi egin
Zure lurrean zauden zu bake osorekin.
4 Jauna bekizu bai argi eta bai atsegin,
Zure bihotzak amestu hura gerta dadin.

5 Zure geroa eman Jaunaren eskuetan,
Egon Jaunari, guziak Harek derabilzkan.
6 Zure zuzena ezarriko du agerian,
Zure dretxoa eguerdi argi zabalean.

II

7 EGO N JAUNARI, etzaitela ba kexuz mintza,
Gaixtoa baita jaun handi eta dena gauza.
8 Ez kexa ere baitago beti pentsaketa
J ende xumeak errautseraino nolaz bota.

9 Etzaitela zu hasarre ala sutan eman :
Ez otoi kexa etzaiten zuhau sar gaizkitan.
10 Gaizkizaleak hilen dire bai azkenean :
Jainkozaleak izanen dire jaun lurrean.

11 Apur bat eta gizon gaixtoa nun egoki ?
Bai hor zen eta neholaz nihun ezin aurki.
12 G izon apalak izanen dire jaun lurrean,
Neurrigabeko bake nasaian gozatzean.

13 Gaixtoa dabil zer gaizki egin zuzenari :
Hortz-karraskan da zuzen denaren herraz ari.
14 Jaun zerukoak gainetik badu, hartaz irri,
Ikusten baitu haren eguna dela sarri.

15 Hedatzen dute gizon gaixtoek arranbela,
Hartzen ezpata zuzenak nahiz jo ta zila.
16 Hiltzailen hilka ezpata sari jo dabila,
Arranbel gaitzak hara kraskatzen zaizkotela.

III

17 0N IZAN ETA ontasun guti hobeago
Tzar baino eta ontasun ainitz, diru frango.
18 Tzarren besoak Jaunak baititu kraskatuko,
On eta zuzen direnak aldiz lagunduko.

19 Jainkoak ditu gizon apalak adiskide :
Heiek badute semeen seme mendez-mende.
20 Egun beltzetan hek ez dire hits ez ahalge,
Gosetez ere heiek badute zertaz ase.

21 Gizon gaixtoak guziak aldiz hilen dire;
Jainko Jaunaren etsaiak hilen berez bere.
22 Histuko dire pentzetan dauden loren pare;
Ohart-gabean kea bezala joanen dire.

23 Gaixtoa bil-bil : eztu itzultzen hak sekulan;
Zuzena berritz, urrikaldurik, eman-eman.
24 Zuzen denari zuzen zaizkonak jaun Lurrean;
Gaixto zaizkonak oro sartuko errautspean.

IV

25 GIZON URRATSA Jaun zerukoak derabila,
Hara bidean hari gogotik so zaiola.
26 trortzen bada, ezta egoiten bornez hila,
Haren eskuak Jaun Zerukoa du makila.

27 Izan naiz gazte , orai kaskoa dut xuria :
Gizon zuzena ez dut ikusi ahantzia.
28 Haren seme bat nik ez dut eske ikusia :
0n izan baita, Jaunak semeri zer ongia !

29 Gaizkitik urrunt eta zuzenki bizi zaite,
Dohatsu zauden beti ta beti urtez-urte.
30 Zuzentasuna du gain-gainetik Jaunak maite:
Ezta galduko nor baitu Jaunak adiskide.

31 0n ez direnak oro sartuko errautspean,
Gizon gaixtoak sekulakoak ezin izan.
32 Gizon zuzenak izanen dire jaun Lurrean,
Beti ta beti hartan daudezke Iorietan.

V

33 ON ZUZENAREN ahoak dio zuhur dena;
Haren mihiak erran elea zoin zuzena !
34 Jainko legea bihotz barnean dauka barna;
Haren urratsa makur biderat ezin joana.

35 Gaixtoa dago zuzenari so dena begi
Ea noiz nola beharko duen hilarazi.
36 Beharrik eztu haren eskuan Jaunak utzi;
Ezta galduko, eginik ere bertzek auzi.

37 Egon Jaunari, bai ibil Haren erranean,
Gizon gaixtoen aztaparretik libra zaitzan,
38 Hartuko zaitu eta emanen jaun lurrean,
Ikus ditzazun gaixtoak sartzen errauspean.

39 Ikusi nuen tzarra jaun handi, jaun zabala,
Nola zedroa ostotsu eta xut zagola.
40 Berritz igan naiz eta horra hor deus etzela;
Ezin atxeman ez hura eta ez itzala.

41 Onari beha eta so egon zuzenari :
Bake-gizonak zer zoriona duen sari !
42 G izon makurrak akabo dire denak sarri :
Ez duke tzarren zorion gaitzaz nihork berri.

43 Jainkoa ganik gizon zuzenek salbamendu,
Oren beltzetan Jainkoa dute ihes-leku.
44 Jaun Zerukoak laguntzen ditu, zaintzen ditu,
Hari baitauzi dena dei eta dena kantu.

## 37

1 JAUNA, EZ NI JO zure gaitzeko hasarrean :
Zure kexuan ez ni, zafraka, xahu eman.
2 Suzko eztenak sartu ditutzu nere baitan;
Zuk banaukazu hasarreturik zigor pean.

3 Zure hasarrez larrua daukat dena zauri,
Nere gaizkiez hezurrak ditut denak eri.
4 Gaizkiak zaizkit nere buruaz goiti ari,
Ezin jasan dut nere hobenen zama hori.

5 Zauriak ditut usain tzar eta ustelkeri :
Hoik zor diozkat ni lehen izan ergelari.
6 Ikurtua naiz kraskatua naiz izigarri,
Egun guzian ezin egona, pleinuz ari.

7 Errainak ditut dena min eta dena sukar,
Gorputz guzian ez dut deus onik, ez deus indar.
8 Ezindua naiz : oihuz ote dut bizi behar ?
Bihotz barnean zenbat galerna, zenbat nigar !

9 Nik nahi hura ikusten duzu beti, Jauna:
Ezin gordea Zuri ez oihu, ez auhena .
10 Bihotza pilpil, indarra dut nik arrunt joana;
Nere begien argia ere doa dena.

11 Zaurtuz geroztik, ez dut ez nihor adiskide,
Nere etxeko maiteak ere urrun daude.
12 Etsaiak aldiz ibilki zaizkit dena sare,
Egun guzian gezur-maltzurka nahiz bere.

II

13 NIK EGITEN DUT elkorrarena, ez entzuten;
Mutuen pare deusik ez dut nik ihardesten.
14 Itxuraz elkor, deneri elkor naiz egoten,
Iduri-eta ez dakitala zer nioken.

15 Zu zaitut, Jauna, Zu argi eta Zu indarra :
Nere zain heda Zuk duzun beso hoin azkarra.
16 Jaunari diot: "Urrunt etsaien trufa tzarra !
Hek nitaz irriz, ez nadila ba, otoi! !erra".

17 Nik Ierratzeko, nik erortzeko aski guti;
Ditudan minak begien pean dauzkat beti.
18 Nere gaizkiak aitortzen ditut, zain beldurti;
Hargatik dudan beldurra deusek ezin ezti.

19 0Idartzen zaizkit, zertako nihork ez baitaki:
Zenbatek naute hastio, bainan nork zuzenki ?
20 Nik dener ongi eta zenbatek neri gaizki :
Belzten naute ni, bizian bainaiz zuzen joaki.

21 Ez nezazula, Jauna, nehoiz utz : otoi! entzun.'
Nere Jainkoa, ez nere ganik egon urrun.
22 Zatozkit laster, zure indarraz etor lagun,
Uzten banauzu, salbamendua, Jainkoa, nun ?

## 38

1 ERRAN DUT ERRAN: egin behar dut neri kontu,
Ez derasatan deus bekatu.
2 Hor zabilano, nere agoa dut gakotu,
Tzarrak neri so egin baitu.
3 Ixil ixila egon naiz ilun eta mutu :
Ai! bainan minak zoin handitu !

4 Nere bihotza barnean nuen irakitan:
Pentsaketak nau sutan eman.
5 Ezin egonez, ezin jasanez dut nik erran :
“Erakuts,Jauna, norat noan.
6 Erakuts, otoi! noiz arte naizen bizi huntan,
Zoin ezdeus naizen berri dutan".

7 Hara zoin labor nere egunak, nere saila :
Hara bizi hau deus ez dela.
8 Xutik dabilan gizona deus-ez, hats ahula,
Doan gizona zer itzala !
9 Alferrik dabil hil-arte bil-bil gauza bila :
Nor ote du nor hantzen hola ?

II

10 ZER DEZAKET BA zer orai, Jauna, igurika ?
Zu zaitut argi, Zu harroka.
11 Ni bekatutik, ni zor guzitik ken indarka :
Ez utz ergelen trufa-bazka.
12 Zure eskuan dudan fedeak mutu nauka:
Zu zaitut ari, ezin uka.

13 Ni ganik urrun utz ukaldiak, utz makila :
Zuk jorik histuz bainabila.
14 Bekatua joz, noiz arte hola jo gizona ?
Harrek bezala da Zuk jana.
15 G izona deus-ez : bakar bakarrik hats ahula.
Nere deia hel dakizula.

16 Jainkoa, entzun : oihuz bainago, esku eman.
Ez utz ni beti nigarretan.
17 Gaur ba, bihar ez: arrotz naiz arrotz mundu huntan.
Aitak bezala jin eta joan.
18 Zure begiak ni ganik bazter, utz bakean
Sarri joan eta hil artean.

## 39

1 BEHA NINDAGON Jauna beha :
Eta ukurtuz entzun daut entzun intzirea.
2 Harek zilotik nau atera,
Lohi putzuen barnetik eman argitara.

3 Harri gainean nau ezarri,
Nere urratsak nausi dabiltzan guzieri.
4 Kantu berri daut ahoratu,
Jainko Jaunaren alderateko esker-kantu.

5 Ainitzek dute ikusiko
Eta, beldurrez, Jaunaren baitan sinetsiko.
6 Zinez dohatsu da gizona,
Bere guzia balin badauka Jainko Jauna.
(7) Basa-jainkoen gizonekin

Ez baitu harek gezurretarat urrats egin.

8 Zuk, Jauna, zenbat miragarri !
Zuk zenbat ongi! Ez baita nihor Zu iduri.
9 Denak aipatzen hasten banitz,
Hek ezin konda, egin baituzu ainitz ainitz.

10 Ez duzu nahi eskaintzarik;
Bainan banauzu bi beharriak zabaldurik.
11 Eskaintzak oro deus dauzkatzu.
Nik Zuri beraz Huna heldu naiz, hemen nauzu.

12 Nitaz diozu liburuan,
Ibil nadien egun guziez Zuk nahian.
13 Zure legea dut gozoa,
Zure legea dut bihotz barne barnekoa.

II

14 "ZOIN ZAREN ZUZEN diot, Jauna,
Goraki diot biltzar handian; dakizuna.
15 Ez dut nik gorde bihotzean:
Zure egia, zure laguntza ditut erran.

17 Zure grazien oihulari,
Aipatu diot zure egia biltzarrari.
12 Bihotz on ager nola lehen,
Zure graziak, zure egiak zain nezaten.

18 itsaso bat gaitz dut burrustan :
Nere bobenek itsu naukate ilunbetan.
19 baino dut gaitz geihago :
Nere bihotza indar guziak joanik dago.

III

20 ENTZUN JAINKOA, otoi! entzun :
Zatozkit, Jauna, zatozkit laster nere lagun.
21 Ahalgez beude, gorde beite
Badabiltzanak neri bizia noiz ken ote.

22 Gorri belztuak itzul beite,
Nere kalteak heieri gozo baitzaizkote.
23 Ahalgez urtuz doatzila,
Neri baitautet trufaz erraiten : "Hola, hola!"

24 Zutan pitz eta boz ditela,
Guzien gatik badabiltzanak Zure bila.
25 Diotela bai: "Gora Jauna!"
Zu baitzare Zu laguntzat nahi luketena.

26 Dohakabe naiz, ezindua,
Bainan Jainkoak ni ganat luze du eskua.
27 Zu zaitut lagun, Zu laguntza :
Zatozkit laster, ez otoi, Jauna, otoi! luza.

## 40

1 DOHATSU ZINEZ dohakabentzat ona dena
Egun beltzean bere begira hor du Jauna.
2 Emanen dio Jaunak bizia, zoriona :
Ezta izanen etsai nahirat eremana.
3 [4]Bere oinaze ogean duke Jauna lagun
Minetan eztu bakar utziko eta ilun.

4 Otoi! - diot nik - urrikal zaite nitaz, Jauna,

Senda nezazu, baitut bekatu nik egina".
5 litaz etsaiek zer nahi gaizki derasate :
"Noiz hilen da noiz, eta behingotz joanen ote?
6 Bat heldu bazait, ahotik zenbat ele zozo !
Kanporat eta bihotz beteka tzarki mintzo.

7 Zoin geiagoka dauzi etsaiak eleketa,
Nere gaitzari nork gaitz geiago nundik bota.
8 Ifernu-minak hezurreraino sartu zaizko :
Etzanik dago, ezta geiago xutituko.
9 Adiskideak nere ogia jana baitu,
Nik maite harek ostikatu nau ostikatu.

10 Bainan Zu, Jauna, urrikal nitaz, xutik ezar,
Heiek ni ganik beren saria dezaten har.
11 Ezautuko dut bai nere alde zarela Zu,
Ez badu nitaz etsaiak espant eta oihu.
12 Oso-osorik nauzu, Jainkoa, Zuk zainduko
Zuk ezarriko zure Iorian sekulako.

13 Zuri, Jainkoa, bai esker eta bai goresmen
Betieretik betierekotz. Amen ! Amen!
(14)Ospe Aitari gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduah.
(15)Lehen bezala Heieri ospe orai ere :
Hala dadila menderen mende betiere !

1 ORKATZAK UDAN iturriraino zer lehia !
Zu ganat, Jauna, nik ere dudan egarria !
2 Egarriz noa nik Jainkoa noiz ikus ote,
Noiz egon Hari noiz begitartez begitarte.

3 Nere nigarrak gau-egun ditut jan-edana;
Egun guzian aditzen baitut: "Nun duk Jauna?"
4 Jainko etxerat nola nindoan orroitzean,
Arima neri urtzen ari zait bihotzean.

5 Joanen naiz joanen Jainko Jaunaren etxeraino,
Bertzen artean dena irrintzin, laudorio.
6 Nere anima, zertako zaude auhenetan ?
Zertako ibil tirabiraka nere baitan ?

7 Egon Jaunari, zato, diogun berritz kanta,
Nere begiek nahi argia Jauna boita.
(8) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.

II

8 NITAN AUHENKA nere arima maiz baitoa:
Gogoan zaitut Zu Jainkoaren mendittoa.
9 Leizek leizeri uharren pean oihu-moihu:
Zure tirainek, uhainek naute urperatu.

10 Egunaz Jaunak bere grazia ixur beza,
Gauez-gau dudan Jaunari kantuz nik bihotza.
11 Jaunari diot : "Zertako ni utz? Indar eman;
Zertako ni utz ilun ibilki etsaipean ?".
(11)Hezur kraskale nik zenbat trufa dut entzuna:
Egun guzian aditzen baitut: "Nun duk Jauna ?"

12 Nere arima, zertako zaude auhenetan ?
Zertako ibil tirabiraka nere baitan ?

13 Egon Jaunari: Zato diogun berritz kanta:
Nere begiek nahi Argia Jauna baita.

## 42

1 JAR NERE ALDE: gaixtoak, Jauna, urrun aurtik
Libra nezazu gizon gezurti maltzurretik.
2 Zu zaitut indar, zertako ni utz gal-bidean
Zertako ni utz ilun ibilki etsai-pean ?

3 Argia eta egia igor aintzindari,
Igan nakion egoitza duzun mendiari.

4 Jainko Jaunaren aldareari noakio,
Hartan baitut nik gazte-su eta bozkario.

5 Zu aipatzerat bai soinuz eta kantuz noa :
Nere Nausia, nere Guzia Zu, Jainkoa.

6 Nere arima, zertako zaude auhenetan?
Zertako ibil tirabiraka nere baitan ?

7 Egon Jaunari : zato diogun berritz kanta
Nere begiek nahi argia Jauna baita

## 43

1 GUK BEHARRIEZ ditugu, Jauna, maiz aditu
Aitak egiten Zutaz goresmen, Zutaz kantu.
2 Heien denboran obra handiak Zuk obratu:
3 Aspaldi hartan Zure eskuak zaindu ditu.

3 Zuk ainitz jende igorriz dire nausi jarri;
Zuk herriak joz dire zabaldu herriz-herri.
3 (Deus ez dute zor beren ezpata zorrotz horri:
Ez dute izan beren besoa salbagarri).
4 Zure besoak ditu bakarrik jaun ezarri,
Zure begien argia baitzen alde ari.

5 Zu Zaitut Jauna bai Zu Errege bai Zu Jainko :
Guk Zutaz dugu garraitu eta garraituko.
6 Gu etsaiari Zutaz nausitu baigitzaizko,
Zutaz ginauzkan oldartzaileak zangopeko.

7 Hortan eskuak, ez arranbelak onik eztu :
Ez nau sekulan nere ezpatak ni salbatu ...
8 (Zuk gaitutzu etsaietarik gu salbatu,
Zu agertzean ahalge minak jo baititu.)
9 Gure bihotza Jainkoa baitan zoin den piztu:
Beti ginion kantu egiten eta kantu.

II

10 ORAI ZUK, JAUNA, utzi gaitutzu, hitsarazi:
Zuk ez egiten armaden lagun orai jauzi.
11 Zuk etsaieri gaitutzu-eta ihes utzi,
Gure gauzeri hek aztaparka badoatzi.

12 Haragitako ardien pare saldu-eta,
Gu munduz-mundu gaitutzu, Jauna, denak bota
13 Zure jendea erosleri deus ez da gosta,
Zure eskuan hortik deus guti sartu baita.

14 Egin gaitutzu auzo-herrien laidogarri :
Ingurukoek gutaz erdeinu, gutaz irri.
15 Egin gaitutzu mundu guzian trufagarri :
Gutaz jendeek buruz keinuka so elgarri.

16 Egun guzian aintzinean dut ahalgea:
Begitartea ahalge gorriz dut betea.
17 Etsai-orroez eta burroez naiz asea:
Zoin dorpe zaitan etsai-herraren jasaitea.

III

18 GUK ZER JASANAK! Ez zintugun ba guk ahantzi
Ez eta zure batasun hura nehoiz utzi.
19 Ez zitzaikun ba bihotza gaizkiz berritz hazi;
Ez ginen ere zure bidetik bazter bizi.
20 (Nigar zelaian gaitutzunean gu errautsi
Eta herio ilunbeetan sar-arazi.)

21 Jainko izena baginu noizbeit arnegatu,
Bertze baterat eskuak luze baginitu,
22 Ez ahalko zen Jainkoa bera konturatu ?
Hak barneraino bihotz guzien berri baitu.
(23)Zu gatik gaitu etsaiak nahi gu xehatu,
Haragitako ardi bezala hartzen gaitu.

24 Xuti ba xuti : zertako, Jauna, Iotan zaude ?
Iratzar otoi! ez utz betikotz gu debalde.
25 Begitartea zertako guri hola gorde ?
Guk bertzen ganik jasaneri hotz ote zaude ?

26 Gure arima errautsez-errauts badabila;
Lurrez-lur dugu herrestan ari guk sabela.
27 Xuti ba xuti : har eta lagun gaitzazula,
Zure bihotza hoin baitan ona, hoin zabala !

## 44

1 BIHOTZA KANTUZ baitzait ari,
Errege, zuri kantu hori.
2 Mihia dut gaur pertsulari,
Luma iduri zalu ari.

3 Zu gizonetan ederrena,
Dena grazia zuk ezpaina.
4 Betikotz dautzu ixuria
Jaunak ongien iturria.

5 Gerlari gaitza, jauntz ezpata,
Zure ospea hura baita.
6 Zure zaldirat jauzi-eta
Zuzentasuna zain ta susta.

7 Zure eskuinak herriz-herri
Zu egin zaitu aipagarri.
8 Suzko eztenak zuk igorri :
Denak zaizkitzu peko jarri.

9 Oi, Zu,Jainkoa, Jaun bazaude
Zure alkian mendez-mende.
10 Zuk erresuman oro zure,
Indarrak oro zuzen alde.

11 Zuzena zaitzu maitagarri,
Eta gaizkia higuingarri.

12 Hortako Jaunak du ixuri
Olio saindu xoilki zuri.

13 Olio eta bozkario
Dena bazaude usain gozo.
14 Jauretxeari badario
Zuretzat soinu, laudorio.

15 Erreg-alaben zer andana
Zu ganat kantuz heldu dena !
16 Ondoan duzu erregina,
Soinean urre garbiena.

II

17 ENTZUN, ALABA, eta beha,
Entzun gogotik errailea.
18 Ahantz zurea zen jendea,
Ahantz aitaren etxaldea.

19 Eta orduan Erregek so
Zure ederra du nahiko.
20 Zure jauna da sekulako :
Ahuspez eror belauniko

21 Jende guziak heldu dire,
Gauzak eskainiz eta urre.
22 Herriko Jaunak heldu ere,
Zure begiak nahiz bere.

23 Guziz ederra erregina :
Zoin dena urre dabilana.
24 Sartzen da sartzen Jauna gana,
Birjinak lagun zoin apaina.

25 Sartzen da hura sartzen oro
Bai kantu, jauzi, bozkario !
26 Jauretxeraino sartzen oro,
Bieri soinu jo eta jo.

27 Zuri lehengo aiten orden
Seme sortuko eta seme,
28 Eman ditutzu zuk jaun eman,
Lurrez-lur mundu zabalean.

29 Hau kantatzean orroit beite,
Zure izenaz mendez-mende.
30 Zure jendeek laudorio,
Mundu mendeek dirauteno.

## 45

1 JAINKOA DUGU bai ihes leku, bai indarra,
Oren beltzetan esku emaile zoin azkarra.
2 Guk beldurrik ez mugi baladi, mugi lurra.
Eta mendiak itsasperaino tanpez lerra.

3 Guk beldurrik ez, jauz baladi jauz itsasoa,
Mendiak urra, bai eta kraska lur osoa.
4 Gurekin dugu zeruetako Jaun Goikoa
Menderen mende beti gure zain du besoa.

5 Ur-handi batek bere ibaiez pizten dio
Jaun Zerukoa den hiriari bozkario.
6 Hartan da Jauna: deusek ezin du lurrerat jo;

Argi zirrintan Jainkoa lagun dagokio.

7 Arrotz herriek zer zalaparta, zer orroa
Jainkoak oihu eta mundua urtuz doa.
8 Gurekin dugu zeruetako Jaun Goikoa
Menderen mende beti gure zain du besoa.

9 Zatozte, beha Jaunak zer !ana, zer ahala :
Gaitzeko gauzak munduan egin dituela.
10 Bazterrez bazter mundu guzitik joan du gerla,
Hautsiz ezpata eta kraskatuz arranbela.

11 Geldi hor, aitor Jainko naizela ni Jainkoa,
Jenderi eta lur guziari goragoa.
12 Gurekin dugu zeruetako Jaun Goikoa,
Menderen mende beti gure zain du besoa.

## 46

1 EGIN, HERRIEK, esku-zarta
Jaunari denek airos kanta.
2 Errege gaitza Jauna baita,
Hartaz bertzerik jaunik ezta.

3 Herriak dauzka gure peko,
Arrotz jenderi jaun gitzaizko.
4 Jakobi lurra eman dio,
Baitu harentzat amodio.

5 Jainkoa doa zeru-zeru :
Jaunari denek adar-soinu.
6 Egin Jaunari soinu-kantu
Mundu zabala bere baitu.

7 Errege baita munduz-mundu,
Hari guziek soinu-kantu.

8 Herriak oro Zeruetan du
bere ditu, alki saindu.

9 Herriak dire josten ari
Abrahamtarren jendeari.
10 Lurrak du Jauna Jaun ezarri :
Gora da gora herriz-herri.

## 47

1 HANDIA JAUNA, aipagarria herriz-herri:
Hiri sainduan zaiku jarri.
2 Jaunaren mendi, mendi saindua goresgarri :
Munduarentzat boz-iturri.

3 Zion mendia, munduaren gain ta bihotza,
Jaunen Jaunaren hiri gaitza.
4 Dagon gain hortan Jainkoa bera zer arkaitza,
Nehork ezin jo zer geriza !

5 Lurreko jaunak elgarri ziren denak josi,
Denak oldarka betan hasi.
6 Ikus orduko hek laztu ziren, hek nahasi
Eta daldaraz joan ihesi.

7 Sartu zaiote hor ikara bat ezin joana,
Iduri eta erdi-mina.
8 Itsas-uretan horren iduri zer galerna,

Zer itsas-untzi krask-orena.

9 Entzun bezala ikusi dugu bai guk ere :
Jaunak hiria beti bere.
10 Jaun Zerukoak hiri saindua beti bere,
Jaunak xut dauka betiere.

II

11 OTOIZTEN DUGU zure betiko bihotz ona
Zure tenploan, Jainko Jauna.
12 Zure izena bezala, Jauna, Zuk omena :
Zoin munduz-mundu dabilana.

13 Zuzentasunez duzu betea Zuk eskuina :
Pitz dadila , pitz, Zion gaina.
14 Fededun jendek zaitzatela Zu aipa, Jauna :
Hoin ona zare, hoin zuzena !

15 Ibil Zion-en, ibil lurrez-lur, atez-ate,
Zenbat dorre den jakin arte.
16 Murrueri so, jauretxeri so egon zaizte :
Zuen bihotza hetaz bete.

17 Jaunaz duzuen erran geroko jendeari :
Hau egin du hau eta hori.
18 Menderen mende Jauna gurekin zaiku ari :
Guk Hura dugu Aintzindari.

**48**

1 ENTZUN, BAI JENDE bai herriek,
Lur guzikoek, bi beharriak egun idek.
2 Bai jende xehe, bai handiek,
Aberats eta dohakabeek bai guziek.

3 Ezpainetan dut zuhurtzia,
Bihotz barnetik jauzi nahia zer argia.
4 Zerurat daukat beharria :
Soinu-kantuz dut gaur zabalduko nik egia.

5 Egun beltzetan ni ez beldur,
Loturik ere jendeak, nola mila zakur;
6 Hek beren gauzez daude segur,
Beren gaitzeko ontasunentzat nahiz agur.

7 Ezin gizonik salba bera :
Ezin Jaunari eman hortako zor den hura.
8 Ezin da nihor hel hortara :
Nihor ez bizi behin betiko buruz gora.

9 Nun daude hilen ez direnak ?
Hilen dire bai munduko jaunik handienak.
10 Zoroak ere hilen denak,
Bertzeri utziz bildu dituzten ontasunak.

11 Hobi-ziloak dituzkete
Betiereko beren aterbe, beren etxe.
12 Hor guziak hor mendez-mende,
Izanik ere bai izen handi bai etxalde.

13 Gizon guziak beti gizon:
Ontasunetan ezin gizona luzaz egon.
14 Ontasunetan ezin egon :
Gizenduz geroz, aberen pare, hiltzeko on.

II

15 JAUN ZAUDEN ETA gorputz dire,
Zituzten gauzak zauzkatelarik arrunt bere.
16 Ardien pare joanak dire
Herioa jaun eta zuzenak nausi ere.

17 Heien ederra laster itzal ;
Etxetzat dute ifernua hor aho zabal.
18 Heiekin betan ez nadin gal,
Hartuko nau ni eta emanen Jaunak hegal.

19 Norbeit jaundurik ez durduza
Bere etxean beti geihago baitu gauza.
20 Hil-eta deusez ezin goza :
Berekin ote nork ontasunak deramatza ?

21 Bizi zelarik berak zion :
"Gauza bildu diat : izan nuk segur zinez gizon".
22 Hara nun hatsa joanen zaion,
Beharko baitu behin betiko hilik egon.

23 Gizon guziak beti gizon :
Ontasunetan ezin gizona luzaz egon.
24 Ontasunetan ezin egon:
Gizenduz geroz aberen pare hiltzeko on.

## 49

1 MINTZO DA JAUNA: munduari dei egin dio,
Bazter batetik bertzeraino.
2 Zion menditik edertasuna badario
Heldu da Jauna eta mintzo.

3 Heldu da heldu, iresle su bat aintzinean,
Galerna gaitza inguruan.
**4** Zeruak, Iurrak ditu gaur deitzen ikus dezan
Bere jendea zuzen doan.

5 "Bil nereak bil: odolaz dute hitzemana
Nerekilako batasuna".
6 Jauna, zeruek badirauteno zoin zuzena !
Hura da denen jaunen Jauna.

7 Entzun gaur entzun, nere jendea, nik errana :
Ai ! zoin makurka zabiltzana.
8 Izrael, zutaz erranen dut gaur dakitana,
Ni naiz Jainkoa, zure Jauna.

9 Ez nabil egun zuk eskainiez hasarrean :
Guziak dauzkat aintzinean.
10 Ez nauzu heldu zezenak hartu beharrean
Edo akerrak artaldean.

11 Nereak dire oihanetako ihiziak,
Mendietako zer guziak.
12 Ezautzen ditut zeruetako hegaztinak
Eta lurrean dabiltzanak.

13Gosetzen banaiz zertako dut zuk eskainia ?
Nerea dut nik lur guzia.
14 Ote duket ba Nik zezenkitik jan nahia,
Aker odolen egarria ?

15 Jainko Jaunari eskerrak eman kantuz ari
zor hura eskain Jainkoari.
16 Egun beltzetan Ni ganat egon oihulari :
Nik lagundu-ta, kanta neri.

II

17 TZARRARI JAUNAK: "Zertako zaude nitaz mintzo,
Legeaz dena laudorio.
18 Manamenduak ditutzu-eta zuk hastio,
Nik erranari zuk adio.

19 Oihanarekin ikus orduko, laster zoazi,
Makurtuekin zare bizi.
20 Zure ahoa duzu gaizkirat lerrarazi,
Mihia gaizkiz duzu hazi.

21 Zure anaia belztu nahian zare jarri,
Amaren haurren zu galgarri
Behar ote dut jasan hori ?
Ote nauzu Ni zu iduri ?

23 Kasu zueri, Jauna ez ahantz soberaxko,
Hasarrearen ez pizteko .
24 Esker-emailen eskaintzak nik on osperako ,
Zuzen doana salbatuko.

## 50

1 URRIKAL ZAITE nitaz, Jauna,
Hoin duzu eta neurrigabeko bihotz ona.
2 Ken bekatua, ken laidoa,
Hoin duzu nasai urrikalpenen itsasoa.

3 Nere hobena ken errotik,
Garbi nezazu garbi osoki bekakutik.
4 Nere gaizkien berri dakit,
Hobenak oro beti begitan badagozkit .

5 Zuri dut Zuri egin kalte,
Gaizki zaitzuna zure begitan dut nik bete.
6 Hargatik Zare beti zuzen,
Ni nauzularik garrazki ere gaztigatzen.

7 Gaixto sortu naiz mundu huntan :
Bai, nere amak sortu izan nau bekatutan.
8 Gezur-gabea duzu laket;
Zu erakasle, zuhur-bideak badakizket.

9 Grazia ixur bihotzari ,
Garbiz nadien elur xuria bezein xuri.
10 Bozkario pitz, eman bizi,
Zuk kraskarazi hezurrek duten egin jauzi.

11 Nere gaizkitik bazter soa,
Behin betikotz ken bekatua, ken laidoa.
12 Ospe Aitari, Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.

II

12 BIHOTZ GARBIA ezar nitan,
Eta funtsezko xede azkarrak har ditzadan.
13 Zure begitik ez ni haiza,

Ez, Izpiritu Saindua kenduz, huts bihotza.

14 Pitz berritz nitan zure boza ;
Zerurateko gogo zabalak bete neza.
15 Gaixtoak ditut argituko,
Bekatoreak Zu ganat dire itzuliko.

16 Ni odoletik libra, Jauna,
Gora dioten zoin Zaren ona, zoin zuzena.
17 Jauna, ezpainak zabal neri,
Nere agoak goraipa zaitzan herriz-herri.

18 "Eskaintzak oro deus dauzkatzu :
Guziak oro eman banitza hotz zaude Zu.
19 Har beraz nere urrikia :
Har, otoi! Jauna, bihotz apaldu errautsia.

20 Guretzat berritz ona izan,
Jerusalemek bere murruak altxa ditzan.
21 On dituzketzu bai, orduan,
Esker-onezko gure eskaintzak aldarean.

## 51

1 ZERTAKO IZAN zure gaizkiez zuk espantu
Hoin harro eta bihotz hantu ?
2 Bazaude beti noiz egin kalte noiz bekatu :
Zure mihiak xixtatzen du.

3 Zuk maite duzu gaizkia; bainan ez ongia,
Gezurra, bainan ez egia.
4 Zuk maite duzu solas tzar eta galgarria,
Ai! zu mihi tzar gezurtia.

5 Hortako zaitu Jaun Zerukoak lehertuko,
Ezeztatuko sekulako.
6 Zuk etxeari egin beharko bortxaz uko,
Lurra nahi-t-ez utz beharko.

7 Gizon zuzenek horri behatuz ikaretan,
Hasiko dire hartaz trufan :
8 Huna bai huna gizon gaitz hura ez baitzaukan,
Bere indarra Jauna baitan .
9 Bere ontasun gaitzetan azkar bazabilan,
Bere gaizkiez espantutan.

10 Ni aldiz nago olib-ondoen iduriko,
Jainko-etxean dena osto.
11 Ni Jainkoaren bihotz onari arrunt nago
Bai orai eta bai betiko.

12 Eskerrak Zuri bai orai eta sekulako.
Zuk baititutzu gaixtoak jo.
13 Zure izena goretsiko dut lorietan,
Zure sainduen aintzinean.

## 52

1 BURU GABEEK derasatenez "Jainkorik ez"
Usteldu dire beren gaizkiez : gizonik ez.
2 Gizonetarat Jauna zerutik so dabila,
Baden zentzurik, baden doanik Jainko bila .

3 Gizonak dire denak makurtu, denak tzartu :
Ezta munduan nihun gizonik, nihun onik.
4 Noiz arte tzar hoik hola dabilzka Zuri uka ?
Hoikien herrak noiz arte gauzka bere bazka?

5 Berek ez jakin zuzen zertako, hek laztuko .
Tzarren hezurrak Jaunak botako; Jauna Jainko.
6 Zion menditik Jauna noiz heldu behar zaiku,
Emanez guri bai salbamendu eta esku.

7 Bere jendea Jaunak bakean ezartzean,
Bai zer loria denek orduan bihotzean !
8 Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den lzpiritu Sainduari .

## 53

1 NERE JAINKOA zure izenaz eman indar,
Zure argiaz beirale jar.
2 Otoi Jainkoa, nere otoitza gogotik har :
Deiak ditela Zu baitan sar.

3 Buru-harroak oldartu zaizkit tzarki neri,
Bizia kendu nahiz ari.
4 Heien begiak ez daude beha Jainkoari :
Herra daukate jan edari.

5 Huna Jainkoa lagun heldu zait neri beha;
Zer biziaren zaintzalea !
6 Etsaietarat igor neretzat zen kaltea ;
Zure egiaz denak xeha.

7 Eginen ditut kantuz eskaintzak Zuri, Jauna:
Zure izena baita ona .
8 Oren beltzetik kendurik nauzu xut emana;
Aldiz etsaiek zer ezina !

## 54

1 ENTZUN JAINKOA, nere deia ,
Oihuz dagona ez arbuia .
2 Ni entzun eta otoi ! mintza,
Dudan min hori hain da gaitza.

3 Etsai orroak aditzean ,
Nago ikare daldaretan.
4 Ibilki zaizkit gal nahian,
Beltzten naute ni errabian .

5 Nitan bihotza dut zanpaka :
Hil izerdiak dariozka .
6 Beldur ikarak tinki nauka :
Zer lazturak nik inguruka .

7 Uso hegalak ai ! banitu,
Banakike nik norat aira .
8 Hegalez-hegal, mortuz-mortu ,
Banakike bai nik nun bara.

9 Banuke sarri han xokoa
Aize galernen kontrakoa
10 Horraino-eta ezin doa
Mihi thu tzarren itsasoa .

II

11 TZARREN INDARRA da ezagun,
Hirian ari herra lagun .
12 Inguru dabil gau et-egun
Ea zer nahas noiz eta nun.

13 Hirian dabil bekatua,
Hortan herra da nausitua .
14 Plazatik ezin urrundua
Gezur laidoen ifernua.

15 Etsaiak laido balaut egin,
Jasanen nuen bihotz arin.
16 Norbeit balitzait jazarka jin,
Gordeko nintzen lagunekin .

17 Bainan zu neri jazartzea,
Zu adiskide, zu maitea
18 Biek ginuen bat etxea,
Jainkoa baitan zer bakea !

III

19 HIL DITELA BAI hil betbetan
Eta bizirik sar lurpean .
20 Gaizkia baita heien baitan,
Heien muñ eta hezurretan .

21 Ni aldiz zoin maiz deika noan
Jaunari deika salba nezan .
22 Arrats, goiz eta eguerditan
Zerurat nago auhenetan .

23 Bai aditzen du nere boza,
Bakeratzen daut Hak bihotza
24 Neri oldarka baitabiltza ,
Zer oldartzalen oste gaitza !

25 Bai aditzen nau, jotzen ditu,
Lurrak betitik Jainko baitu.
Hoitan halere nor aldatu ?
Jainko beldurrik nihork eztu

21 Hoitan bakotxa badabila
Lagunak nun sal edo sala .
22 Ahotik ezti dariola ,
Bihotz barnean dauka gerla.

(29) Dena hitz gozo badabila
Ea ezpata nun sar nola .

30 Utz Jaunaren gain zure zama :
Haziko dautzu Hak arima .
31 Jaunak utz zaitzan ezin asma :
Gizon zuzena baderama .

32 Bertzeak aldiz Zuk, Jauna, jo
Behin betiko leizeraino .
33 Odol gizonak hiles oro,
Adin erdirat ez helduko

34 Ni aldiz beti nago dena
Bihotz erditik Zuri, Jauna .
35 Ospe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari .

1 URRIKAL, JAUNA, neri oldarka dut gizona :
Neri gerla du bere lana.
2 Etsaien ganik zenbat oldar dut nik jasana !
Neri jazarka zer andana !

(3) Beldurra nitan sartu orduko, Jainko Jauna,
Zuri nago ni, Zuri dena.
4 Jaunari nago : beldurra dut bai arrunt joana :
Zure aldean deus gizona.

5 Egun guzian ondotik ditut noiz ni jorra,
Beti gogoan xede tzarra.
6 Beha dagozkit jada luzatuz aztaparra,
Ea bidean ni noiz lerra.

7 Beren gaizkiak merezi hura heier eman:
Jauna, denak jo, hasarrean !
badakizu herritik urrun nun nabilan :
Nere nigarrak Zuk eskuan.
(9) Joan zaizkitala nere etsaiak ihesi joan,
Nik Zuri oihu egitean.

10 Hau dakit ongi: bai nere alde dut nik Jauna;
Berak daut-eta hitzemana.
11 Jaunari nago: beldurra dut bai arrunt joana:
Zure aldean deus gizona.

12 Nahi dauzkitzut, nik zor eskaintzen egitean,
Eskerrak Zuri, Jauna, eman.
13 Salbatu nauzu, Jainkoari so beti noan,
Bizien argi zabalean.

## 56

2. ZURE HEGALAK ditut itzal,
Badabilano zorigaitza.
3 Zerurat nago oihuz daldal
Jauna dut eta nik laguntza.
4 Lagun nezala ez nadin gal,
Etsaiak urrun igor bitza.

5 lxur ditzala eta zabal
Bere grazia, bere hitza.
6 Nitaz lehoinak nahiz bazkal
Gizonki gosez badabiltza.
7 Heien hortz Iuzek zenbat ahal !
Heien mihia zoin zorrotza !

8 Ager zerutik, Jaun Goikoa,
Zure ospea pitz lurrari.
9 Ezarri zuten hil zepoa,
Arima nuen histen ari.
10 Egin zautaten gal ziloa ,
Hek berak dire han erori.

11 Dena Zuri dut, Jainko Jauna ;
Nere bihotza dena Zuri.
12 Zuri nago ni Zuri dena,
Bai kantuz eta soinuz ari.

13 Pitz, arima, pitz xirulari :
Kanta zak argi hasteari.

14 Zuri goreska dener noa,
Zuri soinu joz herriz-herri.
15 Zeruetarik goragoa,
Zure bihotza ezin neurri.
16 Hedoietarik goragoa,
Zure egia goresgarri.
17 Ager zerutik Jaun Goikoa :
Zure ospea pitz lurrari.

## 57

1 IZAN ZAREZTE zuzenaren zain ezarriak,
Zuzenki ari ote zarezte, jaun handiak ?
2 Aitzitik zuek bihotz barnean zer gaizkiak !
Zuen eskuak zenbat makurren ixurgiak !
3 Izan zarezte zuzenaren zain ezarriak,
Zuzenki ari ote zarezte, jaun handiak ?

4 Gizon makurrak sortuz geroztik dire makur,
Ama sabelaz geroztik dire dena gezur.
5 Sugeen pare badabiltza noiz pozoin ixur,
Edozoineri osoki elkor eta mutur.
6 Oneratzailen zerbeit hitz sarkor eta zuhur,
Lilluratzailen zerbeit lillura entzun beldur.

7 Heien ahoan hortzak, Jainkoa, hauts zafraka,
Lehoin letainak heien baitan motz eta kraska.
8 Ura bezala hek doatzila burrustaka,
Belarren pare jendek bitzate sistuz oinka.
9 Ibil ditela nola barea herrestaka,
Nola sorgaia sorik oraino ez baitauka.

10 Heien laparrak arrunt nausitu aintzinean,
Hasarrearen galernak bitza hoik ereman.
11 Piztuko da bai gizon zuzena lorietan
Oinak garbituz gizon makurren odolean.
12 Orduan denek: "Bai zuzenak du fruitu eman;
Bada Jainko bat Jaunen Jaun dena mundu huntan"

## 58

1 BEIRA NI, JAUNA, nere etsaien eskupetik :
Oldarren gatik atxik xutik.
2 Beira ni, otoi! gaizki egilen tzar multzotik:
Odol gizonak urrun aurtik.

3 Badabilzkit hor nere bizia nolaz bere,
Indar gaitzean dena sare.
Hoben, gaizkirik nahiz ez dutan nik batere,
Neri jazarka jauzten dire.

5 Jeiki, zatozkit eta begiak otoi! zabal ;
Nola Zuk , Jauna, nork du ahal ?
6 Jeiki ba jeiki : fedegabeko jende hoik gal,
Gaizkile hoitaz ez urrikal.

7 Gauerakoan, zakurren pare badabilzka,
Hiri karrikan marrumaka.
(8) Gosez doatzi noiz nun hezurrik hortzez kraska,
Ase artean marrumaka.

9 Aho beteka egiten dute trufa, irri :
"Nork ote daki gure berri ?"
10 Fedegabe hoik dauzkatzu, Jauna, irringarri.
Zu zaitut indar, Zu nik harri.

II

11 NIK ZU GERIZA: Jauna Zu zaitut amodio :
Hel neri dudan bozkario.
12 Etsaiak xeha eta besoaz lurrerat jo :
Gure indarra Zutan dago.

13 Heien ahoan bekatu solas baizik ezta :
Beren saretan hek Zuk bota.
14 Jo zkitzu denak hasarrean jo, bai ezezta,
Gure Jainkoa Jainko baita;

15 Gauerakoan, zakurren pare badabilzka,
Hiri karrikan marrumaka.
16 Gosez doatzi noiz nun hezurik hortzez kraska,
Ase artean marrumaka.

17 Aipatuko dut kantuz nik zure indar gaitza :
Ai! Zuk neretzat zer bihotza I
18 Izan zaitut nik etsai artean Zu geriza,
Oren beltzetan Zu laguntza.

19 Zu zaitut indar, Zu gau beltzean bozkario,
Zor dautzut, segur, laudorio.
20 Nik Zu geriza : gaitzari nausi noakio;
Jauna, Zu zaitut amodio.

## 59

1 UTZI GAITUTZU, bai utzi, Jauna, kraskarazi.
Ez egon kexuz, izan guretzat zinen Hura.
2 Mundua duzu Zuk inarrosi, kexuz hautsi,
Ber-egin zazu: beha munduak zer daldara...

3 Zure jendea duzu gaitz-pean Zuk errautsi:
Zorigaitz-arnoz, ez beti, Jauna, gu bur-xora.
4 Noiz behar duzu dei bat zeruan altxarazi,
Jainkozaleak gerizan diten batetara ?

5 Zure maiteak beldurrik gabe diten bizi,
Gu entzun eta zure eskuaz gu begira.
6 Tenplotik Jaunak: "Heldu naiz heldu; Kantu! Jauzi!
Hartuko dut nik bai Zikhem eta Zukoth lurra.

7 Galaad eta Manaze lurrak nere dauzi :
Juda dut alki eta Efraim dut indarra.
8 Nere zangoen garbitzeko dut Moab untzi :
Nausi joanen naiz Filist-herrira, Edomera".

9 Ni nork joanen nau gaitzeko etsai- hiriraino,
Ni nork joanen nau Edom herrian nausi nadin?

10 Bai Zuk, Jauna, Zuk: ai! ez gu otoi! utz oraino:
Ez ote zare jauziko berritz armadekin ?

11 Etsaien kontra guri, Jainkoa, eman indar.
Gizon laguntza egun ba eta deus ez bihar.
12 Jainkoa lagun, aise gaitezke bertzer jazar:
Harek ditu bai gure etsaiak eho behar.

## 60

1 ENTZUN, JAINKOA, nere oihua: har otoitza.
Bai entzun eta otoi ! mintza.
2 Urrun urrundik deika nagozu: ai! ez luza.
Nahasten ari zait bihotza.

3 Har otoi! eta zure harrokan xutik ezar,
Bake dutan nik eta indar.
4 Zu zaitut, Jauna, geriza eta murru azkar :
Ni ganat ezin etsaia sar.

5 Agian beti! bizi nadila zure baitan,
Zure hegalen itzalpean.
6 Beti dautazu galdegin hura neri eman,
Jainkozaleen erresuman.

7 Erregeri Zuk urte emozu eta urte,
Semen semeak ikus arte.
8 Jainkoa lagun errege bego mendez-mende,
Zure grazia beti alde.

9 Eginen dautzut orduan kantu beti, Jauna,
Zuri bihurtuz hitzemana.
(10) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 61

**1** NERE ARIMAK Jainkoa baitan du indarra:
Hura zait neri hel beharra.
2 Hura dut Hura Harroka eta Jaun bakarra :
Zaintzen naueno ezin lerra.

3 Noiz arte zuek oldar salbaiki gizonari,
Neri beti jo denak ari,
4 Higitzen hasi harresiari jo iduri,
Lurreratzer den murruari ?

5 Naizen goratik nahi naute ni jo lurrera :
Heien gozoa bai gezurra.
6 Heiek esker on aho-beteka eta gora,
Bihotz barnean ele tzarra.

7 Nere arima, Jainkoa baitan duk indarra:
Hura zait neri hel beharra.
8 Hura dut Hura harroka eta Jaun bakarra:
Zaintzen naueno ezin lerra.

9 Jainko Jaunaren eskuetan dut nik geroa:
Hura iguzki, bozik noa .
10 Hura nerezat harroka indar gaitzekoa :

Nere geriza bai Jainkoa .

II

11 JAINKOAREN GAIN zuek guziek utz geroa :
Hura betiko betikoa .
12 Hari bihotza gaur ixur nolta olioa :
Gure geriza bai Jainkoa .

13 Gizasemeak zer dire ba zer ? Doan hatsa
Lurreko Jaunak ? Gezur hutsa...
14 Denak batean aztatzekotan denak altxa ,
Zoin pisuago ? Aize-hatsa.

15 Ez indarrean sineste izan ala goza ,
Ez, bildu gauzez beti mintza .
16 Ontasun eta diruz hanpatuz bazabiltza,
Ez diruari jos bihotza .

17 Jaunak hau dio eta bietan entzun zaio :
"Jainkoak indar, amodio.
18 "Bai bakotxari Jainkoak eman behar dio
Lanak merezi ondorio"

## 62

1 Nere Jainkoa, goizetik noa zure bila :
Zutaz egarri banabila.
2 Lur agortua uriz egarri den bezala ,
Ni zure minak nerabila .

3 Zauden etxean Zu, Jauna, ikus zaitzadala,
Indarrez, ospez hoin zabala.

4 Bizia baino zure grazia gozoago ;
Zuri gogotik kantuz nago .
5 Jaun izenari nere bizian laudorio :
Eskuak luze nagokio
6 Nere arimak Jauna du Jauna gozoz-gozo :
Nere ezpainek bozkario .

7 Ohe gainean, Jainkoa, Zutaz orroitzean,
Gauez-gau nago Zu gogoan .

8 Izan zare Zu nere laguntza gal-bidean :
Gostuz nagozu hegalpean .
9 Nere arima badago tinki Zu ondoan,
Atxik beti ni Zuk eskuan .

10 Ni galdu nahiz nere ondotik baitabiltza,
Lurpeak laster irets bitza .
11 Ezpatarentzat hek zer asea ! hek zer gauza!
Bas-aberentzat zer otruntza !
12 Jaunaren baitan Erregek eta guk zer boza!
Gezurtzaleak ezin mintza .

## 63

1 ENTZUN JAINKOA, nere oihua, nere deia;
Noiz izanen naiz Zuk etsaietik ateraia ?
2 Gizon makurren biltzar gaixtoa Zuk barreia :
Igor zafraka etsaien oste hain salbaia.

3 Zorrozten duten beren mihia : zer ezpata !
Suzko eztenen pareko dute mintzo-sista.
4 Badaude nola hobengabea jo ta bota ;
lxilka jo ta deusen beldurrik hoitan ezta .

5 Hek ari dire elgar berotzen gaizkirako ;
Hek zuzenari zepo emaiten ari zaizko .
6 Erraiten dute : "Nork ote gaitu ikusiko ?
Azpiz egina nork ote dauku zilatuko ?"

7 Zilatuko du : Jaunak bihotzen berri daki .
Suzko eztenez jo ditu eta tanpez unki .
8 Beren mihiak ditu galduak hain garrazki :
Denak zaizkote buruz keinuka so egoki .

9 Jaunaren beldur, denek orduan laudorio :
Egin lanentzat eskerrak segur zor zaizkio .
10 Jaunari bozik gizon zuzena joanen zaio :
Bihotz garbiek Jaunaren baitan bozkario .

## 64

1 ZURI, JAINKOA, esker kantu,
Dei entzuleak hartze baitu .
2 Zion gainean Zuri kantu,
Zuri eskaintzak, Zuri botu .

3 Gizon bakotxak beharko du
Goiz edo berant Zu ganatu.
(3')Zure alderat nork nun estu
Bai nasaiki zor, bai bekatu ?
4 Hobenen zamak hausten gaitu:
Noiz behar duzu noiz barkatu ?

5 Bai dohatsua Zuk hartua ,
Zauden etxean da sartua .
6 Guziek dugun noizbeit goza
Jaunaz betea den egoitza.

7 Guretzat zenbat mirakuilu
Zure bihotzak egiten du .
8 Zuri bagaude munduz-mundu,
Leihor guziek Zuri oihu .

9 Mendi buruak zoin gorarik !
Zure indarrak dauzka xutik .
10 Itsas-marrumak Zuk ixilik ;
Urak, jendeak Zuk geldirik .

11 Mundua dago ikaretan,
Zure indarrak ikustean .
12 Kantuz ere bai lorietan,
Bai argi sortze, bai sartzetan .

13 ZU, JAUNA, JAUSTEN baitzitzaio
Lurrak ur, bizi, bozkario .
14 Jaunak emanik zer ibaia :
Lurren ontzeko ur nasaia .

15 Zuhauk ditutzu Iurrak ontzen
Eta hildoak ihinztatzen.
16 Lur idorrari Zuhauk uri
Eta sort-indar haziari .

17 Zure aurtengo urteari
Eman diozu on-iturri .
18 Nun baitzare Zu ibilia ,
Bada nasaiki hor bizia .

19 Mortuko Iurrek iturburu,
Mendiek lore, gainek soinu.
20 Zelaiek ogi, gainek ardi,
Denek irrintzin, kantu, jauzi

## 65

1 KANTA JAUNARI, lur guzia,
Kanta Jaunaren izenari .
2 Bihur Jaunari zor Ioria :
Zoin zaren, Jauna, miresgarri !

3 Zu bezein azkar Zuk eginak :
Etsaiek bortxaz agur Zuri .
4 Lurrean daude kantuz denak ,
Hain zare, Jauna, goresgarri !

5 Zatozte , beha, izan beldur :
Egintzak Jaunak gaitzak ditu .
6 Hak itsasoa egin du lur,
Hor denak oinez joan baititu .

7 Hari eskerrak, Hari kantu :
Betiereko indarra du .
8 Begiak dauzka munduz-mundu
Ea nor zaion asaldatu.

9 Eskerrak eman herriz-herri :
Jende guziek, egin kantu .
10 Bizia dauku eman guri,
Gu erortzetik zaintzen gaitu .

11 Suan gaitutzu, Jauna, suan
Nola zilarra gu frogatu .
12 Saretan ere Zuhauk eman
Eta zer zamez gu kargatu !

13 Eman gaitutzu eta utzi
Bertze gizonen zango-pean .
14 Ur eta suan joan-arazi,
Bainan barkatu azkenean .

15 ZURE ETXERAT kantuz noa,
Erran eskaintzen egiteko .
16 Oren beltzean nik Jainkoa
Hitzeman izan dutalako .

17 Eskainiko dut ardi gizen
Eta marro-ke zirimola.
18 ldi , akerrak ditut hilen,
Hilen, erreko zor bezala .

19 Jainkozaleak, etor, entzun
Nere arimak zer zor dion .
20 Hari oihuka gau-et -egun,
Hari goreska bainindagon .

21 Gaizkia banu nik onetsi,
Etzautan Jaunak behatuko .
22 Ihardetsi daut ihardetsi,
Ni otoitzean has orduko .

23 Esker-kantuak Jainkoari !
Gogotik bainau ni entzuna .
24. Ez daut sekulan hetsi neri
Bere betiko bihotz ona.

## 66

1 URRIKAL OTOI! Guri Jainkoa, egin ongi ,
Zure zeruko begitarteaz eman argi .
2 Zure bidea mundu guziak ai! balaki ,
Zutan balaki salbamendua nolaz aurki .
3 Herri guziek Zuri, Jainkoa, laudorio !
Herri guziek Zuri, denek bat, amodio !

4 Has beite denak bozkariatzen, loriatzen ,
Mundu guzia baitabilazu beti zuzen .
5 Jende guziak baitabilzkitzu beti zuzen
Eta munduan herriak oro Zuk bidatzen .
6 Herri guziek Zuri, Jainkoa, laudorio !
Herri guziek Zuri, denek bat, amodio !

7 Gure lurrari bere fruitua zaio jalgi !
Jainkoak dauku, gure Jainkoak, egin ongi .
8 Guri Jainkoak diezagula egin ongi,
Mundu- zabalak duela Jauna buruzagi !
9 Herri guziek Zuri, Jainkoa, laudorio !
Herri guziek Zuri, denek bat, amodio !

## 67

1 XUTI DADILA Jainkoa eta etsaiak joan !
Bai badoazko denak ihesi aintzinean.
2 Ke bilakatuz, nola ezkoa su ondoan,
Itzaltzen dire Jainkoari so hurbiltzean.

3 Zuzenek aldiz Jainkoari so jauzi kantu :
Bozaren bozez Jaunari zaizko dantzan bildu.
4 Kanta Jaunari, Hura baitoa zeruz-zeru :

Pitz eta kanta, Harek izena JAUNA baitu.

5 Umezurtzekin begiratzen du alarguna:
Horra zer zaikun bere egoitzan ari Jauna.
6 Deika denari emaiten dio zoriona;
Suzko lurrean uzten, haatik, aiher dena.

7 Zu elkitzean, Jainkoa, denen aintzindari,
Basa-mortuak lur-ikaretan ziren ari.
8 Zeruek zuten urtuz egin ur eta uri.
Sinai-gainak daldaraka so Jainkoari.

9 Ixuri duzu zure haurreri on-iturri,
Heien indarrak indar galduak diten berri.
10 Zure jendeak egoitza zuen hortxet jarri,
Zuk apaindurik hoin maite duzun zure horri.

II

11 JAUNARI ESKER ezpainez ezpain hau da jauzi:
"Armada gaitzak ditu Jainkoak joanarazi".
12 Lurreko jaunak badoatzi bai badoatzi :
Etxetan bada orai ausarki zertaz bizi.

13 Zuek zinauzten zuen lurretan artaldekin :
Usoa lo zen eta hegalak zilar egin.
14 Lumen gainerat etsaien urre zaitzue jin :
Jo ditu Jaunak nola elurra eror zadin.

15 Basan-mendiak, nor igan zuek bezein goiti?
Basan-mendiak, zertako izan hoin bekaizti ?
16 Bertze mendi bat baitu Jainkoak egon-toki,
Hor dago eta hor da egonen Jauna beti.

17 Gerla-karroak milaka mila eta mila,
Jainkoa nausi Zion mendirat badabila.
18 Bazoazi goiti, lurreko jaunen Jaun bezala :
Hartu ditutzu etsai-gizonak har-ahala.

19 Eskerrak eta eskerrak beti Jainkoari :
Jainkoa dugu pizgarri eta aintzindari.
20 Emaiten dauku gure Jainkoak esku guri :
Jauna zaiku maiz heriotzetik zaintzen ari.
(20)Bainan kaskoa xehakatzen du etsaieri,
Ileak harro brauki baitire gaizki ari.

21 "Basan gainetik itzul ditela -dio Jaunak-
Itzul ditela itsaso-petik itzul denak.
22 Busti ditzagun odol nasaian zure oinak
Eta etsaien hezurrak diten zakurrenak".

III

23 IKUSTEKOA zure sartzea, Jainko Jauna:
Zure sartzea besta bururik ederrena.
24 Zer jendeketa kantuz ta soinuz dabilana !
Neskak zaizkitzu dantzan ari joz tanbolina.

25 "Besta gaitz huntan, Jaunari kantu eta jauzi:
Jaunari esker baitzaizte sortu eta bizi".
26 Horra Benjamin azken sortua lehenbizi;

Bertze leinuak gero datortzi dena jauntzi.

27 Pitz-araz, Jauna, bai mana zure indarrari,
Pitz-araz, Jauna, gure zain dagon indar hori.
28 Jerusalemen den Tenploaren goresgarri,
Zuri eskaintzak Zuk ekar-araz erregeri.

29 Larderiaka dei Ejiptoko aberea,
Zezenak eta ondotik duten artaldea.
30 Heiek ahuspez eskainirik har Zuk urrea,
Barreia Jauna, gerlazalea den jendea
(30) Bai Ejiptotik herriko jaunak jinen zaizko,
Ethiopiak Jauna bi eskuz otoiztuko.

31 Herri guziek, kanta Jaunari munduz-mundu,
Betierean Hura baitoa zeruz-zeru.
32 Haren mintzoak azkarki mintzo egina du :
"Denek Jaunaren indarren pean behar bildu".

33 Izraeldarren gainean, haren Jauntasuna ;
Haren indarra hedoiez goiti dabilana.
34 Saindutegitik Hura Jainkorik azkarrena;
Bere jendeak Hartan du indar. Gora Jauna!

## 68

2 LOHI LEIZERAT itoz noa,
Nun ezar ote nun zangoa ?
3 Buruz gaindi dut itsasoa,
Zorigaitz urek naiz itoa.

4 Zuri zer deia, zer oihua !
Ezindua naiz, erlastua.
5 Histu zait histu behako,
Noiz jautsiko den noiz Jainkoa.

6 Etsai geiago ilhe baino...
Urririk naute ni hastio.
7 Hezurrak baino idorrago,
Nahi naute ni tzarkeriz jo.

8 Nik ebatsia ez dutana
Zergatik eta nolaz turna ?
9 Zuk badakizu, Jauna, dena:
Ba ote dudan nik hobena.

10 Nere-gatik gal ez ditela
Bazauzkatenak Jaun bezala.
11 Nere-gatik hits ez ditela
Badabiltzanak zure bila.

II

12 ZURE GATIK NAIZ asea minez eta laidoz;
Ahalgez nabil begitartea noiz nun ehortz.
13 Arrotz naukate nere anaiek, orai arrotz,
Nere amaren semeak daude neretzat hotz.
14 Zure etxeko minez eta suz noalakotz,

Ondatua naiz zure etsaien etsai laidoz.

15 Min minez barur ez dut hartu nik deus hazkurri,
Etsaiek neri nasaiki laido eta irri.
16 Dolu jauntzia nere soinean dut ezarri,
Bilakatu naiz guzi guzien trufagarri.
17 Nitaz kalakan hiri atetan dire jarri
Arno edalek egin dautate pertsu berri...

(18) Nere otoitza badoakizu zeruraino :
Nere Jainkoa, entzun nezazu ordu deno.
(19) Baduzu-eta neurrigabeko amodio,
Zure laguntza zureari zain dagokio.

20 Lohi barnetik ken nezazu ba, ez nadin gal;
Hastio nauten heieri utziz, ez, otoi! sal.

21 Uren artetik atera nadin, eman hegal,
Uhain tirainek ez nezaten ni arrunt estal.
22 Ez nezatela zilo ezpainek irets ahal,
Ez-eta Ieizek sekulakotz har, aho zabal.

23 Bai entzun, Jauna, Zu bihotz zabal hoin gozoa!
Zuk beha neri, urrikalpenen itsasoa !
24 Begitartea ez gorde neri, oi Jainkoa
Entzun ba laster, aspaldi-eta minez noa.
25 Nere arima zaintzeko, head Zuk besoa,
Eman etsaien aztaparretik jauztekoa.

26 Zure begiak nik jasan minen berri daki :
Min egiletan Zuk ikus gabe nor ibilki ?
27 Minak bihotza errausteraino baitaut unki,
Ahalge-pean porroskatua naiz itsuski.
28 Adiskiderik noiz nor eta nun ? ez izaki,
Goxatzailerik nihun ez nehor ezin aurki.

III

29 NERI JATERAT eman dutena zer pozoina !
Egarri nintzen: heien eskutik nik ozpina.
30 Gaitz bekiote mahain gaineko jan-edana
Eta galgarri eskutan duten ontasuna.
31 Sar bekiote, begietan sar gau beltzena.
Beude indarra errainetarik arrunt joana.

32 Heien gainerat karraskan ixur hasarrea :
Duten guzia izan dadila Zuk errea;
33 Heien egoitza bego betikotz deus gabea:
Ez dagola hor ez aberea ez jendea.

34 Gozo baitzuten Zuk xehatua xehatzea,
Akulatzea Zuk neri eman oinazea.

35 Heien gainerat bota Zuk hoben eta hoben,
Zu zauden zuzen hartarat igan ezin diten.
36 Bizi direnen liburuari hek oro ken,
Hek zuzenekin ez diten nehoiz konda zuzen.

IV

37 HEMEN NAUZU NI : ez deus naiz eta dena zauri:
Zure laguntza, otoi! Jainkoa, eman neri.
38 Aipatuko dut Jainko izena, kantuz ari,

Esker beroak emanen ditut Jainkoari.
39 Zezen eskaintzak baino geiago dauka hori;
Ergirik Hari nihundik ez hain laketgarri.

40 Behazue ba, bihotz apalak, bozkaria !
Jaunaren bila dabiltzanentzat zer loria!
41 Dohakabeen alde du Jaunak beharria,
Preso daudenen oihua eztu ahantzia.
42 Zeru-lurretan, aipa zoin den on, zoin handia:
Jauz, itsasoa eta munduan den guzia.

43 Etorriko da Jauna, Zion-en salbagarri :
Behar dauzkigu Judan hiriak xut ezarri.
44 Horrat jendea behar duzu bai erakarri :
Zion-en nausi, emanen dute kantu berri.
45 Hor Zuri esker, zure gizonen haurrak sarri,
Hor behar dire Jainkozaleak berritz jarri.

## 69

1 ENTZUN JAINKOA, otoi! entzun :
Zatozkit , Jauna, zatozkit laster nere lagun.
2 Ahalgez beude, gorde beite
Badabiltzanak neri bizia noiz ken ote.

3 Gorri belztuak itzul beite,
Nere kalteak heieri gozo baitzaizkote.
4 Ahalgez urtuz doatzila,
Neri baitautet trufaz erraiten: "Hola,hola !"

5 Zutan pitz eta boz ditela,
Guzien gatik badabiltzanak Zure bila.
6 Diotela bai: "Gora Jauna!"
Zu baitzare Zu laguntzat nahi luketena.

7 Dohakabe naiz, ezindua :
Hel, Jainkoa, hel: emazu neri Zuk eskua.
8 Zu Zaitut lagun, Zu laguntza :
Zatozkit laster, ez otoi! Jauna, otoi! luza.

## 70

1 NERETZAT IZAN beso zabal,
Jauna betikotz ez nadin gal.
2 Atera nadin, eman hegal,
Ni ganat laster, otoi apal.

3 Izan zakizkit ihes-harri
Eta goi-hiri salbagarri.
4 Zu zaitut harri, Zu goi-hiri
Ni ken gaixtoen eskueri.

5 Zu zaitut, Jauna, goza nahi,
Zu gaztedanik bihotz argi.

6 Sortzetik zaizkit zain egoki,
Beti zurea naiz osoki.

7 Ainitzeri naiz harrigarri,
Zu zaizkit-eta zain etorri.
8 Ezpainak ditut kantuz ari

Goiz-arrats zure ospeari.

9 Ni xahartzean ez utz, Jauna,
Ni ttipitzean ez erdeina.
10 Etsaiak nitaz ari dire,
Nere bizia nolaz bere.

11 "Bai, utzia du Jaunak ere,
Har dezagun har, nor du alde ?"
12 Nere Jainkoa, nun zaude nun ?
Zatozkit, Jauna, laster lagun.

II

13 AHALGE GORRIZ hits ditela
Dabilzkitanak noiz hil nola.
14 Ahalgez, gordez doatzila
Dabilzkitanak gaizki bila.

15 Egonen naiz ni Zuri dena,
Eginen dautzut kantu, Jauna.
16 Nik Zuri kantu, Jaun zuzena,
Goiz-arrats kantu: zer laguna !

17 Zure indarra dut erranen:
Zu bezein ezta nehor zuzen.
18 Gaztetik nauzu Zuk argitzen,
Ni Zutaz kantuz ar nadien.

19 Xahartua naiz, urtek joa:
Ez nezazula utz, Jainkoa.
20 Erranen dut Zuk zer besoa :
Zer beso-indar gaitzekoa.

21 Geroko jendek duten entzun
Zuk zenbat duzun zuzentasun.
22 Zuk zenbat gauza egin duzun
Parerik, Jauna, Zuk ote nun ?

III

23 ZURE ESKUTIK nituen bai
Nik minak dorpe, minak nasai.
24 Jautsiko zaizkit berritz orai
Pitz nadin berritz begiz arrai.

25 Jautsiko zaizkit, ez naiz Iotsa,
Nagon Iurpetik nadin altxa.
26 Nere xahartze guziz hitsa
Zuk argi zazu eta goxa.

27 Bai esker onez kantuz ari
Joanen nitzaitzu, Jauna, Zuri.
28 Soinu joz joanen salmolari
Izraeldarren Jainkoari.

29 Nere ezpainek bozkario,
Zuri bihurtuz laudorio.
30 Arimak ere bozkario,
Jaunari dena zor baitio.

31 Egun guzian diotala:
Hain zuzen nehor Zu bezala.
32 Haro histuak doatzila
Zabilzkitanak gaizki bila .

## 71

1 EMOZU JAUNA, zure argia erregeri,
Zuzen dabilan Zu iduri.
2 Zuzenki bezo mana zure den jendeari,
Zure xumentzat zuzen ari.

3 Mendiek, ixur nasaiki bake, amodio ;
Bai eta, gainek, bozkario .
4 Harek xumeri Iaguntza eta laudorio,
Zapatzaileri mendekio .

5 Mendez-mende da biziko nola iduzkia,
Betiko nola ilargia .
6 Hura pizgarri nola sorrorat goiz-uria,
Hura ihintza iduria .

7 Haren urtetan zuzentasuna dena lore;
Lurra lur deno, denek bake.
8 Hak itsasotik itsasoraino denak bere :
Ibaiak eta lurrak ere.

9 Kopetaz apal etsai guziak sarri dauzka
Azpiko eta herrestaka.
10 Tarziz-ko eta urrungo jaunak ahuspeka .
Dena emaitza badabilzka .

11 Araba eta Zabako-Jaunak heldu zaizko ,
Hari eskaintzen egiteko .
12 Egonen zaizko lurreko jaunak belauniko :
Jende guziak Haren peko .

II

13 LAGUNDUKO DU oihuz ari den behartsua
Eta guziek ukatua .
14 Dohakaberi luzatuko du maiz eskua .
Heien zain dago apaldua .

15 Zapatzaileen azpitik ditu Hak hartuko :
Heien odola saindu zaio .
16 Guziek Hari urre, goresmen, amodio ;
Eskerrak Hari sekulako .

17 Orduan Iurrak nasaiki ogi, bai landare,
Zelaiek eta gainek ere.
18 Larreak ere izanen dira dena lore,
Udaberriko pentzen pare.

19 Haren izena on aipagarri sekulako .
Iguzkiaren iduriko.
20 Hari jos-eta, on eta saindu denak oro.
Guziek Hura goretsiko.

21 Eskerrak Zuri, Israeldarren Jainko Jauna :

Zoin miragarri Zuk egina !
22 Menderen mende on eta saindu Jaun izena :
Munduan Hari bego dena !

## 72

1 BAI ZUZENENTZAT Ona Jauna,
Bihotz onentzat zoin den ona !
2 Bihotz garbien zoriona !
Alde baitute beti Jauna .

3 Gaizkiratu zait kasik oina :
Doidoia ez naiz makur joana .
4 Bekaizgo minak nintzen jana :
Gaixtoek duten osasuna !

5 Ez dute gaitzik ezagutzen :
Heien gorputza beti gizen
6 Gizon guzien min oinazen
Legeak nehoiz hek ez jotzen .

7 "Nor naiz ni" daude : Zer bapoa !
Indarra dute soinekoa .
8 Heien gantzari gaindi doa
Tzarkeriaren harrapoa .

9 Gaizkia bera on daukate :
Indarra nausi, nehor maite .
10 Zeruaz trufan ari dire :
Espantuz dute lurra bere .

II

11 DENAK HETARAT dire joaki :
Gauza badute zoin nasaiki .
12 Heiek : "Jainkoak nun zer daki ?
Ote da ere so egoki ?

13 Horra gaixtoak hola beti :
Hek, deusen kexu, beti goiti .
14 Zertako naiz ba zuzen bizi ,
Eskuak beti garbiz garbi ?

15 Egun guzian min banuen :
Beti ni beti joa nintzen .
16 Nik erran banu: "Aski goazen"
Zureer uko nintzen joaten.

17 Egon naiz nolaz hori zila :
Gogoarentzat lan bat zaila .
18 Jauna baitarat joan naiz bila ;
Harek :"Betikotz ez direla "
(19)Azpiz ditutzu lerrarazten,
Errekaraino eror diten .

20 Kraskatzen dire berez bere,
Tanpez ikaran hiltzen dire .
21 Gauaz amestu gauzen pare,
Zuretzat, Jauna, hek deus-ere.

III

22 EZ NINDAGOKEN kexuz nihun,
Bihotza nuen arrunt ilun .
23 Deus ezin adi, ezin entzun,
Nola mandoa nindagozun .

24 Bainan Zurekin nago beti,
Eskutik nauzu hartua ni .
25 Zure argiek joaten naute,
Osperat noizbeit igan arte .

26 Neri Zu gabe zer zerua ?
Zu, lurrean, nik Zu gozoa .
27 Nere bihotza minez doa ;
Nere guzia Zu, Jainkoa .

28 Zu ganik joanak hilen denak,
Hilen bertzeri dagotzinak .
29 Zu ganik hurbil, nik zorion ;
Zure gerizan tinki egon .

30 Egin ditutzun gauzak oro
Zion-en ditut aipatuko .
31 Ospe Aitari, Serneari
Bai Izpiritu Sainduari .

## 73

1 ZERTAKO JAUNA, utzi gaitutzu sekulako ?
Zertako kexuz artaldeari egin uko ?
2 Ez ote zare zure jendeaz orroituko,
Hartu baituzu Zion mendia jarlekuko .

3 Zuk Iazgarriko harri-meteri otoi ! beha ,
Etsaia baita Tenploan sartu, denak xeha .
4 BiI-toki hartan zer etsai-orro biltzarrea !
Beren izenaz dute zikindu Jaun atea .

5 Oihanak moztuz doanak nola jotzen baitu,
Mailu, aizkoraz heiek guziak xehakatu.
5 Utzia dute zure egoitza sugai kondu,
Zure izena zaukana dute lurreratu.

7 Heiek zioten: "Aurtik ditzagun denak betan
Jainko-etxeak erre guziak bazterretan".
8 Jaunak hitzik ez, profetarik ez aspaldian,
Gure artean noiz arte nihork ezin erran.

II

9 JAUNA, NOIZ ARTE ahopaldika guri daude?
Ez utz etsaiak Zutaz burroka mendez mende.
10 Zertako, Jauna, ez esku luza gure alde ?
Zure eskuina zertako guri beti gorde ?

11 Nere errege, Jauna, Zu zaitut aspaldian :
Zuk salbamendu obratzen duzu mundu huntan.
12 Zuk itsasoa ezarri duzu bi zatitan
Eta kraskatu itsas-mamuak uhainetan.

13 Ereinsugeak zauzkan buruak Zuk errautsi !
Itsas-abreek zer bazka zuten hor iretsi !
14 Zuk iturriak eta errekak jauz-arazi :
Urez beteko ibai nasaiak agor utzi.

15 Egunak zure bai gauak eta den guzia ;
Argi emaile, Zuk moldatua iguzkia.
16 Zuk duzu lurra dagon bezala ezarria ;
Udan, neguan Zu biziaren iturria.

III

17 ORROIT BA, JAUNA: etsaiak zaitu Zu hastio,
Jaun izenari ahopaldika dagokio .
18 Zure usoa ez utz salbaien eskupeko :
Zure jendea ez ahantz, otoi ! sekulako .

19 Orroit gurekin behin betikotz bat zinela :
Indarra lagun, denetan herra jaun dabila
20 Gizon apala kopeta ilun ez doala ;
Dohakabeek Zu kantuz aipa zaitzatela .

21 Xuti, Jainkoa ! Zureen alde, otoi, zuti !
Burugabea Zuri burroka dago beti .
22 Entzun etsaiak Zuri trufaka, nausi nahi ,
Asaldatuen oihu-moihua beti goiti .

## 74

1 ESKERRAK ZURI, Jainko Jauna :
Guziz handia Zuk izena.
2 Eskerrak Zuri, Jainko Jauna :
Nundik ez aipa Zuk egina ?

3 "Jainko naiz eta Nik noiz nahi
Eginen dut bai dener auzi.
4 Munduan makur badoatzi ;
Garbi diot ba nola bizi .

5 Nik ausarteri : "Ez ausarta" !
Eta tzarreri : "Zer kopeta" !
6 Ez izan hola buru xuta ,
Ez Jainkoari laido bota ".

7 Iguzki, mendi ez itsaso
Nundik nor den jaun ez egon so.
8 Jauna bera da orai mintzo
Huni hasarre, horri gozo .

9 Opor bat dauka eskuetan
Hasarre arnoz irakitan .
10 Hak ixurtzen du, hek milikan:
Hartarik tzarrek bortxaz edan .

11 Ni boztuko naiz sekulako :
Jainkoari dut kantatuko.
12 Tzarren kopetak nik hautsiko,
Onen kopetak altxatuko .

## 75

1 JUDATARRETAN dakite Jaunak zer ahala:
Nun da nun handi hor bezala ?
2 Hara betikotz Jerusalemen badagola ;
Zion gainean Jaun dabila .
3 Etsai-geziak hara puskatu dituela ,
Ezpatak hautsi eta gerla .

4 Zu sekulako indar Iazgarri, argi bizi,
Menditik duzu egin jauzi .
5 Gerlari gaitzak bote ditutzu eta hezi :
Esku-indarrak hil-arazi .
6 Zure marrumak ikaran ditu denak utzi :
Karro, zaldiak tente dauzi .

7 Zu izigarri, Zuri gogorka ezin bizi :
Zure hasarrez nor ez izi ?
8 Zeru gainetik handizki duzu egin auzi :
Lurrean oro mutu dauzi .
9 Xutitu zare, Zuhauk baituzu egin auzi ,
Apalak nahiz altxarazi .

10 Etsai-gizonen kexua zure goresgarri :
Guziak Zuri behar jarri .
11 Botuak egin, eskaintzak eman Jainkoari
Hain izigarri den Jaun horri.
12 Erregen hatsa kentzen du Harek herriz-herri
Lurreko jaunen izigarri .

## 76

1 OIHUZ JAUNARI, deika nago ni eta deika,
Oihuz Jaunari : Entzun ! Barka !
2 Oren beltz hautan gauez-gau noa Jauna bila ,
Eskuak luze banabila .
3 Jaunaz orroituz nik Hari "Otoi", Hari "Hela!"
Gogoa daukat arrunt hila .

4 Nere begiak gauaz gauari so dabiltza ,
Ilunik nago, ezin mintza .
5 Orroit naiz Harek joan-egunetan zer laguntza,
Nola gintazken lehen goza.
6 Gauez-gau beti bila-bilaka dut bihotza :
Ai! Jaunak argi banindeza .

7 " Betierekotz Jainkoa gogor ote dago :
On ez ote da, on geiago ?
8 Joan ote dauku bere grazia sekulako ,
Gu mendez-mende utzi gogo ?
9 Ez ote zaio urrikaltzea orai gozo ?
Ala bihotza hetsi zaio ? "

10 Ni nere baitan ari naiz :"Huna dudan mina :
Nun du Jainkoak nun eskuina ?
11 Gogoratzen zait : Jainkoa lehen ari zena ;
Zoin miragarri zinen, Jauna !
12 Nere gogoan erabiltzen dut Zuk egina :
Nork aski zila zure lana ?

13 Zure bidea saindua, Jauna, sekulako ;

Nor Zu bezenbat nihun Jainko ?
14 Zuk ditutzu bai egintzez lazten zeru-Iurrak,
Zuk jenden kontra zer indarrak !
15 Libratu gaitu daukazun beso hoin azkarrak
Jakobtar eta Joseptarrak .

16 Urek zaituzte ikusi, Jauna, Zu ikusi
Eta joan dire joan ihesi .
17 Itsas-uhainak Zuri so dire inarrosi
Eta lanoak urtzen hasi .
18 Hedoiek dute karraskaz egin ihurzuri :
Suzko eztenak Zuk igorri .

19 Zure galernak karraska gaitza ibili du ;
Ximixtek argi munduz-mundu .
20 Hasi da lurra daldaran eta ikaretan .
Zure bidea itsasoz joan .
21 Itsasoz joan da zure bidea uhainetan ,
Nihork nundik nun ezin erran.

22 Ardien pare zure jendea Zuk duzu joan,
Mois, Aaron aintzinean.
23 Ospe Aitari, gizon egin den Semeari
Bai Izpiritu Sainduari

## 77

1 GOGOAN ATXIK, nere jendea, nik errana ;
Dena beharri, entzun nik egun diotana .
2 Kantuz hasten naiz : emanen dautzut erakaspen,
Joan mendetako gauzak zuretzat argi diten.

3 Gure denboran aditu eta ikasiak ,
Aintzinekoek guri kondatu zer guziak ,
4 Heien semeri ez daiteke utz ixilean :
Ondokoeri nahi ditugu denak erran .

5 Bai denak erran, Jaunak merezi goresmenak :
Haren indarrak, miragarriko Haren lanak .
6 Bere legea Jakob semetan ezarri du ,
Izraeleri emana dio manamendu .

7 Gure aiteri zioten utzi manu hori :
Eman zezaten beren haurreri Haren berri .
8 Geroko jendek, geroko mendek duten jakin,
Sortuko diren gizonek bere duten egin .

9 Xutik bezate beren semeri heiek erran
Daukaten funski beren bihotza Jauna baitan :
10 Ez ditzatela sekulan ahantz Haren lanak,
Bainan bai bete Jaunak manatu dauzkigunak.

11 Ez diten izan lehengo aiten iduriak :
Gizon bihurri eta gaizkirat ixuriak ;
12 Gizon makurrak, bihotza zuzen etzutenak ;
Gizon arinak, gogoz Jaunari ez emanak .

13 EFRAIMTARRAK arranbelari lazgarriak
Gudu orduan ihesi dire joan guziak .
14 Hautsi dituzte Jainkoarekin lokarriak
Eta ez dire Haren Legean ibiliak .

15 Haren egintzak joan zitzaizkoten burutik joan,
Jaunak heieri miragarriki hel ondoan.
16 Zer gauzak ditu eginak aiten aintzinean,
Ejipton eta Taniz hiriko alde hoitan !

17 Iragan diten du zatikatu itsasoa :
Urez egin du hek uhainetik zaintzekoa.
18 Egun guzian heien gidari, zer lanoa !
Eta gauez-gau su baten argi Jainkozkoa.

19 Arraildua du, mortuan barna, maiz harroka,
Izan zezaten bai ur eta ur itsasoka.
20 Harrokari jo eta ur gaitzak dariozka :
Guzi guzien edanazteko zer erreka !

III

21 IBILI ZIREN beti aintzina bekatutan,
Jaun Goikoari laido eginez, mortu hartan.
22 Jaunari zuten marmarikatu beren baitan.
Eman zezoten berak jaterat ausarkian.

23 Egin diote Jaunari heiek erasia :
"Zertako Jaunak ez eman guri bazkaria".
24 "Hor joz harroka jauz-arazi du iturria
Eman dezala uraz bertzalde haragia".

25 Jainko Jaunari piztu zitzaion hasarrea :
Izraeldarrez kexu zabilan, suz betea.
26 Ez baitzioten atxiki beren sinestea,
Etzauden-eta Jaunaren ganik deusen beha.

27 Erran du Jaunak hedoi gaitzeri diten higi :
Zabalik ditu zeruko bortak han ideki.
28 Haz diten denak handik tzirtzirka "mana" jalgi
Eta nasaiki eman diote zeru-ogi.

29 Azkar ogitik gizonak janik azkar doa :
Ausarkian du Jaunak igortzen jatekoa.
30 Pizten du pizten iguzki-aizen ufakoa,
Bere indarraz etor-arazten aiz-hegoa.

31 Errauts-uharka jautsi zaizkote haragiak :
Itsas-Iegarra bezenbat tortoil erauntsiak.
32 Zauden tokirat horra hor heldu hoik guziak,
Egoitzeraino Jainkoak berak igorriak.

33 Jan zuten bai jan, ase baitziren denak ase;
Bete zituen, izan baitziren hortaz gose.
34 Oraino zauden, barnez aseak, begi-gose
Eta dafaila bilakatu zen hil-mihise.

35 Bai jan eta jan bazaudelarik aho bete,
Hasarre sutan oldarka Jauna jin zaiote.
36 Gizoneri jo, hedatua du izurrite

Eta lurrerat gorputz egin du ainitz gazte.

IV

37 GUZIEN GATIK ibili dire bekatutan,
Sinetsi gabe miragarriko gauzen baitan.
38 Hartu daizkote beren egunak ufakoan,
Beren urteak izigarriko zirurikan.

39 Jaunak hiltzean hasten ziren bai Haren bila,
ltzultzen ziren Jaunari deika, dei-ahala.
40 Orroitzen ziren heien harroka Jauna dela :
Zaintzalerik ez, Jaun Zerukoa den bezala.

41 Agoan denek bazabilaten ele zuri,
Bainan gezurra beren mihiak erran hori.
42 Heien bihotza etzen harekin zuzen ari,
Etzauden barnez, etzauden zinez Jainkoari.

43 Halere Jauna berritz eztitzen zitzaioten :
Barkatzen zuen eta ez denak hil-arazten.
44 Beti ta beti bere kexua zuen hezten,
Bere hasarre gaitzaren suan gal ez diten.

45 Noizbeit zen orroit zer den gizona: gorputz ahul,
Joaki den hats bat, bai joaki eta ezin itzul.
46 Ai, zenbatetan aihertu zaizkon zenbatetan,
Aihertu, tzartu nihor gabeko mortu hartan.

V

47 JAUNARI BERRITZ hasten zizaizkon marmarika,
Izraeldarren Jaun Sainduari asaldaka.
48 Haren laguntza horiek alta nolaz uka :
Hek etsaiari Berak hartuak baitiozka.

49 Egin du-eta Ejipton ainitz miragarri,
Taniz aldean izigarriko gauza berri.
50 lbaiak ditu bilakarazi odol gorri,
Edan nahian ez duten izan deus iturri.

51 Sar-arazi du bazterren jale uli mota
Eta igelak, oro ditzaten karrakazta.
52 Mamutzen bazka eman du eman heien uzta,
Ottien bazka heiek lan ta lan egin-eta.

53 Mahastietan bota du harri bahazuza;
Haitzetan berritz bai horma eta bai izotza.
54 Heien abretan sar-arazi du heriotza,
Bai eta heien aziendetan sukar gaitza.

55 Heien gainerat ixuria du bere sua :
Bai larderia, bai hasarrea, bai kexua.
56 Igorria du min eta gaitzen aingerua :
Hasarreari bidea dio zabaldua.

57 Ez du, ez, nihor heriotzetik begiratu :
Heien biziak izurri bazka egin ditu.
58 Ejiptoarren premu guziak hilak ditu,
Kham-tar etxetan nor baitzen-eta lehen sortu.

59 Ardien pare joan du berea den jendea,
Mortuz-mortu joan, arrunt iduri artaldea.
60 Bidatu ditu eta bidean zer bakea !
Etsaiak aldiz itsasopean zer hiltzea !

61 Hek hola ditu sar-araziak lur sainduan,
Bere eskuak beretu duen mendi hortan.
62 Haizatu ditu bertze jendeak, hek sartzean,
Eta betikotz lur-alde bana dener eman.

63 Izrael jendek nun bizi eta nun jan-edan,
Jaunari esker, hola bazuten ausarkian.
64 Tzartu zitzaizkon hek berritz ere Jainkoari.
Harek manatu bidetik bazter ziren ari.

VI

65 MAKUR JOAN ZIREN, lehengo aitak joan bezala,
Itzuli ziren nola tzartu den arranbela.
66 Mendi-aldarez hara Jauna su jarri zela,
Basa-jainkoak ezin jasanez Hak nehola.

67 Aditu zuen, izigarri zen hasarretu,
Izraeldarrak oso-osoki bota ditu..
68 Zilo-n bazaukan egoitza ere utzia du,
Hor zuen-eta egon-tokia hor hautatu.

69 Zuten indarra bertzen azpiko du igorri,
Zuten ospea eman etsaien eskueri.
70 Saldua dio bere jendea ezpatari,
Bereak zauzkan heien kontra da sutan jarri.

71 Heien gazteak hasarre suak janak ditu;
Heien neskatxek eztei-kanturik ez aditu.
72 Ezpataz joak, heien apezak lurreratu
Eta nihun ez alargun dolu, ehortz-kantu.

73 Lo zagon Jauna, jeiki da jeiki azkenean,
Arnoak zaukan gerlari baten idurian.
74 Jo zituen jo heien etsaiak bizkarrean,
Betiereko ahalge gaitza duten izan.

75 Josep-semeen egon tokiak utzi ditu,
Efraimtarren lurren bidea eztu hartu.
74 Egon tokia Judatarretan du hautatu
Zion-mendia du hautatua, maite baitu.

77 Zerurainoko bere egoitza du hor egin,
Hor mendez-mende lurrak dirauno egon zadin.
78 Hor ere Dabid bere gizona du jaun egin :
Jaunak hartzean ibilki baitzen ardiekin.

79 Ardi ondotik ari zelarik deitu zuen
Izraeldarrak haren ardiak izan ziten.
80 Bihotza garbi, aitu zen Dabid hek pazkatzen:
Bere eskuaz joan zituen joan beti zuzen.

## 78

1 ETSAIA, JAUNA, zure etxean sartu baita,

Utzia dautzu Jerusaleme harri-meta.
2 Zure gizonak salbaiki gorputz egin eta,
Hegaztin eta aberen bazka ditu bota.

3 Ura bezala etsaiak odol du ixuri,
Gorputz-ehorzle halere nihor ez ageri.
4 Hara nun garen auzo guzien laidogarri,
Ingurukoen trufa tzar eta irringarri.

5 Noiz arte, Jauna ? Hasarre zaude sekulako ?
Ez ahal duzu karra suaren iduriko ?
6 Zu ezagutzen ez zaituztener egin uko :
Bai, hasarrea ixur etsaien errausteko.
(7) Iretsi nahiz zure lurrari jauzi zaizko,
Etxe guziak xehatu eta botatzeko.

8 Hobenak ahantz: erakuts, Jauna, bihotz ona;
Gaizkien gatik indarra dugu arrunt joana.
9 Lagun gaitzazu, ken bekatutik, otoi! Jauna.
Barka zaguzu aipa dezaten Jaun izena.

10 Zertarako ba utz erraiterat, zertarako :
"Beren Jainkoa nun ote dute, bai nun dago ?"
11 Ikas bezate bertze jendeek, gu lekuko,
Ixuri duten odola dela ordainduko.

12 Hel bekizkitzu preso daudenen deiadarrak;
Zure besoak libra ditzala hil beharrak .
13 Zazpitan ordain auzokoeri laido zorrak,
Zure alderat izan baitire, Jauna, tzarrak.

14 Gu gaitutzu gu bai jendea bai artaldea,
Betierean zoin gozo Zure aipatzea !
15 Gizon alde bat joan-eta, huna hor bertzea...
Zoin gozo beti zure ongien erraitea !

## 79

1 IZRAELDARREN artzain, entzun :
Zure ardiak, lehen bezala, otoi ! lagun.
2 Zerutik ager aintzindari
Zuri osoki dagon fededun jendeari.
(Efraim-eri, Benjamin-eri, Manazeri).

3 Zato, Jainkoa salba gaitzazun etor ba Zu .
Zure indarra berpitz-azu :
4 Egin, Jauna, gu nola lehen ;
Erakuts guri begitartea, salba gaiten .

5 Noiz arte bihur, Jaun Goikoa ,
Zure jendeak egin deieri samurgoa .
6 Eman diozu nigar-ogi ,
Jan-edaritzat nigarrak hari zoin ausarki

7 Auzoak gutaz zer borroka !
Etsai guziek bagauzkate gu trufa-bazka .
8 «Egin, Jauna, gu nola lehen;
Erakuts guri, begitartea, salba gaiten

9 ZUK EJIPTOTIK mahastia
Jenderi hartu lurrean duzu ezarria
10 Zuhauk diozu lurra lantu:
Erro azkarrak eginik, lurra bete baitu .

11 Gainak itzalaz jauntzi ditu,
Bere aihenez zuhaitz buruak gaindikatu .
12 Aldaskak oro joan zaizkio
Itsasoraino eta ibaien hegiraino .

13 "Zeren gatik ken harresia ?
Bidetik jendek larru dezaten mahastia ?
14 Basurde beltzak xahu dezan
Eta kanpoko bas-ihiziek errotik jan ?

15 Gu ganat itzul, Jaun Goikoa :
Zerutik beha, gure zain heda Zuk besoa.
16 Zain mahasti hau, zain zazu ba :
Zure eskuinak lantu mahatsa, otoi salba .

17 (Erre baitute eta joa ,
Kiskail ditela ikusiz zure behakoa)

18 Zure gizona Zuhauk lagun,
Hautatu duzun gizasemea hel dakigun .
19 Zure gaitutzu sekulako :
Pitz gaitzazu pitz, guk Zuri beti kantatzeko.
20 Egin, Jauna, gu nola lehen :
Erakuts guri begitartea, salba gaiten .
(21)Ospe Aitari, Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari .

## 80

1 JAUNARI KANTA, egin besta
Gure Iaguntzen ari baita.
2 Jaunari kanta, egin besta
Betitik baitu gutaz arta.

3 Jo salmo-soinu, jo tanbolin
Jo xirribika, txistu arin !
4 Dei guziak dei adarrekin,
Dugun Jaunari besta egin.

5 Ilargi-betez behar boita,
Jaunaren manuz egin besta.
6 Izraelentzat hau legez da,
Ejiptotik joan gaitu-eta.

7 Goiko mintzo bat aditzen da
“Arindu diot Nik sorbalda.
8 Saski pisuak utzi ditu :
Harek dei eta Nik salbatu.

9 Galerna petik Naiz mintzatu,
Meriban zaitut zu frogatu.
10 Nere jendea, entzun zazu :
Ai! gaur entzuten baninduzu.

11 Arrotz Jainkorik zuk ez onhar,
Bertze jainkoen peko ez jar.

12 "Ni naiz Jainkoa, zure Jauna,
Ejiptotik joan zaitudana".
(12)(Ni ganat zabal zuk agoa
Emanen dautzut nahikoa).

II

13 EZ DU ADITU nere jendeak nere boza :
Israeldarrak Nik erranean ez dabiltza.
14 Nik gogortzerat hetan utzia dut bihotza,
Nahien fruitu izan dezaten zorigaitza.

15 Ai! ni adituz Izraeldarrak baloatzi !
Nere jendea nere bidetan balitz bizi !
16 Haren etsaiak hartaz Iitezke laster izi :
Hek banakizke zafraka nolaz joan-arazi.

17 Nere etsaiak hari lagozke oro agur,
Betiko eta betiereko haren beldur.
18 Nere jendea ogi gozoaz nezake haz,
Harroketarik jali eztiaz ase-araz.

**81**

1 ZERUETAKO biltzarrean,
Jeiki da Jauna zuzendari,
2 Lurreko jaunez hasarrean,
Heiekin nahiz gauzak xuri.
3 Zeruetako biltzarrean,
Jeiki da Jauna zuzendari.

4 "Noiz arte makur zabiltzate
Eta gaixtoak hola maite ?
5 Zaint bertzek joa, umezurtza,
Utz apalari duen gauza.
6 Dohakabeen zaintzale jar
Eta gaixtoen eskutik har.

7 Lurreko jaunak ilunbetan:
Funtsik ez orai mundu huntan.
8 Errana nuen "Zuek jaunak,
Jainko-semeak zuek denak".
9 Zuek halere gizon hilkor;
Guziak berdin hilik eror".

10 Bai xuti, Jauna, Zuhauk mana :
Herriak dire denak zure.

## 82

1 EZ EGON MUTU, ez egon, Jauna, zure hartan:
Ez egon, otoi! ixil eta lo zeruetan.
2 Hara etsaiak ari direla irakitan,
Burua gora Zuri oldartu beharretan .

3 Zure fededun jendeen herraz ari dire,
Zuk beiratuak nolaz jo eta nolaz bere.
4 "Bota ditzagun eta barreia hautsen pare,

Ez dadin nihor Izrael zer zen orroit ere".
(5) Denak bihotz bat elgarretarat bildu dire;
Zure kontrako zin dute denek egin ere.

6 Bat egin dire Izraeldarrak, Edomtarrak
Bai eta ere Moabtarrekin Agartarrak.
7 Gebaltarrekin Amalektarrak, Amontarrak
Eta bertzalde bai Filiztarrak bai Tyrtarrak.
(8) Heiekin ere bat egin dire Azurtarrak:
Lot-semeekin egin dituzte bat indarrak.

9 Nola Madian eta Sisara denak bota,
Hek nota Jabin, Zison errekan Zuk ezezta.
10 Haren armada Endorren joa izan baita,
Hor hil gorputzek lurra zezaten ongarrizta.

11 Oreb eta Zeb bezala zafra heien jaunak:
Nola Zebee, nola Salmana xeha denak.
12 Hek bezala jo, gaurko etsaien jaunak ere :
Erran baitute: "Jainko Jaunaren lurrak gure".

13 Hek, nere Jauna, ostoen pare joan ditela,
Aizeak fitsa zirimolaka joan bezala.
14 Nola baitire oihan zabalak suak janak
Nola baititu garrak erretzen mendi gainak,

15 Hala ditzala gure etsaiak har galernak,
Hala ditzala zure kexuak nahas denak.
16 Begitartean eman heieri lotsa-mina,
Bila dezaten zure izena, Jainko Jauna.

17 Ahalgez eta daldaraz baude betiere ,
Ifernuetan ikaran dauden jenden pare.
18 Ikus bezate Jauna duzula Zuk izena;
Mundu guzian Zu zaitugula jaunen Jauna.

## 83

1 ZAUDEN EGOITZA zoin gozoa,
Zeruetako Jaun Goikoa !
2 Noiz hura ikus, hura goza
Egarriz eta minez noa.
3 Bihotz, gorputzek, ai zer boza !
Bizi baitzaitut han, Jainkoa.

4 Xoriak badu gau-egoitza,
Ainarak umen ohanzñoa.
5 Nik aldaretan dut gozoa,
Zauden etxean, Jaun Goikoa.

6 Dohatsu zure etxekoak :
Badaude beti Zuri kantuz.
7 Dohatsu Zuhauk lagunduak :
Bozik dabiltza Zuri buruz.

8 Heiek iturri, heiek uri
Doatzinean basa-mortuz.
9 Indarrez-indar goiti ari,

Helduko zaizko Jainkoari.

II

10 UKURTUZ ADI, Jaun Goikoa,
Nere otoitzen dei beroa.
11 Behazu, Jauna: deika dago
Zure Kristoren behakoa.

12 Zutan egun bat gozoago
Bertzen etxetan mila baino.
13 Jaunaren mutil nahiago
Gaixtoen baitan nausi baino.

14 Indar, iguzki da Jainkoa,
Grazi-emaile Hura bera.
15 On ixurtzen du nahikoa
Garbi dabilan bihotzera.

16 Zeruetako Jaun Goikoa,
Dohatsu Zuri dagon hura.
17 Ospe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 84

1 EGIN DIOZU zure lurrari ongi, Jauna :
Zuk berritz eman zoriona.
2 Zu ganik badu gaizki guzien barkamena :
Zuhauk diozu kendu dena.
(3) Eztitu zaitzu kexu guzien kar samina,
Hasarre gaitza zaitzu joana.

4 Salbatzaile jar, otoi! Jainkoa, gure alde :
Hasarretzetik geldi zaite.
5 Betierekotz gurekin kexu ote zaude ,
Larderiaka mendez-mende ?

6 Ez ote zare berritz piztuko gaituena,
Zu fededunen zoriona ?
7 Erakuts guri zure betiko bihotz ona :
Salbamendua igor, Jauna.

8 Huna zerutik Jaun Zerukoa guri mintzo :
Bake dugula bake dio.
9 Jainkoarenek, bihotz garbiek bozkario,
Zinez itzultzen bazaizkio.

10 Onainkozalentzat salbamendua zoin hurbil den!
Haren ospea gutaratzen.
11 Amodioak eta Egiak, nola lehen,
Dute munduan bat eginen.

12 Zuzentasuna eta Bakea sekulako
Besarka dire juntatuko.
13 Egia zaio gure lurrari aterako,
Zuzentasuna zerutik so.

14 Ongi nasaia Jainkoak berak emanen du :
Jaunari esker lurrak fruitu.

15 Hak aintzinean zuzentasuna izanen du :
Doan bidean salbamendu.

## 85

1 APAL ZU, JAUNA, dena beharri nere alde ;
Ezdeus naiz eta dohakabe.
2 Beira nezazu Zurekin bainaiz adiskide :
Zure hunen zain, otoi ! zaude.

3 Zu zaitut Jainko: ni,Jauna, izan urrikari,
Zu gana bainaiz oihuz ari.
4 Pitz nezazu pitz: ixur Zuk duzun indar hori,
Arima baitut dena Zuri.

5 Ona zare Zu, dei egilentzat ona, Jauna,
Denentzat duzu bihotz ona.
6 Entzun, Jainkoa, Zuri otoizka nik errana,
Entzun zer deia, zer auhena.

7 Egun beltzean banago Zuri deika, Jauna,
Bainauzu beti Zuk entzuna.
8 Jaun handietan nor da Zurekin nor berdina
Paregabea zure lana.

9 Herri jendeak zaizkitzu denak etorriko,
Zuri egonen belauniko.
10 Nihor nola Zu miragarrien egiteko,
Zu xoilki handi eta Jainko.

II

11 DUDALA, JAUNA, zure bidea funski
Zure nahia dudan egin.
12 Nere bihotza Zuhauk erabil artarekin,
Zure beldurraz bete dadin.

13 Bihotz-bihotzez Zaitut nik, Jauna, goretsiko,
Eskerrak Zuri sekulako.
14 Ainitz baituzu neretzat izan amodio,
Ifernutik ni kentzeraino.

15 Buru harroak dena espantu, dena irri,
Neri oldarka zaizkit jarri.
16 Nere arima nundik bil dire denak ari,
Hek ez baitaude beha Zuri.

17 Bainan Zuk, Jauna, laket baituzu maitatzea,
Eta hoin guti kexatzea,
18 Zu, amodioz eta egiaz hoin betea,
Nitaz urrikal, neri beha.

19 Indar emazu, sortzetik Zure bainaiz dena:
Gaur agerian izan ona.
20 Ahalgez urtuz ikus dezaten zer laguna,
Zer indar gaitza dutan Jauna.

## 86

1 MENDI SAINDUAN Jaunak egina den hiria
Jaunari zaio guziz gozo.
2 Jakob semeen egon-tokiak oro baino,
Jaunak du Zion maiteago.
(3) Hiri saindua, zuk, Jauna ganik, zer loria !
Lorioski da zutaz mintzo.

4 Oraitik diot: Ejipto eta Babilonek
Eginen dautet neri kantu.
5 Hunek hau eta bertzeak hura herri baitu,
Beren herrian denak sortu.
6 Ai ! bainan Zion, gizasemetan, denek denek
Beharko dute "Ama" deitu.

7 Zeruetan den betiereko Jaun Goikoa
Mendez-mende zain dagokio.
8 Jende guziez baitu hor Jaunak izkirio:
"Hau hemen sortu" denez dio.
9 Jende bakotxa Zion gainari kantuz doa :
"Gain horri denak haur gitzaio".

## 87

1 JAUNA! JAINKOA! goiz-arrats nauzu oihuz ari:
Gauaz ere nik auhen Zuri.
2 Nigar hipaka Zu-gana dadin otoitz hori,
Dena beharri ukur neri.

3 Min du eta min nere arimak ausarkian
Hilen arterat naiz abian.
4 Jendek naukate jada sartua hil-hobian :
Hila naiz jenden idurian.

5 Hilen artean hilekin dut nik egon-toki,
Hobi ziloan naiz egoki.
6 Nere berririk nihork geiago ez baitaki,
Zuhau baitzaude hotz osoki.

7 Urpeko zilo barne-barnean nauzu eman:
Zer ilunbetan, zer leizetan !
8 Zuk banaukazu ni Ieherturik hasarrean,
Zure uhainen zaflen pean.

9 Urrun dauzkatzu adiskideak nere ganik,
Okaztagarri Zuk eginik.
10 Gakoz naiz gakoz, ateratzerik ez baitut nik;
Begiak dauzkat minek janik.

II

11 EGUN GUZIAN nitzaitzu, Jauna, oihuz ari:
Eskuak luze nago Zuri.
12 Hilentzat ote duzu hainbertze miragarri ?
Hek ez daudezke salmolari.

13 Nor mintza ote zure bihotzaz hil-hobian,
Zure egiaz ifernuan?
14 Nork ikus ote Jaunaren obrak ilunbetan,
Nork zu ezagut hilen baitan ?

15 Nere ezpainak Zu ganat aldiz oihuz daude,
Goizetik deika zeru-alde.
16 Zertako, Jauna, Zuk egin uko neri ote ?
Begitartea neri gorde ?

17 Sortuz geroztik dohakabe naiz eta hiltzer:
Zure Iazturek noiz ni leher.
18 Zure hasarrek naute ondatu eskuin, ezker :
Ikarek naute hilen laster.

19 Uhainen pare dabilzkit nundik neri jazar :
Nundik ni baitan trumilka sar.
20 Adiskidentzat, haurridentzat naiz arrotz piltzar,
Ilunbea dut lagun bakar.

## 88

1 JAUNAREN BIHOTZ onari kantu sekulako,
Haren egia mendez mende dut aipatuko.
2 Bai betiko du guretzat Harek amodio ;
Hari egia zeruan berme dagokio.

3 Zin egin duzu: "Dabidekin naiz bat egina,
Hura da hura Nik hautatua den gizona.
4 Sekulako naiz zure semeen Jainko Jauna;
Zure alkia menderen mende dirauena”.

5 Goraipatua zare Zu, Jauna, zeruetan :
Zure egiaz han kantuz daude oro betan.
6 Jaunaren pare nor ote daite gain-gain hartan?
Jauna bezenbat nor da aingeru, sainduetan?

7 Saindu bilkuran Jauna Iazgarri badabila,
Inguruetan denak ikaran dauzkiola.
8 Zeruetako Jainkoa, nor da Zu bezala?
Egia duzu gerriko, eta zer ahala !

9 Zuk badakizu itsaso gaitza nundik hezi,
Uhain hantuak nolaz apalik joan-arazi.
10 Rahab sugea errautsi duzu, gorputz utzi :
Zuk besoz jorik etsaiak oro badoatzi.

11 Zurea lurra eta zureak zeru gainak,
Moldatu duzun mundu zabala eta denak.
12 Iparra eta hegoa ere Zuk eginak:
Tabor mendiak zure izenaz irrintzinak.

13 Zure besoa diren guzien izigarri,
Zure eskua indartsu eta zuzen ari.
14 Zure alkiak zuzentasuna peko-harri ;
Zuk amodio eta egiak aintzindari.

15 Bai dohatsuak Zuri daudenak dena jauzi,
Zure begien argi betean baitoatzi.
16 Zure izenaz bozkariotan daude beti,
Zuzentasunak baiteramatza bozik goiti.

17 Zu zaitugu Zu bai indar eta bai dirdira,
Zure graziaz gure kopetak daude gora.
18 Gure begira badago beti Jauna bera,

Erregearen Jaun eta Nausi balte Hura.

II

19 ORAI ASPALDI agertu zare mintzo ari,
Erran baituzu zureak diren guzieri :
20."Korona diot gizon den bati nik ezarri,
Nere jendetik hartu dut gizon kartsu hori.

21 Nere eskuko dabilan David dut atxeman,
Olio saindu ixuri diot ausarkian.
22 Nere eskua behin betiko du aldean,
Nere besoak nasaiki dezon indar eman.

23 Nihun neholaz eztu etsaiak beretuko
Gizon makurrak eztu emanen bere peko.
24 Nik errautsirik, etsaiak oro hilen zaizko,
Haren hastioz ari direnak ditut joko.

25 Nik amodio eta egiak haren baitan,
Nere izenaz kopeta gora badabilan.
26 Hedatuko dut haren eskua itsasoan,
Haren eskuina ibaiez-ibai lur guzian".

III

27 DEITUKO NAUZU: "Zu nere Aita, nere Jauna
Nere Harroka, beti nere zain bazaudena!".
28 Izanen da bai hortakotz premu Nik egina,
Eta lurreko jaun erregetan handiena.

29 Harentzat dutan amodioa betikoa,
Harekilako batasun hura berme doa.
30 Izanen duen ondoregoa betikoa,
Haren alkia iguzkiaren parekoa.

31 Kasu, badautet semek egiten Neri uko,
Nik erranari zeihar-meiharka badoazko.
32 Nere manuak badabilzkate oinen peko,
Nere Legea uzten badute, Ni jeikiko.

33 Heien gaizkiak zigorka ditut garbituko,
Joko ditut Nik hek bekatuan sar orduko.
34 Bainan harentzat baduket beti amodio,
Nik eman hitza sekulako hitz dagokio.

35 Ez dut hautsiko finkatu dutan batasuna,
Ez aldatuko nere ezpainek diotena.
36 Jainkoa Jainko! Behingotz diot zin egina,
Nik Dabideri eman hitz hura ezin jana.

37 Hari semeak menderen mende joanen zaizko,
Haren alkia iguzkiaren iduriko.
38 Ilargiaren pare badago sekulako,
Gau-argi hura zeru gainean hor lekuko".

IV

39 HORRA NUN ORAI egin daukuzun uko, Jauna;
Zureen kontra zer hasarrea daukazuna !
40 Ez deus daukazu Zure Dabiden batasuna :
Bota diozu lur errautserat gaur korona.

41 Errekaratu ditutzu haren arresiak,
Haren hiriak harri metaka ezarriak.
42 Bideko jendek zer Iazgarriko sarraskiak,
Eta auzoan dauden guziak zer irriak !

43 Oldartzaileak utzi ditutzu arrunt nausi,
Haren etsaiak zer bozkarioz pitz-arazi!
44 Harrokari joz haren ezpata duzu hautsi
Eta guduan bakar bakarrik hura utzi.

45 Haren dirdira diozu, Jauna, Zuk itzali,
Haren alkia lurrerat ere Zuk uzkaili.
46 Semeak zaizko gizondu gabe joaiten lili;
Ahalgez duzu bai bezti eta bai estali.

47 Noiz arte, Jauna? Betiko zaude Zu gordea ?
Noiz arte duzu su-pindarretan hasarrea ?
48 Orroit gizonek labur dutela bizitzea,
Gizonak oro deus ez direla Zuri beha.

49 Nor bizi daite eta ez eror hil-hobira ?
Ifernuaren aztaparretik nor atera ?
50 Zure lehengo graziak oro gaur nun, Jauna ?
Gogoan ibil Zuk Dabideri egin zina.

51 Bai ikus, Jauna, zure gizonek duten mina:
Jende guzien tzarkeri, herrak dauzkat barna.
52 Zure etsaiak guri laidoka daude, Jauna:
Zuk hautatuak laido ta laido du jasana.

53 Jainko Jaunari bai esker-kantu ! bai goresmen!
Betierekotz Hari guziek: Amen ! Amen !
(54)Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari !

## 89

1 GURE GERIZA zaude Zu, Jauna, mendez-mende:
Gu hiltzen eta gu sortzen eta Zu bazaude.
2 Etzen mendirik, lurrik, mundurik nihun ere,
Zu Jainko zare betieretik betiere.

3 Hilkor gizonak sar diten berritz errautsean,
Zuk erran duzu: "Gizonak berritz errauts izan".
4 Mila bat urte zure begien aintzinean,
Atzoko egun ala gauaren idurian.

5 Hartzen ditutzu eta hek amets baten pare,
Nola belarra hek sortu eta hil baitire.
6 Argi hastean handitzen eta dena lore,
Gauerakoan histen, eihartzen ez deus-ere.

7 Daldaran gaude zure hasarre garren pean,
Zure kexuaz bagauzkatzu gu ikaretan.
8 Gure gaizkiak ditutzu denak aintzinean :
Hoben gordeak begien argi zabalean.

9 Gure egunek zure kexua jasan dute,
Hiltzerakoan azken auhen bat eman arte.
10 Guk bizi huntan hirurogoi-ta hamar urte :

Indartsuenek larogoi urte dituzkete.

11 Egunak nasai, lan eta minak nasaiago :
Laster doatzi !aster eta gu joan beharko.
12 Zure hasarren indarra nork du ezautuko ?
Nor aski ote zure kexuen beldur dago ?

13 Gure egunez erakuts guri zer diozun,
Gaiten gogotik zuhurtziarat hel, Zu lagun.
14 Gu ganat itzul : noiz arte, Jauna, zaude urrun ?
Zure direnez urrikaldurik, otoi ! entzun .

15 Bihotz beteka goizetik ixur amodio,
Goiz-arrats dugun bai kantu eta bozkario.
16 Jasan egun beltz bezenbat eman egun gozo,
Zorigaitz-urte bezenbat orai bake oso.

17 Zureen baitan ager dadila Zuk egina,
Heien semetan zure osperik argiena.
18 Gure gainean bego Jaunaren bihotz ona :
Zuk lagun zazu gure eskuek egin lana.

**90**

1 JAUN GOIKOAREN hegalen pean, zer bakean!
Indar guziak dituenaren itzalean.
2 Jaunari diot: "Nere geriza zure baitan :
Bihotz guziaz nago Jaunaren eskuetan".

3 Zainduko zaitu ihiztarien saretarik,
Heriotzea hedatzen duten gaitzetarik.
4 Hegalen pean bazagozkio zu goxorik :
Haren gerizan nork ote luke noiz beldurrik ?

5 Zu ganat ezta heltzen ahalko gau iluna,
Ez, egun argiz, airez dabilan su-eztena,
6 Ez, ilunbetan, jotzen duen min kotsuduna,
Ez, eguerditan, barreiatzen den pairamena.

7 Zure ondoan mila bat jende hil dadila,
Eror ditela eskuin aldean hamar mila,
8 Heriotzea zu ganat gabe badabila :
Nor da zaindua Jainko bihotzak zu bezala?

9 Horiek hola zure begiak, doi-bat luza
Eta ikus hor bekatoreen sari beltza.
10 Zuk baitiozu: "Jaun Zerukoa dut geriza",
Izanen duzu Jainkoa bera zuk egoitza.

II

11 EZ DAITEKE SAR atsegaberik zure baitan,
Ez minik ere gauaz Io zauden toki hartan.
12 Aingerueri diote zutaz Jaunak erran
Zure zaintzeko munduko bide guzietan .

13 Esku besotan zaituzte berek eremanen,
Zure zangoak deus harririk jo ez dezaten.
14 Lehoinen eta sugen gainetik zare joanen,

Ereinsugeak ditutzu ere leherturen.

15 Neri baitago eginen diot begitarte ;
Zainduko dut Nik, nere izena baitu maite.
16 Deitu orduko, banagokio beti alde ;
Altxatuko dut, deneri nausi eman arte.

17 Emanen diot ainitz Iaguntza, ainitz urte,
Haren bihotza salbamenduaz dadin bete.
(18) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari ,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.

## 91

1 ON DA JAUNAREN aipatzea,
Jainkoa, Zuri kantatzea .
2 Goizetan diot : Zu zoin ona !
Eta gauez-gau: Zoin zuzena !
3 Zuri soinu joz banabila,
Agoan kantu xaramela.

4 Jaunaren lanak neri gozo :
Zuk eginez dut bozkario .
5 Jaunak eginak miresgarri :
Zuk asmatuak ezin neurri .
6 Zoroak ezin ohart horri,
Ezin dakite horren berri .

7 Belarren pare dena lore
Zabaltzen dire tzarrak ere.
8 Hek oro noizbeit hil beharko :
Zu aldiz, Jauna, sekulako .
9 Zure etsaiak hilen dire :
Gaixtoak oro Zuk deus-ere .

10 Zezen azkarrak badu adar :
Nik zure argi, zure indar.
11 Begia daukat dena irri,
Baitut gaixtoen kalten berri.
12 Zuzena nola palmondoa :
Nola zedroa goiti doa .

13 Jainkoarenak palmen pare
Hek betiere dena lore .
14 Fruitu badute zahar ere :
Beti pitz eta gotor dire .
15 Dioten Jauna zoin den zuzen :
Nere Harroka ez mugitzen .

## 92

1 JAINKOA JAINKO: nausitasuna du soineko,
Indar osoa du gerriko .
2 Finkatua du mundu zabala bere peko ,
Deusek ez baitu higituko .
3 Zauden Alkia bai betidanik bai betiko
Betieretik zare Jainko .

4 Itsas ibaien boz gaitza, Jauna, goiti doa :
Zoin Iazgarria itsasoa!

5 Itsas ibaien boz gaitza, Jauna, goiti doa :
lbaien bozak zer orroa !
6 Itsaso eta ibaiak baino gaitzagoa
Zeru gainetan da Jainkoa .

7 Zure nahia lur guzirako manamendu :
Sineste oso merezi du .
8 Zauden etxean menderen mende Zuri kantu
Zauden etxean denak saindu .
9 Ospe Aitari, gizon egin den Semeari ,
Bai lzpiritu Sainduari .

## 93

1 MAKUR GUZIEN mendekatzaile ager, Jauna :
Mendekatzaile otoi erna,
2 Xuti ba xuti, lurreko jaunen Jaun zarena,
Harroek duten bil ordaina.

3 Noiz arte, Jauna, gizon gaixtoek bai noiz arte
Beren burua jaun daukate ?
4 Zoin harro dauden goraki mintzo eta tente!
Espantu gaitzak badituzte .

5 Zure jendea daukate, Jauna, zangopeko ,
Haren lurrari lotzen zaizko .
6 Alargunari, arrotz denari jo heiek jo ,
Umezurtzari hil-zafrako .

7 Heiek diote: "Itsu da Jauna, arrunt itsu :
Eztu egiten guri kasu " .
8 Nun aurki ote zuen pareko zoro batzu ?
Noiz dukezue doi-bat zentzu ?

9 Gizon bakotxak Harek emanik du beharri ;
Harek nolaz gu ezin adi ?
10 Duen begia Harek egina gizonari :
Nolaz ez luke berak begi ?

11 Harek baitio : "Hau ongi eta hura gaizki ",
Nolaz ez diro jo garrazki ?
12 Jaunak gizonen pentsamenduen berri daki :
Hatsa bezala dire joaki .

II

13 BAI DOHATSUA Zuk argitua den gizona ,
Zure legeak dabilana .
14 Egun beltzetan zure bakea badu, Jauna,
Arrunt gal-arte gaixtagina .

15 Eztu Jainkoak bere jendea igorriko ,
Ez bere lurra bertzen peko .
16 Nausituko da zuzentasuna sekulako :
Onak ondotik joanen zaizko .

17 Gaizkilen kontra nor nahiko zait alde jeiki ?
Nor da nere zain nor egoki ?
18 Ez banindu ni Jaunak laguntzen amultsuki ,

Hobian laster nuke toki .

19 Nere bihotzak lerra beldurrez "Atx!" badio,
Zuk, nere lagun, amodio .
20 Bihotz barneko herstura beltzez banaiz mintzo
Zure gozoek neri gozo .

21 On ote zaitzu, egiten ari baitaukute
Legea lege guri kalte ;
22 Zuzen denari jazartzen ari baitzaiote,
Odol garbia ixur arte ?

23 Bai Jaunak, segur, gerizapean ni banauka
Jainko Jauna dut nik harroka .
24 Hek gal-biderat beren-gaizkiez derabilzko,
Hek diten hor gal eta finka .

## 94

1 ZATOZTE, KANTA Jainkoari,
Pizten gaituen Harrokari .
2 Joan gitzaiola soinuz ari,
Jaunari denak jauz kantari .
3 Zatozte, Kanta Jainkoari ,
Pizten gaituen Harrokari .

4 Jainko handia baita Jauna,
Handietarik handiena.
5 Lurra eskuan dauka dena,
Bai-ta mendien gainen gaina
6 Bere du bere itsasoa ,
Harek egina lur osoa .

7 Zatozte Haren otoizteko :
Gauden ahuspez belauniko .
8 Jaunak eginak garelako ,
Hura dugu bai denek Jainko .
9 Gu Jaunarena den jendea ,
Eskuz dabilan artaldea .

10 Egun agian zuek egun ,
Jainko Jaunaren deia entzun .
11 "Ez bihotz gogor otoi ! izan
Nola Meriban eta Mazan.
12 "Aitek han gogor egin zuten ,
Nik eginer hotz egon ziren .

13 "Berrogoi urtez nardagarri
Izan zait Neri jende hori .
14 "Bihotza dute makur ari,
Ez dakite hoik nere berri .
15 "Zin egina dut hasarrean
Hoik ez sartuko lur sainduan ".

## 95

1 KANTA JAUNARI kantu berri,
Kanta guziek herriz herri.

2 Kanta Jaunaren izenari,

Mundu guzia, jauz kantari .

3 Aipa noiz-nahi munduari
Zain den orotan salbagarri.
4 Hura goraipa herriz-herri,
Eman lurrez-lur Haren berri .

5 Handi dugu bai handi Jauna :
Hari zor zaio goresmena .
6 Jauna ditaken azkarrena,
Bertze jainkoek zer ezina .

7 Zerua, Jaunak du egina :
Zoin eder, zoin jaun dugun Jauna;
8 Haren alkia sainduena,
Indarrez, argiz baitu dena .

II

9 EKAR JAUNARI, kantuz ekar,
Herri guziek ospe, indar.
10 Jaunak izena hain du azkar,
Zor goresmenak kantuz ekar .

11 Zuen eskaintzak Hari eman :
Ahuspeka sar Haren baitan .
12 Bego mundua ikaretan
Jainko Jaunaren aintzinean .

13 Mundu guzirat has oihuka:
Jainko da Jauna, ezin uka.
14 Harek mundua xutik dauka :
Herriak zuzen derabilzka.

15 Zeru-lurrak, pitz, egin kantu,
Itsas-uhainek orro-soinu.
16 Zelaiek, eman bozik fruitu,
Oihan zuhaitzek, egin oihu.

17 Bai egin oihu, soinu, kantu :
Heldu baitzaiku Jauna heldu.
18 Dena behar du hak zuzendu,
Dena zuzendu, munduz-mundu.

## 96

1 JAINKOA JAINKO jauz eta kanta, lur guzia,
itsas leihorrak, bozkaria.
2 Hedoi-ilhunbez inguratua da ibilki,
Zuzentasuna du jar-alki.

3 Zeruko Sua dauka dena gar aintzinean,
Etsai guziak erre ditzan.
4 Ortzi ximixtak igortzen ditu munduz-mundu:
Ikharrak lurra nahasten du.

5 Ezkoz iduri, mendiak zaizko urtzen ari,
Mundu guziko Nausiari.
6 Gora diote zeru indarrek zoin den zuzen
Eta gizonak ikaratzen .

7 Jaunaz bertzeri josi guziak ahalgez ur,
Handi guziek Hari agur.
8 Izraeldarrak Zion-mendian kantuz daude,
Zuzen baitzare mendez-mende.

9 Zu zaitugu Zu mundu guzian jaunen Jauna,
Zu denetarik handiena.
10 Gaizkia etsai duten guziak Jaunak maite:
Zuzenek Jauna lagun dute.

11 Argi zabala zuzen denari pizten zaio,
Bihotz onari bozkario.
12 Jainkoa baitan gizon zuzenek egin kantu,
Izena Jaunak saindu baitu.

## 97

1 KANTA JAUNARI kantu berri,
Harek eginak oro baitire miragarri.
2 Berez bere da nausi jarri,
Bere besoaz jaun agertu da munduari.

3 Salbatzaile da jeiki Jauna :
Ikusi dute zoin ona dugun, zoin zuzena.
4 Izraelentzat zer laguna !
Erakutsi du bere betiko bihotz ona.

5 Lur guziak du ikusia
Gure Jaunaren salbamenduko iguzkia.
6 Kanta Jaunari, lur guzia :
Pitz eta kanta, bai bozkaria, bai loria.

7 Egin Jaunari soinu, kantu :
Jo xirribika, jo salmo-ttunttun eta xistu.
8 Adar-soinu jo, zilar-soinu :
Pitz eta kanta, lurrak Errege Jauna baitu.

9 Itsas-uhainek, Hari kanta :
Lur guzia, jauz: guzi guzien Jauna baita.
10 Ibaiek egin esku-zarta :
Mendi buruek, irrintzin eta zinka bota.

11 Kanta Jaunari, heldu baita ;
Bai, heldu baita, Berak hartzeko lurraz arta.
12 Joanen du joanen lurra zuzen,
Herriak oro zuzen bidean joan ditezen.

## 98

1 JAINKOA JAINKO : herri guziek zer ikara !
Tenplo sainduan dago Hura.
2 Beldur ikaraz, Hari daldaran dabil lurra :
Zion mendian Jauna gora.

3 Herri guziez gorago zaiku goraltxatu ,
Aipa bezate munduz-mundu.
4 Zure Jaun izen lazgarriari denek kantu,
Saindu delakotz, guziz saindu.

5 Jaunen Jaun zaude; zuzentasuna duzu maite;
Zuzenak zaitu beti alde.
6 Zuzen legeak zuzen dauzkatzu mendez-mende:
Denen zuzentzen hor baitzaude.

7 Goraltxa Jauna, Hura baitugu denek Jainko:
Guziak egon Haren peko.
8 Haren oinperat ahuspez eror belauniko,
Saindu delakotz sekulako.

9 Mois, Aaron zituen apez eta lagun:
Heiek Jainkoa zoin ezagun !
10 Zamuel berritz otoizka zuen gau et-egun :
Heiek dei eta Jaunak entzun.

11 Heien bidari lano sainduan izan baita,
heiekin zagon eleketa.
12 Haren nahiak, Haren manuak entzun-eta,
Legeaz duten beti arta.

13 Gure Jainkoa, heieri duzu egin kasu :
Zain gozo zinen, zoin amultsu !
14 Bainan hek makur zabiltzanean, laster kexu:
Gaizkien kontra zinuen su.

15 Goraltxa Jauna, Hura baitugu denek Jainko:
Guziak egon Haren peko.
16 Haren mendirat ahuspez eror belauniko :
Jauna saindua sekulako.

## 99

1 KANTA JAUNARI, lur guzia,
Egin airoski Hak nahia.
2 Sar Hari beha, sar, loria:
Loria eta bozkaria.

3 Jainko da Jauna: bere gaitu;
Harek gaitu bai gu moldatu.
4 Gu Jaunarena den jendea,
Haren etxeko artaldea .

5 Haren atetan sar kantari :
Gorarik egin agur Hari.
6 Aipa-zazue denek betan,
Haren izena gorestean.

7 Ona da ona Jainko Jauna,
Betiereko bihotz ona.
8 Betikotz eta mendez-mende
Jaunaren hitzak hitz badaude.

## 100

1 ZOIN ONA ZAREN! Zoin zuzena
Eginen dautzut kantu, Jauna.
2 Hartzen dut bide garbiena,
Noizbeit zaiten Zu nere gana.

3 Bizi gogo dut zuzen beti,
Etxe xokoan barnez garbi.
4 Ez dut emanen begieri
Gaizki daitenik ikusgarri.

5 Gaixto Ianentzat badut herra :
Hetarat nihau ezin lerra.
6 Urrun dagola so-makurra :
Arrotz dut arrotz gizon tzarra.

7 Ixilka jorran ari dena
Nerekin ezin jo aintzina.
8 Bihotz hantua dabilana
Nihundik ezin nik jasana.

9 Lurreko gizon zuzeneri
Banago maitez dena begi.
10 Nor baita beti zuzen ari
Hura dut nahi zerbitzari.

11 Ezta egonen nere baitan
Nor baitabila gezurretan.
12 Nik gezurtia ezin jasan
Nere begien aintzinean.

13 Egun oroz naiz gogor ari
Lurreko gizon makurreri.
14 Zure hiria baitut nahi
Gaizki egilez arrunt garbi.

# 101

1 OT0I! JAINKOA, nere otoitza entzun zazu,
Nere oihua hel bekizu.
2 Begitartea ez nere ganik otoi! itzaI,
Egun beltz huntan ez nadin gal.
3 Dena beharri apal zakizkit nere lagun :
Deitu orduko laster entzun.

4 Nere egunak zaizkit itzaltzen nola kea :
Hezurreraino naiz errea.
5 Bide belarra bezala naiz ni barnez histen :
Ogi jatea zait ahanzten.
6 Nere auhenen auhenez leher eta xahu,
Banago hezur eta larru.

7 Hala nola ni bas-hegaztina mortuz-mortu
Eta murruan huntzak sistu.
8 Ezin Iokartuz intzirika naiz gauaz ari,
Hegaztegiko bakar-xori.
9 Gelditu gabe neri etsaiek oihu-moihu :
Nere izenaz guziek thu.

10 Egun guziez hauts eta dolu dut ogia,
Dena nigar dut edaria.
11 Zure hasarre, zure kexua gaitza baita,
Altxatu-eta nauzu bota.
12 Egunak zaizkit itzalen pare gaueratzen :
Nola belarra naiz eihartzen.

II

13 ZU ALDIZ, JAUNA, betierekotz Jaun bazaude:
Zure izena mendez mende.
14 Xuti zaite Zu: har Zion gainaz orai arta,
Urrikal zaiten ordu baita.
15 Zure gizonek haren harriak zenbat maite :
Hek ikustean min baitute.

16 Orduan handi zure izena munduari,
Zure ospea erregeri.
17 Zion mendia altxatzen duen egunean
Orduan Jauna zer ospean !
18 Dohakabeen deia entzuna izan baitu
Heien otoitza ez ukatu.

19 Hau izkirioz emanen dute gërarako ,
Jende berriek kantatzekô.
20 Hara bai nota zerutik Jauna den apaldu :
Gure lurrerat behatu du.
21 Lokarrietan zaudenen deiak entzun ditu,
Abantsu hilak berak piztu.

22 Zureen haurrak biziko diredenak zure,
Heien semeenhaurrak ere,
23 Zion gainean aipa dezaten Jaun izena,
Jerusalemen gorets Jauna .
24 Herriak oro Jainko Jaunari hor baitzaizko,
Gurekin kantuz bat bilduko .

25 NOAN BIDEAN indarrak ditut minek janak:
Laster akabo nik egunak .
26 Jaunari diot : Ni ez hil-araz, ni hoin gazte ;
Zure urteak mendez-mende .

27 Aspaldi hartan izan da lurra zure lana :

Zerua ere Zuk egina.
28 Hek joanen dire, bazaudelarik sekulako :
Nola jauntziak hek histuko.

29 Soinekoz aida eta hek hala joaten dire ;
Zu aldiz bera betiere.
30 Zureen haurrak biziko direbeti zure ,
Heien semeenhaurrak ere .

## 102

1 ESKERRAK EMAN, nere arima, Jainkoari ;
Nere barneko guziek Haren Izenari
2 Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari ;
Ez nehoiz ahantz zoin usu zaitzun urrikari.

3 Harek barkatzen, noiz baitzare zu makur ari,
Indar emaiten, ahul bazare ala eri .
4 Libratzen zaitu, kasik baitzare hil erori ;
Emaiten dautzu amodioa minen sari .,

5 Zuri bizian ixurtzen dautzuon igeri,
Arranoari bezala pizten indar berri .
6 Gauza orotan beti da Jauna zuzen ari ,
Beren zuzena itzultzen baitu gaixoeri .

7 Emana .dio berak Moisi bere berri ,
lzraelentzat egin du ainitz miragarri .
8 Ona da Jauna eta guzien urrikari ,
Ez hasarrekor bainan bihotzen altxagarri .

9 Ez dago Hura menderen mendebereari ;
Ez, auzi-gose, noiz eta nota gauzak xuri .
10 Gaizkien arau ez zaiku Jaunanehoiz ari ,
Ez eta ere hobenen arau lotzen guri .

11 Zenbatez baita zerua nausi lur zolari ,
Hala guretzat Jainko bihotza nausi ari .
12 Bi zeru aldek ezin neholazjo elgarri
Gure hobenak gutarik urrunHak ezarri .

II

13 NOLA BAITIO aitak behatzen semeari
Hala da JaunaJainkozaleen urrikari .
14 Badaki berak hezurrez hezur gure berri :
Ezagutzen du gu jitez garen errauts hori.

15 Gizon biziak uda-belarra zoin iduri ,
Pentze loreen pareko lore sortzen hari .
16 Aizea heldu eta lorea histen ari :
Zagon tokia nihori nihun ez ageri

17 Jainkozalentzat Jainko bihotza ezin neurri :
Betieretikbetierean miresgarri .
18 0n deigiote heien semeen semeeri ,
Balinbazaizko josiak eta zuzen ari .

19 Zeruetan du bere AlkiaJaunak jarri ,
Handik errege manatzen dio Munduari .
20 Eskerrak eman, goi-Aingeruek, Jainkoari,
Haren manuen entzule eta mezulari .
21 Eskerrak eman., zeru-armadek, Jainkoari ,
Haren nahien egile eta zerbitzari .

22 Eskerrak, mundu zabalekoek, Jainkoari ,
Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari

## 103

1 ESKERRAK EMAN, nere arima, Jainkoari :
Handi zare Zu handi, Jainkoa, izigarri .
2. Dena dirdira edertasuna duzu jauntzi ,
Argi zabalaz inguratua zare bizi .

3 Oihal urdinez duzu gain hartan Zuk egoitza,
Lanoez gora baizik zurekin ezin goza .
4 Zuk hedoi beltzak zaldi karroa, karro gaitza,
Haize-hegalen gainen gainean bazabiltza .
(5) Aize zaluez duzu zabaltzen zure hitza ,
Suaren garraz badakizu noiz nola mintza .

6 Zuk duzu lurra hor zzarria den bezala ,
Menderen mende egonen baita beti kola .
7 Zeruko urakharen gainean zer oihala ,
Mendi gainetan denak bildurik badaudela .

8 Zu larderian adituz.ihes egin dute :
Zure karraskek ikarak eman diozkate .
(9) Mendiek goiti, ibarrek beiti egin dute ,
Oro Jainkoak nahi heinean izan arte .
10 Beren neurria ureri eman diozute ,
Ez dezan berritz ur-eremuak lurra bete .

11 Mendi-tartetik iturburuenur bizia
Zuk manaturik xirripakari da jauzia
12 Hola badute abre guziek edaria,
Pottokek ere nun nola eztiegarria.
(13) ondoetan dute xoriek bil tokia,
Zuhaitz artetik baitoa heien tiruria

II

14 ZERUKO UREZ ditutzu maldak ureztatzen,
Zure fruituak lur zabalean sor ditezen .
15 Abren hazteko Zuri esker da belar sortzen
Eta landere gizonek ere jan dezaten .

16 Lurretik zaiku heldu bai ogibai artoa
gizonen bihotz pizgarri den arnoa :
17 Begitartea argitzen duen olioa ,
Gizon bihotza berritzen duen jatekoa .

18 Zuhai tz handiek badute segur nun zer edan,
Zedroek ere Liban-mendiko gain-gainetan .
19 Xoriek dute ohantzerIoa heien baitan,
Hegaztin gaitzek beren geriza zuhaitz hoitan.
(20)Orkatz arinak daudezke mendi kaskoetan ,
Azkonak aldiz harri ziloen azpietan .

21 Urte neurtzaile Zuk egin duzu ilargia ;
Sartu artean Zuk dabilazuiduzkia .
22 Ilunbeekin huna nun gaua den hasia
Eta jalgitzen oihanetarik ihizia .
(23) Lehoikumeek gosez daukaten garrasia !
Jaunari dute galdetzen beren hazkurria .

24 Argia berritz hasi orduko hek itzultzen ,
Lo egiteko beren ziloan sar ditezen .
25 Aldiz gizona egitekorat ateratzen ,

Arratseraino bere lanean ar dadien .

III

26 ZOIN DIREN nasai zure egintzak, Jainko Jauna
Zuhurki duzu mundu guzia Zuk egina .
27 Zuk egin hoitaz lurra betea dago dena ;
Zoin diren nasai zure egintzak, Jainko Jauna!

28 Hutia itsaso den izaiterik zabalena ,
Handi bai ttipi baita bil nasai hor arraina.
29 Badabil ere hor itsas-untzi zer andana !
Hor ereinsuge Zuk irringarri daukazuna .

30 Guziak oro mundu guzitik daude Zuri :
Eman dezazun behar orduan Zuk ianari .
31 Guziak dire Zuk eman horren biltzen ari,
Zabaltzen duzun eskutik denek indar berri.

32 Begitartea Zuk gordetzean denen Iotsa
Zuk hatsa kenduz heien gorputza zer errautsa!
33 Berpizten dire Zuk igortzean zure hatsa
Eta betbetan berritua da mundu hitsa .

34 Jainko Jaunari betiereko Iaudorio ,
32Moldatu hoitan duela beti bozkario
35 Harek so-eta lurra ikaran dagokio ;
Harek mendirik unkitzen badu ke darro.

36 Bizi naizeno kantuz nagola Jainkoari ;
Hatsik dutano Jaunari naiz ni Salmolari .
37 Nik diotana izan bekio Iaketgarri ;
Jainkoa baitan duket nik beti boz-iturri.

38 Izan dadila lurra gaixtoez arrunt garbi ;
Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari .
(39)Ospe Aitari, gizon egin den Semeari ,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari .

## 104

1 JAUNARI KANTA, gora kanta :
Haren izena zeru lurretan handi boita .
2 Herriak oro dei, bil-eta
Jaunak eginak aipatuz egin denek becta .

3 Bai kantu Hari, soinu Hari :
Erran zoin diren Haren egintzak miragarri .
4 Haren izena boz-iturri
Jaunaren bila ibilki diren bihotzeri .

5 Gure jainkoak zer ahala :
Haren zeruko begitartea denek bila .
6 «Orroit zaitezte zor bezala
Miragarriak nasaiki egin dauzkigula .

7 «Abraham seme garelako ,
Jakobtar eta haren gizonak baigitzaizko,
8 Guk Jauna bera dugu Jainko ;
Haren erranak on ere mundu guzirako .

9 Eztu ahanzten batasuna
Menderen mende betierekotz dirauena
10 Abrahameri hitzemana

Izaakerigoraki dio zin egina .

11 Behin betiko hitza hori,
Betierekobatasun baitu hori jarri .
12 "Nik Kanaango lurrak zuri :
Menderen mende zaitut lur hortan jaun ezarri"

13 Jauna bazagon heien aide ,
Guti baitziren, lurrean arrotz, indar gabe ;
14 Bazabiltzano jendez-jende
Herri batetik bertze baterat bidez-bide .

15 Nehork ez ditu hek ausiki,
Heientzat baitu errege frango jo garrazki .
16 Nik hautatuak ezin unki :
Nork, nere diren fededuneri egin gaizki

II

17 HARA LURREAN gosetea :
Ogirik gabe, indarrik gabe zen jendea
18 Izan zezaten zaintzalea
Jasan du Josep, anaiek salduz urruntzea .

19 "Estekan zuten preso eman,
Burdin gateak zango-lepoen inguruan .
20 "Jainkoak, lehen, ametsetan
Erranak oro gertatu ziren azkenean .

21 "Libra-eguna zen etorri :
Errer jaunak etzion utzideus iokarri .
22 Etxean zuen jaun ezarri ,
Bere ontasun guzi guzien nausi jarri .

23 D•enen jaun zen hor Josep izan ,
Hango jaun eta nausiak oro molda zitzan .
24 Sartu zen Jakob Ejiptoan,
Hebre*r Jakob Kham-tar jendeen lurrerat joan.

25 Emendatu zen Hebrearra :
Etsaiek baino geiago harek zer indarra !
26 Etsaietan zen piztu herra
Eta hasi zen azpitik heien joko tzarra

27 Jaunak zioten egun hoitan
Mois igorri Aaron-ekin, libra zitzan .
28 Egin zituzten biek betan
Miragarriak, mirakuiluak Ejiptoan .

III

29 EMAN ZITUEN ilunbetan
Bainan aiherka egon zitzaizkon beren hartan .
30 "Ibaiak odol egitean
Heien arrainakhil ziozkaten ur barnean .

31 "'gel nasaiez Iurrak oro
Bete zituen Erregearen gelaraino .
32 Gero zer-nahi uli lano
Igorri zuen irestekorik izan zeno .

33 Bota zioten ximixt, harri
Su karrasketan, bazter guzien izigarri.
34 Mahastieri, zuhaitzeri
Larrutzeraino, xehatzeraino zen jazarri.

35 Hak hitz bat eta burrustaka

Ottiak ziren etorri mila ta milaka.
36 Belar guziak kriski-kraska,
Fruitu guziak egin zituzten beren bazka.

37 Premuak oro jo zituen,
Heien gizonen lore Iorea gal zadien.
38 Izraeldarrak hek joan ziren,
Dena urre joan : hoitan nihor ez jorik etzen.

IV

39 HEK URRUNTZEAN denak boztu,
lzraeldarren- ikara baitzenhoitan sartu.
40 Bidean lanoz .gorde ditu
Bai eta gauaz, ikus zezaten, suz argitu.

41 Kallak daizkote jauts-arazi
Eta zeruko ogiaz ditu denak hazi.
42 Harrokak ditu tanpez hauts;
Eta mortuan urak ibaika badoatzi.

43 Jaunak eztu jan eman hitza,
Abraham-eri berak egina zen agintza.
44 Bozkariotan deramatza,
Heiek Ioriaz baitute kantu eta dantza.
45 Bertzen lurretan eman ditu,
Arrotz-herrien ontasun gaitzez aberastu.
46 Bere Legean nahi baitu
ditezen dena esker-on eta kantu

## 105

1 JAUNARI KANTA ona baita,
Amodioa betiko baitu betikoa.
2 Harek eginak nola kanta ?
Nola jauzaraz Hari zor ospe gaitzekoa ?

3 Dohatsu Hari darraikona,
Ibilki dena zuzen bidean egun oroz.
4 Orroit zaite ba nitaz, Jauna,
Zure fededun jende maiteen amodioz.

5 Etor zakizkit, Jauna , lagun,
Zure gizonen bozkarioaz nadin goza.
6 Zure jendekin zaitan egun
Duten zorion, duten loriaz pitz bihotza.

II

7 AITAK IDURI makur bizi,
Zuri dautzugu egin bekatu, egin uko.
8 Arrunt hotz ditu aitak utzi
Zuk Ejiptoan eginak heien libratzeko.

9 Ongi nasaiak ahantzirik,
Itsas gorrian Jaunari aiher jeiki ziren.
10 Salbatu ditu bere gatik,
Etsai-jendeek bere indarren berri duten.

11 Itsasoari manaturik,
Uhain artetik zangoak idor joan zituen.
12 Salbatu ditu bertzetarik,
Etsai guzien aztaparretik jalgi ziten.

13 Urek etsaiak joan zaizkoten,
Guzietarik ez baitzen ere bat gelditu.
14 Hartan sinesteizan zuten
Eta goreskaegin zioten esker-kantu.

15 Ahantzi dute laster hori :
Ez zaizko egon Jainkoak erran zuenari.
16 Lehengo gauzen gos-egarri,
Aihertu zaizko basa-mortuan Jainkoari.

17 Eman diote nahikoa,
Bainan haatik sukarra ere bihotzetan .
18 Hetan piztu zen bekaizgoa
Mois, Aaronsainduen kontra mortu hartan.

19 iretsi zuen Iurrak Dathan
Eta beretu Abiron-tarrak sekulako.
20 Sua sartu zen heien baitan,
Bere kar beltzaz gizon makurren erretzeko.

III

21 "URREZ MOLDATU aratxea
Zuten Horeben ahuspez Jainko ezagutu.
22 Hau gizonentzat ahalgea :
Belar jalea Jaunaren orde zuten hartu.

23 Ahantzi zuten Jainko Jauna
Eta heientzat Harek eginak Ejiptoan.
24 Ahantzi, hantxet iragana
Eta gaitzeko miragarriak itsasoan.

25 Jaunak zituen xahutuko,
Ez balu Mois Haren gizonak egin oihu.
26 Hura jarri zen ararteko,
Ez zitzan Jaunakhasarrez, otoi! denak xahu.

27 Jaunak hitzemangozo-lurra
Heientzat ezdeus, Harek erranen gatik ere.
28 Heiek gordekazer marmara !
Haren bozari bihotzez gogor egon dire.

29 Eskua gora zin egin du
Basa-mortuan zituela hek apalduko;
30 Barreiatuko munduz-mundu
Eta bertzekin erresumetannahasiko.

31 Pegorko Baal hartuz jainko,
Jan dute gostuz jainko hileri eskainia.
32 Okaztagarri egin zaizko :
Bota diote izurrite bat lazgarria.

33 Bainan Pineezboita jeiki,
Harek denak jo eta zauriagelditu zen.
34 Horrek Jainkoa zuen unki
Menderen mende sekulako du saristatzen.

35 Meriban berritz Jauna sutu,
Hango uretan heiek Moisi zer kaltea !
36 Hor ezpainetikutzi baitu,
Kexuz jauzterat Jaunari laidozen elea.

IV

37 EZ ZUTEN HEIEK xahu egin
Jaun Zerukoak xeha manatu jendaieri.

38 Nahastekatuz horiekin,
Ikasi zuten berak bizitzen hek iduri.

39 Beren kaltetan egon ziren,
Jendai horien jainko molderi ahuspeka ;
40 Seme-alabak baitzituzten
Heien aldare gainetan egin debru-bazka.

41 Hoben gabea zen odola,
Seme-alaben odola zuten hor ixuri.
42 Basa-jainkoer ariz hola
Jaunari lurra egin zioten higuingarri.

43 Egin guziez arrunt zikin
Lohien Iohiz abrekeriak menstu ditu.
44 Hasarrez Jauna da su egin :
Bere jendea, bere hourra du okaztatu.

45 Jendaien pekoegin ditu ;
Heien hastioz bazabiltzanak: heien nausi.
46 Eta etsaiek hek zapatu,
Atsegabetan barna baitire barna jautsi.

V

47 JAUNAK MAIZ DITU, maiz libratu;
Bainan hek berritz beti barnago gaizkiratu.
48 "Heien minez da urrikaldu,
Entzun baititu otoitz egiten eta oihu.

49 Bere zauzkala zen orroitu;
Urrikaldu zen bere gaitzeko bihotz hartan.
50 Etsai-nausiak unki ditu,
Bere bihotz on hartarik piztuz heien baitan.

51 Salba gaitzazu, Jainko Jauna,
Bertze jendaien artetik oro baterat bil :
52 Dugun goraipa Jaun izena,
Gaiten gogotik Hari goreskakantuz ibil.

53 Izraeldarren Jainkoari
Menderen mende, bai esker eta bai goresmen!
54 Eta zerurat oihuz ari
Jende guziak betan diola : Amen ! Amen !

## 106

2 EGIN BEZATE Jaunak zainduek Hari kantu
Harek baititu etsaien petik eskuz hartu.
3 Barreiatuak zabiltzan eta Jaunak ditu
Munduko bazter guzietarik herriratu.

4 Ibilki ziren ilun ibilki mortuz mortu :
Jenden arteko biderik nihunez aurkitu.
5 Gosetu dire gosetu eta egarritu :
Heien biziak indarrak oro galdu ditu.

6 Jaunari oihu egin diote beren hartan
Eta hersturak joan diozkate hersturak joan.
7 Bide onean ditu Jainkoak berritz eman
Jenden arterat hel ahal diten azkenean.

8 ona boita denek eskerrak Jainkoari :
Gizonarentzat egin du ainitz miragarri.

9 Asetzekoa eman du gose zoanari,
Hamikatua zen arimari on-iturri .

II

10 JARRIAK ZAUDEN itzalpe eta ilunbetan:
Zorigaitz beltzak, burdin lokarriz , preso zauzkan
11 Jainko Jaunaren hitzaren kontra baitziren joan:
Etzuten -eta Hak erranari kasu eman.
12 Apaldu ditu heien bihotzak minen pean :
Erortzen ziren eta lagunik ez aldean.

13 Jaunari oihu egin diote beren hartan
Eta hersturak joan diozkate hersturak joan.
14 Ilunbetarik Jainkoak ditu hek atera,
Estekak oro berak hautsirik diten aira.

15 Bai ona boita denek eskerrak Jainkoari,
Gizonarentzat egin du ainitz miragarri.
16 Kobrezko ate izigarriak ditu hautsi,
Gaitzeko burdin hagak ere bai kraskarazi.

17 ERI BAZAUDEN, gaizkien gatik arrunt eri :
Hobenez hoben behera ziren hek erori.
18 Etzezaketen geiago jasandeus janari :
Heriotzeko atetaraino ziren ari.

19 Jaunari oihu egin diote beren hartan
Eta hersturak joan diozkate, hersturak joan.
20 Bere hitza du Jaunak igorri senda zitzan,
Harek Ieizetik airarazirik xut zabiltzan.

21 Bai ona baita denek eskerrak Jainkoari :
Gizonarentzat egin du ainitz miragarri.
22 Eskerrak eman, eskaintzak egin denek Hari :
Harek eginak guziek aipa, kantuz ari.

IV

23 ITSAS UNTZITAN ibilki ziren itsasoan,
Uhainez uhain sal-erospenka baitziren joan.
24 Jaunaren lana ikusi dute agerian,
Ikusi Haren miragarriak uhainetan.

25 Hak hitz bat eta heien gainerat zer galerna,
Itsas-uhainak bet-betan goiti zabiltzana.
26 Bai zeruraino, bai urperaino barnez barna,
Bazabiltzan hor arima joana, minak fana.

27 Mozkorren pare andarkan eta itzulikan :
Izialdurak ezjakin eta mutu zauzkan.

28 Jaunari oihu egin diote beren hartan
Eta hersturak joan diozkate hersturak joan .

29 Galerna zuen ixiltzeraino arrunt hezi
Eta betbetan itsas-uhainak maltso utzi .
30 Piztu ziren bai ez baitzen zertaz orai izi ;
Nahi portuan Jaunak zituen sar-arazi .

31 Bai ona boita denek eskerrak Jainkoari :
Gizonarentzai egin du ainitz miragarri .
32 Guzi guziek biltzar handian kantu Hari :
Herriko jaunek eman bezate Haren berri .

V

33 UR-EREMUA egin du Jaunak basamortu ,
Iturburuak dire lur idor bilakatu .
34 Fruitudun Iurrak lur gazituak egin ditu ,
Egoiliarrek egin baitzuten hor bekatu .

35 Basa-mortua egin du-aldizur-eremu
Eta ur gabe zen lur idorra iturburu .
36 Egarrituak toki hoitarat bildu ditu ,
Jendez betekohiria boita hor altxatu .

37 Hazi ereiten, mahats Iandatzen dire Iotu
Eta izan da gaitzeko uzta eta fruitu .
38 Lagundu ditu eta handizki emendatu ;
Heien lurretan artalde gaitzak eman ditu .

39 GUTITU ZIREN eta bazoatzin buruz apal ,
Ez beren gaitzak, ez beren minak jasan ahal.
40 Heien nausiak Jaunak ahalgez nahiz estai ,.
Nahasi ditu mortuan diten heiekin gal .

41 Dohakabeak atsegabetik kendu ditu :
Artalden pare jendeak ditu emendatu .
42 Bihotz garbiek ikusi-eta bozik kantu ;
Gezurtzaleak, gaizkizaleak oro muta .

43 Zuhur direnek hoik oro ikusditzatela ;
Jaunak bihotza zoin duen ona, zoin zabala .
(44)0spe Aitari gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari .

## 107

1 DENA ZURI DUT, Jainko Jauna,
Nere bihotza dena Zuri .
2 Zuri nago ni Zuri dena
Bai kantuz eta soinuz ari .
3 Pitz arima, pitz xirulari :
Kanta-zak argi hasteari .

4 Zuri goreska dener noa,
Zuri soinu joz herriz-herri .
5 Zeruetarik goragoa :
Zure bihotza ezin neurri .
(5) Hedoietarik goragoa :
Zure egiagoresgarri .
6 Ager zerutik, Jaun Goikoa :
Zure ospea pitz lurrari .

II

7 ZURE MAITEAK beldurrik gabe diten bizi,
Gu entzun eta zure eskuaz gu begira .
8 Tenplotik Jaunak:" Heldu naiz heldu : Kantu ! Jauzi !
Hartuko dut nik bai Zikhem eta Zukoth lurra.

9 Galaad eta Manaze Iurrak nere dauzi:
Juda dut alki eta Efraim dut indarra .
10 Nere zangoen garbitzeko dut Moab untzi ;
Nausi joanen naiz Filist-herrira, Edom-era"

11 Ni nork joanen nau gaitzeko etsai- hiriraino?
Ni nork ioanen nau, Edom-herrian nausi nadin?
12 Bai Zuk, Jauna, Zuk: ai! ez gu otoi! utz oraino:
Ez ote zare jauziko berritz armadekin ?

13 Etsaien kontra guri, Jainkoa, eman indar :

Gizon Iaguntza egun ba eta deus-ez bihar .
14 Jainkoa Iagun, aise gaitezke bertzer jazar :
Harek ditu bai gure etsaiak eho behar .

## 108

1 NIK ZURI KANTU; Jauna, ez egon otoi! mutu,
Nitarat hustu tzarren agoak nahi baitu .
2 Mintzatu zaizkit: heien mihianzer gezurra !
Urririk etsai, ibilki zaizkit dena herra .

3 Nik moite ditut: heiek ni belzten, heiek auzi :
Heientzat beti otoitz eginez naiz ni bizi .
4 Ongien sari, egiten dautet heiek kalte :
Hastio naute, baititut beti denak moite.

II

5 HARI OLDARKA den gaixtoena xuti-araz:
Beltzaraz zazu beltzailearenlarderiaz .
6 Auzitegitik beltz dadiela beltz citera
Eta ez onhar haren otoitzen heiagora .

7 Haren biziak iraun dezala egun guti ;
Doakiola duen kargua bertze bati .
8 Haren semeekgal dezatela aita zena,
Haren andrea izan dadien alarguna .

9 Doazkiola haurrak herrestan ogi bila ;
Errekaratu etxetik bota ditzatelu.
10 Xurga dezola diru-gizonak ontasuna ;
Betikotz irets arrotz-jendeek haren lana .

11 Ez dezola ez nihork erakuts bihotz ona,
Ez eta ezti umezurtz semek duten mina .
12 Akabo bedi haren etxea, bai akabo :
Izena ere oraikoekin hil bekio .

13 Aiten hobenaz izan dadila kargatua ;
Bere duela bere arnaren bekatua
12 Dauzkala beti Jaun Zerukoak aintzinean ,
Heien izena lurretik arrunt idok dezan .

15 Etzuen-eta min zutenentzat deus bihotzik
Bazoan nolaz dohakabeak utz hil-hotzik.
16 Madarikatzen maite baitzuen: sar bekio !
Deus graziarik etzuen nahi : beraz bego !

17 Bere soinean madarikua jauntzi dauka:
Sar dakiola hezurrez hezur xirrixtaka
18 Hori duels bere soinaren jaunztekoa ,
Hori duela bere betiko gerrikoa .

III

19 JAUNAK ETSAIER, berek dioten kalte hori;
Nere ariniaz gaizki mintzailer hori sari .
20 Zu aldiz etor, ager nor den nor jaunen Jauna :
Erakuts, otoi ! zure betiko bihotz ona .

21 Ez-deus naiz arrunt, ez-deus naiz eta dohakabe,
Bihotza baitut dena min eta nahigabe .
22 Iluntzerako itzalen pare- hilez noa
Ottien pare zanpa-zanpaka naute joa .

23 Zango belaunak daldaran dauzkat, beti barur;
Gorputz guzia gosez egarriz dena zimur .

24 Denek naukate bai irri trufa, bai erdeinu :
lragaitean egiten dute buruz keinu .

25 Lagun nezazu, nere Jainkoa , nere Jauna :
Erakuts nerizure betiko bihotz ona .
26 Jakin bezate : Zu zarela Zu hortan ari,
Zure eskua dela, Jainkoa, hor ageri .

27 Heiek naute ni madarikatzen, Zuk, Iaguntzen :
Gal beite tzarrak, bai eta ni pitz nota lehen .
28 Belzten nautenak ahalge gorriz bezti-araz,
Estai ditezen ahalgearen soinekoaz .

29 Eskerrak eta esker-kantuak Jainkoari :
Emanen diot jenden-artean kantu berri .
30 Baitagokio denek utzia dutenari,
Auzi egilen aztaparretik zaintzen ari .

## 109

1 NERE JAUNARI Jaunak dio :"Jar eskuinean,
Nik eman arte Zuri efsaiak zango pean ".
2 Jaunak eginen Zion-dik Zu Jaun mundu huntan:
Etsai ditutzun jenden erdian Zu Jaun izan .

3 Jaun zare sortzez piztu baitzare zeruetan :
Argitu-aintzin sortua zaitut Nere baitan ".
4 Zin egina du Jainkoak eta behingoan :
"Apez zare Zu Melkizedek-en araberan" .

5 Bidean Jauna badabilk.izu eskuinean .
Erregeak joz hasarrearen egunean .
6 Erresumetan emanen ditu hilak metan,
Buruak ditu xehakaturen bazterretan .

7 Edaten baitu bide ondoko ur-errekan :
Horra zergatik beti burua gora daukan.
(8) Ospe Aitari gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari .

## 110

1 AIPATUKO DUT Jainkoa bihotz bihotzetik,
Gizon zuzenen biltzarretan .
2 Jaunaren obrek ez dute nihun deus parerik :
Goza gaitezen heien baitan .

3. Zoin eder eta zoin ikusgarri Haren lana !
Zuzena Jauna sekulakotz .
4 Mirakuiluen orroit-garri bat du emana:
Gure Jainkoa dena bihotz .

5 Jainkozaleri emaiten dauku jatekoa ,
Gurekin bat da betiere .
6 Indar gaitzean zabaldu dauku maiz besoa ,
Bertzen herriak diten gure .

7 Haren egintzak bai osoki on eta zuzen;
Harek errana betikotz da .
8 Menderen mende osoki berdin du irauten,
Deusek ez nehork ezin alda .

9 Betikoa du. gurekilako batasuna :
Saindu Saindua du izena .
10 Jainko beldurra zuhurtziaren hastapena :
Nundik ez aipa beti Jauna ?

## 111

1 BAI DOHATSUA Jaunaren beldur den gizona ,
Haren nahian goza gozatuz dabilana .
2 Semeak azkar izanen ditu mundu huntan ;
Zuzenen haurrak Jainko Jaunaren eskuetan .

3 Haren etxean bada ontasun, gozotasun,
Haren barneko argia deusek ezin ilun .
4 Ilunbetan du zuzenen argi dirdiratzen ,
Hain baita ezti bihotz oneko eta zuzen .

5 Denentzat badu bai ele ona, bai Iaguntza,
Dauzkanak oro zuzenkienik badabiltza .
6 Ezta sekulan lerratu etaeroriko ;
Gizon zuzena aipatua dasekulako .

7 Ez berri beltzen beldurrik nehoiz pizten hari ;
Haren bihotza osoki dago Jainkoari .
8 Bihotza dauka bakean eta beldur gobe,
Bere etsaiak ahalgetuak ikus arte .

9 Behartsuentzat badu Iaguntza, badu argi ;
Kopeta gora agertuko da lorioski .
10 Gizon makurra ihartuko da herra minez ;
Gizon makurren lehia beltzak indarrik ez .

## 112

1 JAUNAREN HAURREK, aipa Jauna,
Aipa kartsuki Jaun izena .
2 Jaun izenari agur, ospe !
Bai orai eta betiere .

3 Argi sortzetik gaueraino
Jaun izenari Iaudorio !
4 Jendez gorago da Jainkoa,
Zeruaz ere goragoa .

5 Nor da munduan nola Jauna,
Zeru-lurren Jaun 6so dagona .
6 Dohakabea du altxatzen,
Errauts zakotik argiratzen

7 Jaun handietan ezar dezan,
Bere herriko handietan.
8 Haur gabeari pizten dio
Semen artean bozkario.

## 113

1 JOAN DIRENEAN Izraeldarrak Ejiptotik,
Jakob semeakatz-herritik.
2 Judan egin du beretzat Jaunak toki sa indu,
Izrael bere hautetsi du.

3 Ikus orduko ihesi joan daitsasoa,
Jordan ibaia goiti doa.
4 Mendi buruak marroen pare jauzi-mauzi,
Gainek ere baibildots-jauzi.

5 Zerk ote zaitu zerk itsasoa,joan-arazi ?
Jordan, zergatik goiti zoazi ?
6 Mendi buruek, zergat.ik egin jauzi-mauzi ?

Gainek, zergatik bildots-jauzi ?

7 Jainko Jaunari daldaran zaizko lurrak ari,
Jakob semeen Jainkoari.
8 Ur nasai baitu Hak jauz-arazten harriz-harri,
Harroketarik Hak iturri.

II

9 EZ GURI, JAUNA, ez eman, Jauna, ospe guri,
Bainan bai zure izenari.
10 Bertze jendeek ez dezatela gutaz galda :
"Heien Jainkoa nun ote da" ?

11 Gure Jainkoak zeru-zerutik zaintzen gaitu,
Nahi guzia egiten du.
12 Heiek jainkoak urre dituzte, urre zilar,
Gizonek egin esku-lan txar.

13 Badituzte bai agoak, bainan ezin mintza,
Begiak, bainan ezin beha.
14 Beharriak bai, eta nehola ezin adi,
Sudurrak eta ezin sendi.

15 Badituzte bai eskuak, bainan ezin unki,
Zangoak, bainan ez ibilki.
16 Bai egileak, bai dagotzinak horieri
Guzi guziak hek iduri.

III

17 IZRAELDARRAK, egon osoki Jainkoari :
Harek laguntza, Harek esku.
18 Aarondarrak, egon osoki Jainkoari :
Harek laguntza, Harek esku.

19 Jainkozaleak, egon osoki Jainkoari :
Harek laguntza, Harek esku.
20 Jainkoa guri maiteki orroit ari zaiku,
Emanen dauku beti esku.

21 Esku emanen Izraeldarren etxeari,
Aarondarren etxeari.
22 Esku emanen Jaunari dauden guzieri,
Ttipi ditezen edo handi.

23 Zueri Jaunak eman dezala on iturri,
Zueri etc bai semeri.
24 Zueri Jaunak bai ontasunak bai indarrak,
Egin baititu zeru-lurrak.

25 Zeru zerua osokian da Jaunarena,
Lurra gizoner du emana.
26 direnek ezin Jaunari ezin kanta,
Ixil tokirat jautsi-eta.

27 Bizi garenek Jaunari kanta zeru alde,
Bai orai eta mendez-mende.
(28) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 114

1 MAITE DUT JAUNAentzun baitu
Nik dudanean minki deitu.
2 Nere galdeak hartu ditu,
Nik egitean oihu kantu.

3 Hor zen orroaz herioa ,
Hor dena sore ifernua.
4 Galdua nintzen ezindua,
Oihu egin dut :"Hel, Jainkoa!"

5 0n eta zuzendugu Jauna:
Jaunak betiko bihotz ona.
6 Begiratzen du den xumena:
Kendu daut harek nuen mina.

7 Nere arima, bakean sar,
Eman baitauku Jaunak indar.
8 Harek hiltzetik jali gaitu,
Begiak boztu, oinak piztu.

9 Ibiliko naiz Jauna baitan
Bizi direnen bizi huntan.
10 Ospe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari

## 115

1 BADUT SINESTE nahiz nion :
Ezin dut ezin iasan hori".
2 Erran dut, minez bainindagon:
"Gizonak dena maltzurkeri".

3 Zer dut Jaunari bihurtuko
Hainbertze baitaut eman neri ?
4 Zeru-kalitza dut hartuko,
Jaun izenari kantuz ari.
(5) Nik zer eskerrak Jainkoari !
Jaunaren haurrak, bil kantari.

6 Mainkoarentzat gauza gaitza
Bere sainduen heriotza.
7 Zuri naiz, Jauna, dena Zuri,
Ez dut orai nik deus Iokarri.

8 Nik zor eskerrak sarri Zuri,
Jaun izenari kantuz ari.
(9) Nik zer eskerrak Jainkoari !
Jaunaren haurrak bil kantari.
10 Jainkoarena den etxean,
Jerusaleme bihotzean.

## 116

1 AIPA ZAZUE, jende guziek, Jainko Jauna,
Herri guziek, erran goraki zoin den ona.
2 Guretzat duen amodioa betikoa :
Haren egia menderen mende nausi doa.

## 117

1 JAUNARI KANTA, ona baita,
Amodioa betiko baitu betikoa.
2 Izraeldarrek gora kanta :

"Amodioa betikoa du betikoa".

3 Aarondarrek, gora kanta :
"Amodioa betikoa du betikoa".
4 Jainkozaleek, gora kanta :
"Amodioa betikoa du betikoa".

5 Jaunari diot dei egina :
lhardetsi daut bai eta kendu nuen mina.
6 Nere alde dut Jainko Jauna :
Ez dut beldurrik: neretzat orai deus gizona.
(6') Nere aide dut Jainko Jauna:
Nere alde dut: etsaiek sarri zer ezina.

7 Zenbatez hobe Jauna baitan
Bere fidantza gizonen baitan eman baino.
8 Zenbatez hobe Jauna baitan
Bere fidantza jaun handietan eman baino.

II

9 JENDAIEK NAUTE inguratu :
Jaun izenaren indarrez ditut xehakatu.
10 Lau aldetarik zaizkit sartu :
Jaun izenaren indarrez ditut xehakatu.
11 Erlek bezala naute hartu :
Jaun izenaren indarrez ditut xehakatu.
12 Suak lapar hoik erre ditu :
Jaun izenaren indarrez ditut xehakatu.

13 Oldartu zaizkit, bai oldartu :
Erortzer nintzen, bainan Jainkoak ni lagundu.
14 Jauna dut indar, Jauna kantu :
Harenganik dut behar orduan salbamendu.
15 Orai irrintzin, esker-oihu,
Gizon zuzenak dauden etxetan jauzi, soinu.

16 Jainko-eskua esku gaitza :
Jainko-eskuak, esku azkarrak zer laguntza !
17 Joan zait hiltzeko oren beltza :
Biziko naiz bai, Jaunak eginez nadin mintza.
18 Neretzat Jauna bai garratza,
Garratza bainan urrundua daut heriotza.

III

19 ATE SAINDUAK zabal neri,
Hetan sarturik, Jaunari dudan egin kantu.
20 Jainko-atea da bai hori,
Gizon zuzenek behar baitute hartan sartu.

21 Esker on eta kantu Zuri :
Entzun bainauzu bai eta eman salbamendu.

22 Egilek utzi harri hori
Bilakatu da denak datxizkan ezkin-harri.
23 Jainko Jaunak du hau egina,
Gure begien, gure bihotzen miragarri.
24 Hau da eguna Jaunarena,
Pitz eta kanta : zer zoriona ! zer eguna !

25 Oi, Jauna, izan salbagarri !
Oi, Jauna, eman ontasun, indar eta sari !
26 Ongi-etorri ! Agur Zuri !
Jaun izenean heldu denari, on-iturri !
27 Jainko etxetik on-iturri :
Jainko da Jauna, iguzki zaiku Jauna guri.

28 Aldaskak goiti etor oro,
Aldarearen ingururaino, lerro-lerro.
29 Zu zaitut Jainko, kantuz nago :
Zuri esker on, goresmen eta laudorio !
30 Jaunari kanta, ona baita :
Amodioa betikoa du betikoa.

# 118

1 DOHATSU BIDE garbi garbian ari dena,
Jainko legean dabilana.
2 Dohatsu Jaunak manatueri jartzen'dena,
Bihotzez bila doakona .

3 Badaki harek gaizkia beti gaizki dela :
Jainko bidetan badabila .
4 Zuk dauzkigutzu manamenduak guri eman,
Osoki gaiten ibil hoitan .

5 Nere bideak agian zuzen doatzila ,
Legeari jar nundik nola.
6 Horiek hola ez dut izanen deus ahalke,
Zure legeri so nagoke.

7 Zuri eskerrak emanen ditut bihotzean,
Zure manuak jakitean .
8 Zuk erraneri, Zuk nahieri naiz jarriko :
Otoi! ez ni utz sekulako .

II

9 GAZTEA NOLA bere bidean egon garbi?
Zure hitzari jarraik bedi .
10 Bihotz guziaz bila ta bila noakizu:
Legen uztetik zain nezazu .

11 Bihotz barnean gorderik daukat zure hitza:
Zu laidotzetik urrun neza.
12 Hoin baitzare zu, Jaun on eta goresgarri ,
Zure nahiak aipa nerf .

13 Nik den-bezala diot ezpainez eta gora
Zure ahoak erran hura .
14 Zure bidean geiago badut bozkario ,
Urre gaitzetan nuken baino .

15 Manamenduez egon nahi dut gogoetan,
Zure bideri kasu eman .
16 Zuk diozkatzun manuak oro nerf gozo .
Zuk erranez naiz usu mintzo

III

17 ON IZAN ZAITE zure hunentzat, bizi nadin,
Zuk manatua dudan egin .
18 Zabal-zkidatzu neri begiak dudan goza
Zure legeen argi gaitza

19 Deneri arrotz lur huntan noa ni beilari .
Zure nahiak ager neri
20 Gau eta egun, nere arima minez dago :
Hoin du legea jakin gogo .

21 Kopeta gora doatzinentzat Zu hasarre,
Legetik bazter joan baitire.
22 Nitarik urrunt laidoa eta erdeinua ,
Egiten baitut manatua .

23 Lurreko jaunak neri oldarka jar ditela :
Ni Zuk nahian banabila .
24 Zure nahia ezinago zait gozogarri,

Zure legea dut bidari .

IV

25 NERE ARIMA lur-errautsean dagokizu:
Erran bezala berpitz-azu .
26 Nere bideak aitortu ditut : entzun nauzu;
Zure nahiak ager-zkitzu .

27 Ohart-araz ni zure legeen bideari,
Hartan baitzare miragarri .
28 Atsegabeez arimak nigar eta nigar
Erran bezala eman indar .

29 Gezur-bidetik jalgi nezazu behingoan :
Zure legea sar ni baitan .
30 Egia-bidegarbiari naiz funski jarri :
Zure nahiez naiz egarri .

31 Zure legeri tinka josianago tinka ;
Ez nadila gal, ez ahalka .
32 Zure manuen bidean orai laster noa ,
Nain dut bihotza zabaldua .

33 ZURE NAHIEN bidea erran nundik nun den,
Hartan artoski bainaiz joanen .
34 Argi nezazu, zure legean sartu arte
Bihotz guziaz dudan bete .

35 Zure manuen bidean, Jauna, ibil-araz
Goza gozatzen bainaiz hetaz .
36 Zure nahirat bekit bihotza itzul aise :
Ez bekit izan diru-gose .

37 Begiak bazter ez doazkitan ez-deus bila,
Zure bideak pitz nezala .
38 Zuri osoki bainaiz egoki, eman, Jauna ,
Jainkozaleri hitz-emana .

39 Nitarik urrunt hain lotsa naukan ahalgea:
Bozgarri daukat nik legea
40Zuzen baitzare, zure manuez naiz egarri :
Hetarik eman bizi neri .

VI

41 NITARAT IXUR zure betiko bihotz ona :
Laguntza duzu hitz-emana.
42 Botako dut nik laidotzaileri zure hitza :
Hartan osoki dut bihotza.

43 Zure egianere ahotik ez, otoi! ken,
Zure hitzeri naiz fidatzen .
44 Zure legean gau eta egun naiz biziko
Betiko eta sekulako .

45 Nere bidea ezar trabarik gabekoa ,
Manueri so ni banoa .
46 Zure legea aipatuko dut erregeri :
Nork egin ote beldur neri ?

47 Zure nahiak zenbat zaizkitan neri gozo !
Heientzat badut amodio .
48 Nere eskuak manuen maitez Zuri daude :
Zure nahiak ditut bide .

VII

49 EZ AHANTZ, JAUNA,Zuk zure huni eman hitza:
Geroztik argi dut bihotza .
50 Nere minetan hauxe zait neri altxagarri
Zure hitza dut boz-iturri .

51 Buru harroek trufatzen naute, zoin itsuski :
Legetik ez naiz makur joaki .
52 Gogoan ditut zure lehengo zuzen-hitzak :
Heiek argitzen oren beltzak .

53 G izon makurrez pizten zait pizten hasarrea,
Uzten baitute maiz legea .
54 Zure nahiak kantari dauzkat nere baitan ,
Beilari noan toki huntan .

55 Zure izenaz gauez-gau orroit dut gogoa:
Zure legea betez noa .
56 Hau da hau, Jauna, nere bizia, nork hoberik ?
Zure manuak arrunt atxik .

VIII

57 HAU DUT BIZIA, hau dut guzia bai nik, Jauna:
Egin nahi dut Zuk errana .
58 Banago zure begitarterat bihotz-deika :
Erran bezala neri barka .

59 Nere bideak norat zoatzin dut ikertu :
Zuk nahian dut oins sartu .
60 Laster nabila, eta nork ote ni gibela ?
Zuk manatuan joan nadila .

61 Gizon makurren sareek naute inguratzen :
Zure legeaz naiz orroitzen .
62 Zuri gau-erdiz esker-emaile naiz jeikitzen ,
Zuk diozuna hain da zuzen !

63 Jainkozaleak ditut gu.ziak adiskide ,
Zure legeri so baitaude .
64 Zure graziaz mundu-zabalada betea :
Erakuts neri Zuk legea .

IX

65 EMAN DAUTAZU nosaiki, Jauna, Zuk laguntza,
Atxiki duzu zure hitza .
66 Eman zadazu bai zentzu eta jakitate ,
Baitut legean nik sineste .

67 Dolutu aintzin, banindabilan gaixtoekin :
Zuk errana dutorai egin .
68 Ona baitzare bai eta ongi egilea ,
Erakats neri Zuk legea .

69 Gizon harroak ibilki zaizkit bildu nahiz :
Legeri nago bihotz guziz .
70 Heiek bihotza pisua dute nola gantza ;
Ni ezin legez aski goza .

71 Nahigabetan iragaitea on dut arras,
Zure nahia dudan ikas .
72 Zure ahoko legeak hobe du balio
Urre, zilarrez milek baino .

X

73 ZURE ESKUEK egina naute, moldatua :
Eman legean den zentzua .
74 Ni fededunek ikus orduko bozkario ,
Zure hitzari ni bainago .

75 Badakit, Jauna, zuzenez dela Zuk egina :
Zuzenki dut nik dudan mina .
76 Pizgailu bekit zure betiko bihotz ona,
Neri baituzu hitzemana .

77 Bizi nadien ixur nasaiki amodio ,
Zure legea hain dut gozo .
78 Aiher zaizkitan buru harroak hits ditela :
Ni legeri so banabila .

79 Jainkozaleak nere alderat itzul beite ,
Zuk erranak on baitauzkate .
80 Bihotza garbi noakizula legez-lege
Ez dudan izan deus ahalge .

XI

81 ZURE LAGUNTZEN egarriz daukat nik bihotza:
Nere argia zure hitza .
82 Begiak zaizkit zure hitzaren gosez histen :
Noiz ote nauzu argituren ?

83 Su-kean dagon zahagia beltz osoki beltz :
Orroit naiz betizure legez.
84 Zenbat urte dunere biziak traun behar ?
Tzarrak noiz arte utz hoin azkar ?

85 Egin dauzkitet buru harroekhil-ziloak,
Zure legeen kontrakoak .
86 Zure manuak denak egiak . Zato lagun,
Etsai--gezurra dudan bentzun .

87 Lur-errautsean beharko naute hil-hotz egin,
Zuk manatuak utzi aintzin.
88 Atxik bizirik, izan nasaiki nerezat on :
Zuk erranari jar nakion .

XII

89 BETIKO ETA betikoa da zure hitza ,
Zerua bezein higi gaitza .
90 Egia dago zure egia mendez-mende :
Zuk egin lurrak lur badaude .

91 Erran bezala, denak egoki,denak ari,
Denak ditutzu zerbitzari .
92 Zure nahian ez banintz hanbat ni gozatzen
Minez aspaldi hilen nintzen .

93 Zure nahiak ez ditut nehoiz ahantziren,
Heieri eskernaiz bizitzen .
94 Zurea naiz ni : heda ni-ganat Zuk besoa .
Zure nahienbila noa .

95 Gizon makurrak ni galdu nahiz beha daude :
Ni beti nagolegen aide .
96 Den hoberenak zerbeit izari zerbeit itzal :
Manamenduak hek zoin zabal !

XIII

97 ZURE LEGEA zoin bihotzetik maite dutan !
Egun guzian dut gogoan .
98 Zuri esker naiz etsaiak baino zuhurrago :
Zuk erranean beti nago .

99 Erakasleek baino geiago badut zentzu :
Zuk erraner sonabilazu .
100 Aintzinekoek baino geiago badut argi ,
Zuk errana zait beti ongi .

101 Gaizki bidetik nere zangoa urrun dago :
Zure hitza dut beti gozo
102 Zure legetik ez naiz sekulan ni baztertzen,
Zu erakusle noa zuzen .

103 Ahorat gozo Zuk erran hitza, gozo beti ,
Nihun eztirik ez hain ezti .
104 Zuk erraner zor, badut gogoan hedadura :
Gezur-bidentzat badut herra .

XIV

105 ZUK ERRAN HITZA urratsen argi naiz ibilki :
Bidean hura dut iguzki .
106 Zin egiten dut, nahi dut zineznik atxiki
Zuk manatua hoin zuzenki .

107 Atsegabetan naiz, Jauna, eta min dut ainitz :
Erran bezala ni berritz pitz
108 Nere ahotik, Jaun Zerukoa, har eskaintzak :
Erakuts nerf zure hitzak .

109Nere arima gau-egun daukat eskuetan.,
Zure legea aintzinean .
110 Artea dautet gizon makurrek ezarria ;
Bainan egin dut Zuk nahia

111 Manamenduak ditut betikotz ondorio,
Hek bihotzeko bozkario .
112 Nere bihotza Zuk nahiari dut emana,
Behin betikotz eta dena .

XV

113 B1HOTZ MALTZURRAK nitarik urrun egon beite,
Zure legea dut nik maite .
114 Nere geriza, nere indarra bai Zu, Jauna :
Zure hitzari nago dena .

115 Gizon makurrak, nitarik urrun joan zaitezte,
Jaunak errana dutan bete.
116 Har nezazu ni erran bezala , bizi nadin :
Hitzeman-eta ez huts egin .

117 Lagun nezazu, izanen bainaiz salbatua ,
Zuk manatura t leihatua.
118 Zure nahitik bazter daudenak deus dauzkatzu,
Hek diotenak gezur batzu

119 Zuretzat herdoil zikinkeriak gaixtaginak :
Maite ditut nik Zuk erranak .
120 Zure beldurraz ni daldaretan naiz guzia,
Hoin duzu hitza lazgarria .

XVI

121 NERE BIZIA on eta zuzen izan boita,
Zapatzaileri ez ni bota .
122 Zurea bainaiz, jar nere aide onerako,
Buru harroek ez jotzeko .

123 Begiak dauzkat Zuk noiz emanen noiz laguntza,
Noiz hain zuzen den zure hitza .
124 Erakuts neri zure betiko bihotz ona,
Erakuts ere Zuk errana.

125 Zurea naiz ni, argi sar-araz nere baitan,
Zure manuen berri dutan .
126 Ordu -da orai Zuretzat, Jauna, mugi-ordu :
Zure legea dute kendu .

127 Hargatik ditut manamenduak bihotzean :
Etzait urrea deus aldean .
128 Hargatik hautuz Zuk nahiari nagokio :
Gezur bidea dut hastio .

XVII

129 EMAN DITUTZUN manamenduak miragarri :
Hargatik naiz ni hoitan ari .
130 Zuk erran hitza entzuleentzat zer argia !
Bihotz larloen bidaria .

131 Ahoa zabal, aire hurrupan naiz ni ari :
Zure manuez naiz egarri .
132 Urrikal, Jauna, ni-ganat, otoi! itzul zaite,
Zure izena baitut malte .

133 Nere urratsak zure hitzeri. jarraik-araz,
Ez utz gaizkirik jabe nitaz .
134 Ken nezazu ni gizon makurren eskupetik ,
Zuk manatua dudan atxik .

135 Argi nezazu begitarteko argiekin,
Zure nahia dudan jakin .
136 Iduri zuten nere begiek iturria ,
Legea baitzen hain utzia .

XVIII

137 ZUZENA ZARE, den zuzenena, Jainko Jauna:
Zuk diozuna zoin zuzena !
138 Zure legea Egia bezein zuzena da .
Eta sekulan ezin aida .

139 Etsaien gatik karrak java dut nik bihotza :
Ahanzten dute zure hitza.
140 Zuk hitz-emana egia eta zinezkoa :
Hartan dut hartan nik gozoa.

141 Ni xumea naiz eta guziek ahantzia
Ez dut ahanzten Zuk nahia .
142 Zure Zuzena zuzenaz beraz da betea,
Sekulakoa da Legea .

143 Oren beltz eta hersturek naute hartu dena:
Nik zoin atsegin Zuk errana !
144 Sekulakoa zure manuen zuhurtzia :
Heien argian zer bizia !

XIX

145 BIHOTZ GUZIAZ dei egin dut dei : entzun, Jauna !
Egiten dut nik Zuk errana .
146 Deika nagozu : ni salbatzerat laster egin,
Zuk manatuan ibil nadin .

147 Argitu aintzin, otoizka nabil indar eske :
Zure hitza dut argi, bake .
148 Begiak dauzkat noiz hasiko den gau-otoitza
Zuk erranetan nahiz goza .

149 Entzun nezazu zure bihotz hoin zabalean :
Zure manuez bizi eman .
150 Hurbiltzen zaizkit oldartzaileak makur ari,
Urrundu zaizko legeari .

151 Hurbil zare Zu, ni-ganik, Jauna, zer grazia!
Zuk diozuna zoin egia ! .
152 Zure legeaz aspaldi-danik dut jakina .
Betikotz dela zuk egina.

XX

153 ATSEGABETIK *Ken nezazu ken: beha neri,
Zure legean bainaiz ari.
154 Jar nere aide, har otoi! Zuhauk arta nitaz:
Erran bezala bizi-araz.

155 Bekatoreak nundik zer duke salbamendu ?
Zure nohiak hotz uzten du.
156 Nasai baitzare urrikalmenduz, bihotz onaz,
Erran bezala bizi-araz.

157 Ainitz dabilzkit min eta makur egiteko,
Zure legeri nik ez uko.
158 Gizon makurren ikustea zait nardagarri :
Zure hitzari hek ez jarri.

159 Bai, maite ditut manamenduak maite, Jauna:
Nere zain egon, Zu hoin ona !
160 Egia bera zure hitzaren erroa da :
Hitz hura nehoiz ezin aida.

XXI

161 JAZARTZEN zaizkit lurreko j.aunak zuzen kontra
Nik zure legen dut beldurra.
162 Ihiztariek bozik egiten hartze gaitza :
Nik nere boza : Zure hitza.

163 Higuingarri dut makur-bidea higuingarri,
Zure legea maitagorri.
164 Zazpitan zaitut egun guziez goraipatzen,
Zuk manatua hain da zuzen !

165 Zure legea maite dutenek zer bakea !
Heien urratsa gaitz-gabea .
166 Banagokizu noiz igorriko Zuk laguntza;
Betetzen dut nik Zure hitza.

167 Egin nahi du nere arimak Zuk errana :
Hura zait neri den maitena .
168 Egiten ditut Zuk manatuak, Zuk erranak :
Nere urratsak Zuri denak.

XXII

169 ZU GANAT, JAUNA nere oihua bekit igan,
Zuk erran hitzak argi nezan.
170 Nere otoitza Zu-ganat bekit igan zuzen :
Erran bezala gaitzetik ken.

171 Nere ezpainek dariotela esker-kantu :
Zure nahiak nau argitu.
172 Kanta dezala nere mihiak Zuri kanta,
Zuk manatua zuzen baita.

173 Lagun nezazun Iuza ni-ganat Zuk eskua,
Zuk nahia dut hautatua.
174 Zuri nagozu salbamendua etor dadin :
Zure legea dut atsegin.

175 Bizi dadila nere arima Zuri kantuz,
Eta Zuk laguntmanamenduz.

176 Ardi galdua naiz ni : zatozkit, Jauna, bila :
Legeaz orroit bainabila.

## 119

1 OREN BELTZETAN egin dut oihu Jainkoari,
Harek bainau ni entzun beti.
2 Nere arima, Jauna, ken ezpain gaixtoeri,
Makurrez bete mihiari.

3 Zer eman zuri gaizkien eta gaitzen sari,
Makurrez bete mihi horri ?
4 Indartsuaren gezi zorrotzen sista zuri,
Ote-itzindi zuri sari.

5 Ai ni, gaizo ni, egoki bainaiz atz-herrian,
Zedar lurreko gau-tokian.
6 Nere arima badago hemen aspaldian,
Bake etsaien ausikian.

7 Bake solasak ditudanean nik mihian,
Heiek gerlarat errabian.
8 Ospe Aitari, gizon egin den Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 120

1 BEGIAK DAUZKAT mendi aIde :
Indarrak neri nundik ote ?
2 Jaunaren baitan nik indarrak,
Egin baititu zeru-lurrak.

3 Balitz bidean zerbeit zilo,
Zain dagozuna ez dago lo.
4 Ez dago ez lo, ez kuluxkan ,
Zer Izraelen arta daukan

5 Beti zure zain dago Jauna :
Eskuin aldean hau laguna
6 Ez zaitu joko iguzkiak,
Ez eta gauaz ilargiak.

7 Gaitzetik Jcrunak zaintzen zaitu,
Zure arima bere baitu.
8 Badago Jauna zure aide
Joan-itzultzetan mendez-mende.

## 121

1 PIZTU NAIZ PIZTU baitut entzun :
"Goazen Jaunaren etxeraino !".
2 Hara nun oral bagaitutzun,
Jerusaleme, atetan so.

3 Jerusaleme hiri gaitza,
Denen biltzaile den bihotza.
4 Jaunaren haurrak haurrak oro
Horrat doatzi lerro-lerro.

5 Jaun izenari, zor bezala,
Kantatu behar diotela.
6 Hor du zuzenak zuzen-alki,
Dabid semeak hor egoki.

7 Jerusalemek otoi ! bake.
Zuri daudenak bozik beude.
8 Bake dadila zure baitan,
Egun gozoak jauretxetan.

9 Anaien eta denen aide
Otoizka diot : Zuri bake !
10 Jainko Jaunaren etxeari
Zerutik otoi ! on-iturri.

## 122

1 ZERURAT NAGO dena begi,
Han baitzare Zu, han egoiki.
2 Mutil begiak berdin ari
Beren nausien eskueri.

3 Neskato soak berdin ari
Etxekanderen eskueri.
4 Gure begiak Jainkoari :
Noiz gaituzken noiz urrikari.

5 Urrikal, Jauna, otoi! guri :
Gutaz hain dire trufaz ari.
6 Jasan-gaitzegi zaiku hori :
Ez utz hantuen irringarri.

## 123

1 JAUNA GURE ZAIN ez balitz hor,
Aitor, Izrael, egun aitor,

2 Jauna gure zain ez balitz hor,
Gaitzeri nolaz egin gogor ?
3 Aise gintuzten iretsiko,
Hasarre sutan jauz orduko.

4 Gure gainerat ur-jauzika
Iraganen zen gaitz-erreka,
5 Iraganen zen gu itoka,

Ur-jauzi eta ur-trumilka.
6 Jaunak eskerrak hartze dauzka :
Ez gaitu egin hortzen bazka.

7 Ihiztarien saretik gu
Nola xoria hegaldatu.
8 Sarea tanpez da urratu,
Gu Jaunak libro kendu gaitu.
9 Jaunaren baitan guk indarrak,
Egin baititu zeru-Iurrak.

## 124

1 JAUNARI DAGON fededuna
Zion gainaren iduriko.
2 Deusek ezin jo, ezin jana:
Badago xutik sekulako.

3 Gainek zaindua balte dena,
Jerusaleme nork hartuko ?
4 Gure zain holadago Jauna
Bai orai eta sekulako.

5 Oneri ezta nausituren
Gizon makurren indar beltza,
6 Beren eskua ez dezaten
Gaizki biderat onek luza.

7 Begira, Jauna, eta lagun,
On eta zuzen den bihotza.
8 Gaizkiratuak aurtik urrun,
Zureek dugun bake gaza.

## 125

1 PRESO ZIRENAK baititu Jaunak erakarri,
Gu ginen kasik ametsetan.
2 Ahoa zabal ginauden oro dena irri,
Kantu soinuak ezpainetan.

3 Bertze jendeek egiten zuten so elgarri :
"Ari da Jauna heien baitan".
4 Handizki dauku Jaunak eskua eman guri :
Hara nun garen Iorietan !

5 Eman Zuk, Jauna, gure jendean indar berri
Urek bezala mortuetan.
6 Nigar-hipetan joaten direnak ereilari,
Uzta bilari lorietan.

7 Haratekoan harat doatzi pleinuz ari,
Hazi-bihiak eskuetan.
8 Hunatekoan hunat datortzi kantuz ari,
Espal ederrak besoetan.

## 126

1 EZ BADA JAUNA etxegile,
Etxegileak a Ifer-alferrikari dire.
2 Ez bada Jauna gu zaintzale,
Hiria dute alfer-alferrik zaintzen ere.

3 Argitu aintzin ez lan egin;

Ilundu-eta ez konkorturik lana luza.
4 Ogi jateko zuk lan, zuk min;
Jainkozalea lo dago eta badu gauza.

5 Hara semeak, zer emaitza !
Sabel fruitua Jainko Jaunaren zer saria !
6 Aita den hura gizon gaitza :
Iduri baitu geziak dauzkan gerlaria.

7 Nasaiki seme bai zer gauza !
Dohatsu hura : pitz bedi eta bozkaria.
8 Gora ditake hura mintza :
Deusik etzaio etsai mihien errabia.

## 127

1 DOHATSU BAI ZU Jaunaren beldur bazaudena,
Haren bidetan zabiltzana !
2 Zure eskuen lanetik duzu jan-edana,
Eskutan duzu ioriona.

3 Zure andrea mahats-ondo bat bezein lori,
Etxe xokoa bozten ari.
4 Zure semeak oliba-ondo gotor batzu,
Mahainean so dagozk itzu .

5 Hara nolako zorionean dabilana
Jaunaren beldur den gizona.
6 Jainkoa lagun, bizi zareno izan urus,
Jerusaleme azkar ikus.

7 Zure semeen haurren semeak ikus ere,
Jainkoarener beti bake !
(8) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Bai Izpiritu Sainduari.

## 128

1 GAZTETIK ZAIZKIT maiz jazarri,
Aitor, Izrael, aitor hori,
2 Gaztetik zaizkit maiz jazarri,
Etzait nausitu tzarrik neri.

3 Bizkarra dautet iraulia :
Oi hildo luzen min bizia !
4 Jauna zuzena, pizgarria :
Hautsi daut tzarren uztarria.

5 Ahalge gorri, beldur gorri
Zion hastio duteneri !
6 Teila belarra hek iduri,
Bil-aintzin baita histen ari.

7 Hartarik ezin esku bete,
Ezpal biltzailek deus ez dute.
8 Bideko jendek ez diote :
" Jaun Zerukoa zuen aide " !

9 Dagola Jauna zuen baitan !
Agur Jaunaren izenean !
(10) 0spe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari !

## 129

1 LEIZE HAUTARIK Zuri oihuz,
Entzun nezazu, entzun, Jauna.
2 Dena beharri nitaratuz,
Entzun nik egin dei auhena -

3 Gaizkiez orroit bazaude Zu,
Zuri so, Jauna, nor dagoke ?
4 Denen barkatzen maite duzu :
Beldur bezenbat badut bake.

5 Jaunaren beha dut bihotza :
Egia daukat Haren hitza.
6 Nik segurago Jauna goza,
Gau-zainek baino goiz-argia.
(6) Gau-zainek baino goiz-argia
Igurika noiz Jauna goza.

7 Jauna bihotzez da betea :
Zoin malte duen salbatzea !
8 Hak du Izrael salbatuko :
Hoben guziak joanen daizko.

## 130

1 EZ DUT BIHOTZA haundi nahi,
Ez behakoa beti goiti.
2 Ez naiz ibilki espantutan,
Ez goregiko urratsetan.

3 Arima daukat nik bakean,
Bakean eta ixilean.
4 Amok ttikia besoetan
Berdin arima nere baitan.

5 Egon, Izrael, Jainkoari,
Menderen mende kantuz ari.
6 Ospe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 131

1 ORROIT DABIDEZ orroit, Jauna,
Gogoan atxik haren lana.
2 Egin baitzion zin Jaunari,
Botu Jakob-en Jainkoari.

3 "Ez nadila ni etxean sar,
Ez ogean ni gau bat lokar,
(4) Ez dezadala begirik hets
Ez-eta nehoiz lorik onets,
5 Aurkitu arte Jauna nun jar,
ure Jainkoa nun Jaun ezar".

6 Nara Efratan dela amen,
Jaar-lurretan da egoiten.
7 Goazen sar gaiten haren baitan,
Ahuspez haren aintzinean.

8 Egon-tokirat, Jauna, jeiki
Arka sainduan Jaun ibilki.
9 Apezak dire garbiz jauntzi,
Zureek oro kantu, jauzi.

(10)Orroit Dabid-ez orroit, Jauna,
Ez uka zure kristo dena.

II

11 DABIDI JAUNAK hitz emana
Eta hitz hori ezin jana.
12 Beti zu-ganik sortueri
Egoki zaren Alki hori.

13 Zaintzen badute Batasuna
Eta heieri Nik errana,
14 Heien semeek betiere
Zure Alkia dute bere".

15 Zion du-eta hautatua :
Hor du Jainkoak jar lekua.
16 "Hau dut betiko egon-toki :
Nere hautuz hor naiz egoki.

17 "Hor emanen dut on-iturri,
Behartsueri jan-edari.
18 Hor apezeri zeru-jauntzi,
Horkoek oro kantu, jauzi.

19 Seme azkarrak hor Dabid-i,
Nere kristoriargi handi.
20 Haren etsaiek zer ahalge !
Haren korona dena lore ".

## 132

1 HARA ZOIN GOZO, zoin atsegin
Anaiak oro elgarrekin
2 Gozoz beteko zer gozoa,
Nola buruan olioa !
3 Aaron-eri baitario
Bizarrez bizar jauntziraino.
4 Nola Ziongo mendiari
Hermon ihintza jausten an'.
5 Hara Jainkoak zer grazia,
Menderen mende zer bizia !

## 133

1 ESKER-KANTUZ HAS Jainkoari,
Haren gizonak lorietan.
2 Kantuz baitzaizte gauaz ari
Jaunaren etxe saindu huntan.
3 Eskuak altxa aldarerat :
Jaunari eman gaur eskerrak.
4 Jauna dadila on zuentzat,
Egin baititu zeru lurrak.

## 134

1 KANTA JAUNAREN izenari :
Haren gizonak has kantari.
2 Beti baitzaizte zuek ari

Haren etxean zerbitzari.

3 Kanta Jaunari ona baita ;
Hain baita gozo, soinuz kanta.
4 Gu Jaunak bere gauzka-eta :
Izraelez du beti arta.

5 Handi da Jauna guziz handi,
Jainko guzier Hura nausi.
6 Nahi guzia egiten du
Zeru-lurretan, munduz-mundu.

7 Mana dezala hedoieri :
Lur bertzaldetik hek ageri.
8 Orduan ximixt eta uri,
Aize trumi1ak sistuz ari.

9 Haur edo urne zoin zen premu ,
Hek Ejiptoan joak ditu.
10 Egin duainitz mirakuilu,
Faraontarrak maiz argitu .

11 Ainitz jende du azkarki jo,
Errege gaitzak hiltzeraino.
(12) Amorretarren Sihon du jo,
Basantarren Og eta frango.
13 Zaukaten lurra eman dio
Izraeleri ondorio.

14 Zure izena betiere :
Menderen mende Jaun bazaude.
15 Gu Jaunak beti gauzka bere,
Maite gaitu gu haurren pare.

II

16 BERTZEN JAINKOAK zilar, urre :
Gizon eskuen obrak dire.
17 Badute aho, ezin mintza ;
Badute begi, ezin beha.

18 Beharriak bai, ezin adi ;
Ezpainetan ez hatsik ari.
19 Hek moldatuak hek iduri,
Nor ote fida nor heieri ?

20 Erran, Izrael: "Gara Jauna!"
Aarondarrek : "Gora Jauna!"
21 Erran, Apezek: "Gora Jauna!"
Jainkozaleek : "Gora Jauna!"

22 Zion gainetik: "Gora Jauna
Jerusalemen badagona"!
(23)Ospe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 135

1 BIHOTZEZ KANTA Jainko Jaunari ona baita :
Amodioa betiko baitu betikoa.
2 Bihotz ez kanta jainko guzien Jainkoari :
Amodioa betiko baitu betikoa.
3 Bihotzez kanta nausi guzien Nausiari :
Amodioa betiko baitu betikoa.

4 Ezin asmatu miragarriak egin ditu :

Amodioa betiko baitu betikoa.
5 Harek zeruak ederki ditu moldatuak :
Amodioa betiko ba itu betikoa .
6 Uren artean zabalik dauku lurra eman :
Amodioa betiko baitu betikoa.

7 Harek argiak piztu dauzkigu zoin handiak:
Amodioa betiko baitu betikoa.
8 Egun guzia erabil dezan : iguzkia;
Amodioa betiko baitu betikoa.
9 Gau-beilaria: izarrekilan ilargia :
Amodioa betiko baitu betikoa.

10 EJIPTOARREN premuak orojo zituen :
Amodioa betiko baitu betikoa.
11 Libro zitezen Izraeldarrak, joan zituen :
Amodioa betiko baitu betikoa.
12 Eskuz hoin azkar eta besoa dena-indar:
Amodioa betiko baitu betikoa.

13 Itsas gorria bi zatitan du ezarria :
Amodioa betiko baitu betikoa.
baitu Izrael erdiz erdi :
Amodioa betiko baitu betikoa.
15 Hortxet baititu etsai-armadak urperatu :
Amodioa betiko baitu betikoa.

16 Hak du bidatu bere jendea mortuz mortu :
Amodioa betiko baitu betikoa.
17 Hak ere ditu erregegaitzak porroskatu:
Amodioa betiko baitu betikoa.
18 Ezin garraitu jaun lazgarriak hil baititu :
Amodioa betiko baitu betikoa.

(19)Sihon hand ia Amorretarren nagusia :
Amodioa betiko baitu betikoa.
(20)Eta Og ere Basan-herriko jaun errege :
Amodioa betiko baitu betikoa .

21 Emana dio hekien lurra ondorio :
Amodioa betiko baitu betikoa.
22 Hain zerbitzari duen Izrael jendeari :
Amodioa betiko baitu betikoa.
23 Apal baiginen, gure jendeaz orroitu zen :
Amodioa betiko baitu betikoa.

24 Etsaietarik kendu gintuen, nausiturik :
Amodioa betiko baitu betikoa.
25 Hasdun orori emaiten dauku jan edari :
Amodioa betiko baitu betikoa.
26 Bihotzez kanta zeruetako Jainkoari :
Amodioa betiko baitu betikoa.

## 136

1 BABILONEKO ur bazterretan ginen jarri
Eta nigarrak Ziongo minez hor ixuri.
2 Zurxurietan dilindaka
Eman ginuen xirribika.

3 Gu horrat bildu gizonek guri:"Jo kantu, jo!"
Minez asetzen gintuzten jendek: "Bozkario!"
4 "Eman Zion-go zerbeit kantu,

Behar da boztu eta piztu".

5 Guk Jainkoaren kantu saindurik nolaz kanta,
Jerusaleme atz-herrirako utzi-eta ?
6 Ez banaiz zutaz orroit beti
Nere eskua eihar bedi.

7 Nere mihia idor dadila nota taula,
Bizi naizeno zu ahantzirik banabila.
8 Neri zorigaitz ez badut nik
Jerusaleme maiteenik.

9 Edom semeez, heiek eg inez orroit, Jaune:
Egun beltz hartan Jerusalemekzer eguna !
10 Errditen zuten:"Bote, bota !
Ez utz ere hor harri-meta ".

11 Babilon beltza gu xehakatu gaitutzuna,
Nork ote dautzu emanen zuri nork, ordaina?
12 Zure umeak nork hartuko,
Harrokari jo, xehatzeko ?

## 137

1 ESKERRAK ZURI eskerrak, Jauna, bihotz osoz
Otoizka entzun nauzulakotz.
2 Aingeruak so, zaitut Zu kantuz aipatuko,
Tenplo alderat .belauniko.

3 Eskerrak Zuri on baitzare on eta zuzen
Zuk hitza funski atxikitzen.
4 Nik Zuri oihu egin orduko, Zuk ni entzun:
Zer indar gaitzaz bete nauzun !

5 Eskerrak Zuri lurreko jaunek orok betan,
Zuk hitzemanak aditzean.
6 Jaunak eginez guziak kantuz badabiltza :
"Bai Jainko Jaunak ospe gaitza!".

7 Zoin gora Jauna! Maitatzen ditu apalduak,
Urrundik uztenhanpatuak.
8 Oren beltzetan nabilanean, Zu nerekin :
Etsaiek deusik ezin egin.

9 Zure eskua luzatuz nauzu beti zaintzen :
Zu,behar deno, zain egonen.
10 Zuk duzu, Jauna, befiereko bihotz ona,
Sekulan ez utz hasi lana.

## 138

1 ZUK BARNEZ BARNE dakizu, Jauna, nere berri
Bai ni noiz jeiki, ni noiz jarri.
2 Urrundik duzu ikusten zer denzer gogoan,
Nik pentsatua norat zoan .

3 Ibil nadila, etzan nadila Zuk so neri :
Beti dakizu nere berri .
4 Ez dut oraino hitza mihian iragana
Eta Zuk, Jauna, jakin dena.

5 Bai gibeletik, bai aintzinetik banaukazu :
Osoki duzu nitan esku.

6 Nik ezinasma, Jauna, Zuk duzun hedadura ,
Nik ezin adi Zu zoin gora.

7 Zuri gogotik noakizun ni, norat airs?
Begitartetik ihes nora ?
8 Zeruetarat igaiten banaiz Zu han zare ;
Ifernuperat, Zu hor ere .

9 Airatzen banintz goiz-argiaren hegalekin
Itsasoz harat egon nadin,
10 Berdin nezake zure eskuak han erabil,
Zure eskuinak oraino bil.

11 Erraiten banu :"Gordeko naiz bai ilunbetan :
Ibiliko naiz gau-jauntzitan".
12 Zuk ilunbetan baduzu, Jauna, berdin begi :
Gaua zuretzat egun argi .

13 Zuk nauzu egin eta Zuk neri bihotz eman,
Nere amaren sabelean .
14 Eskerrak Zuri: miragarriki naiz egina ,
Miragarria zure lana .
15 Ongi zinautan arima ioda ezagutzen,
Nere hezurrak nun zer ziren,
16 Denen ixilik egina izan naizenean
Eta ontua lur barnean .

17 Nik egineri zure begiak beha zauden,
Zuk liburuan baitzintuen .
18 Nere-egunak nolako diren Jaunak jakin,
Bakar bat ere izan aintzin .

19 Nork zila, Jauna, zure gogoak asmatuak :
Denak izariz kanpokoak.
20 Hek konda eta, itsas-ondoan legar guti,
Kondatu-eta, Zu hor beti .

21 Ai! balitz, Jauna, gizon makurra zuhauk hila!
Odol gizonak doatzila !
22 Alegia deus Zuri jazartzen ari dire :
Heien begitan Zu deus-ere .

23 Lure hastioz ari direnak nik hastio :
Okaztagarri zaizkit oro.
24 Hastio ditut bihotz beteko herra osoz
Zure etsaiak direlakotz .

25 Zuk barnez barne beha zer dutan bihotzean,
Zer xederekin banabilan
26 Begira-zazu gal-bidetarat ote noan :
Sar-araz bide betikoan .

## 139

1 NI BEIRA JAUNA, gizon tzar eta maltzurretik :
Herra gizona urrun aurtik .
2 Nun zer gaitz egin hek beren baitan kexu daude :
Bilatzen dute gerla-bide.
3 Heien mihia suge-mihirik zorrotzena,
Ezpainen pean zer eztena !

4 Ni salba, Jauna, zure etsaien eskupetik :
Herra-gizona urrun aurtik.
5 Bidean nahiz eror-arazi ari dire :
Ezarri dautet neri sare .
6 Eman dituzte zepoa eta hil-ziloa ,

Zoin bidez eta ni bainoa .

7 Jaunari diot : Nere Jainkoa Zu zare Zu,
Nere oihuak entzun zatzu .
8 Nere Jainkoa gudu-aldian zer laguntza ,
Buru gainean zer geriza !
9 Ez onhar, Jauna, gizon tzarrean den lehia
Ez otoi! lagun hak nahia .

10 Ibilki zaizkit neri oldarka , buruz tente :
Beren karkulek janak beite.
11 Bekizkiote uharka eror itzindiak
Beude ziloan ehortziak .
12 Mundu huntarik suntsi dadila mihi tzarra,
Herra-gizona tanpez lerra .

13 Behartsuentzat izanen da bai Jauna zuzen,
Dohakabeak Harek zaintzen .
14 Zure izena gizon zuzenek aipatuko :
Hek Zuri beha sekulako.
(15) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari
Bai Izpiritu Sainduari .

## 140

1 JAUNA, ZU GANAT oihuz banabil etor lagun :
Zu ganat oihuz entzun nezazu,otoi! entzun.
2 Nere otoitzen aldare-kea hel bekizu :
Nere eskuen arrats-eskaintza onhartzazu.

3 Agoaren zain eman zadazu, Jauna, indar :
Ezpain atean gako bat ere Zuhauk ezar .
4 Gaizkietaratez dudan nehoiz bihotz ixur ,
Bekatu aide lerratzeraino joanez makur ;

5 Ez dezadala gaixtaginekin sekulan jan,
Goza beharrez heien gozoen gozoetan.
(6) Jo nezala bai gizon zuzenak ni maitez jo:
Haren samurrak buru gainean usain gozo .
7 Zuzenen ganik ez dut burua baztertuko ;
Gizon makurrak hastean aldiz deika nago .

8 Hoikien jaunak harroken pean erortzean,
Hoik ohartuko nik zoin eztiki nerabilzkan.
9 Puxkatua den errot-harria zoin debalde:
Tzarren hezurrak ifernu leizen bazka daude .

10 Nere Jainkoa, Zu ganat daukat behakoa :
Zuri nagozu: ni ganik urruntherioa .
11 Bidetik bazter ezarri dauten hil-zepoa ;
Gaizki egilen traben artetik ni bainoa .

12 Beren saretan eror ditela denak betan,
Ni Zuri esker nere bidean salbu noan .
(13) Ospe Aitari, gizon egin den . Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari .

## 141

1 JAUNARI NAIZ NI oihuz ari
Jaunari oihuz beha neri
2 Jaunari mina dut ixuri,
Nere herstura diot hari.
3 Hatsa zait arrunt joaiten ari,

Bainan Zuk jakin nere berri.

4 Nere bidean zuzen noa ;
Ezarri dautet hil-ziloa.
5 Eskuin alderat itzul-eta,
Nihork ez hartzen nitaz arta.
6 Nihun ez dut deus ihes-leku:
Ez daut emaiten nihork esku.

7 Egiten dautzut, Jauna, oihu :
Nere geriza Zu zare Zu.
8 Bizi direnen lur aldean,
Nere guzia zure baitan .
9 Nere oihuak otoi! entzun :
Ezindua naiz, arrunt ilun .

10 Bertzen eskutik ken, Jauna, ken:
Zenbatez neri nausi diren !
11 Ez utz naukaten itzalean,
Zuri eskerrak dauzkitzudan.
12 Gizon zuzenen zoriona,
Nik aipatzean Zuk egina !

## 142

1 NERE OTOITZA onhar, Jauna :
Entzun nik egin dei auhena.
2 Ona baitzare guziz ona ,
Entzun nezazu, jaunen Jauna.
3 Ez dei auzirat zure dena :
Zuretzat nor da nor zuzena ?

4 Arima-keta dut etsaia,
Lur-errautserat nau botaia.
5 Ilunbetan nou ezarria,
Betikotz hila iduria.
6 Orai hats guti nere baitan,
Bihotza daukat ikaretan.

7 Gogoan ditut joan egunak,
Bihotz barnean zure lanak.
8 Zuk egin lanezorroit ari,
Eskuak dauzkat deika Zuri.
9 Lur idorrak dei nahiz uri
Arima zutaz dut egarri .

10 Laster ihardets, otoi! Jauna ;
Joana dut kasik hatsa joana.
11 Begitartea Zuk ez gorde
Ez nadin !erra hobi aide.
12 Goizetik ixur Zuk grazia :
Zure eskutan naiz guzia .

II

13 ERAKUTS NUN DEN nun bidea,
Arima baitut Zuri beha .
14 Etsaietarik ken nezazu,
Nere indarra baitzaitut Zu.

15 Zure nahien egiteko
Argi nezazu ; nik Zu Jainko.
16 Zure gogoak eramana
Dudan har bide segurrena.

17 Aipa dezaten Jaun izena,
Ni zuzenean lagun, Jauna.
18 Ni baitarik joan minak oro,
Ona baitzare Zu, etsaiak jo.

19 Ni gal nahiak xeha, Jauna:
Zure bainaiz ni Zure dena.
(20) Ospe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 143

1 JAUNA DUT JAUNA nik Harroka,
Zor Biot dena ezin uka.
2 Nere eskuak derabilzka
Nausituz nadin joan guduka .

3 Zu bihotz argi, Zu Iaguntza :
Nere zain, Jauna, bazabiltza.
4 Zu ihes-leku, Zu geriza,
Jenden hezteko indar gaitza.

5 Nola gizonaz, Jauna, nota
Izan hoin kexu, hoin axola ?
6 Hatsa bezala badabila :
Haren bizia zer itzala .

7 Apal zerua, ni lagun jar :
Mendiak ezar su eta gar .
8 Ximixt karraskan jo ta jazar :
Jauna, denetan ikara sar.

9 Eskua luza nere lagun
Etsai urpetik ken nezazun .
10 Gezurrik aski baitut entzun,
Zin atzo eta gezur egun .

II

11 ZURI, JAINKOA, kantu berri !
Salmo-soinu joz kantu Zuri !
12 Zuk duzu Dabid jeun ezarri;
Zuk eman, daukan ospe hori.

13 Urrunt ezpata, zaude lagun,
Etsai eskutik zain nezazun.
14 Gezurrik aski baitut entzun,
Zin atzo eta gezur egun.

15 Gure semeak lerden, arin,
Zuhaitz ondoak bezein gordin ;
16 Gure alabak zoin erregin,
Tenplo-aintzinak bezein panpin.

17 Selauruetan gaindiz-gaindi
Bada gaitzeko fruitu-aldi.
18 Mila-milaka zenbat ardi,
Zelaiez-zelai, mendiz-mendi.

19 Gure abreak pisu, gizen,
Gure etxeak zoin xut dauden.
20 Etsaien peko nihor joaten,
Gure plazetan nihork auhen.

21 Zer jendearen zoriona,
Beretzat baitu hori dena!
22 Zer jendearen zoriona,
Jainkoa baitu bere Jauna !

## 144

1 Bai gora Jauna! Zu zaitut Jainko Zu Errege:
Zure izena dut aipatuko mendez mende.

I

2 ZURI ESKERRAK egun guzian zeru alde !
Goretsiko dut zure izena mendez mende.
3 Handia Jauna eta osoki goresgarri :
Gure Jaunaren handitasuna ezin neurri.

4 Aitek semeri zure egintzen eder hura ;
Aipatzen dute zure besoan den indarra .
5 Goresten dute zure Jainkozko ospe gaitza :
Miragarriez ezin ditezke aski mintza.

6 Izigarriko zure indarrak diozkate
Eta Zuk duzun handitasuna aipudute.
7 Aipatzen dute zure betiko bihotz ona :
Gora diote : "Zuzentasunaz nausi Jauna".

II

8 EZTIA ETA guziz ona dagure Jauna :
Urrikaltsua eta bihotzik nasaiena.
9 Mundu guziko guzientzat da ona Jauna :
Egin dituen ororentzat du bihotz ona.

10 Zuhauk eginek, Jauna, goraipa zaitzatela :
Zure gizonek eskerrak Zuri, zor bezala.
11 Zuk erresuman duzun ospea diotela,
Aipa ere bai zure besoan den ahala.

12 Jakin dezaten denek Zu baitan den indarra,
Zure betiko erresuman den ospe hura.
13 Zuk erresuma mendez mendeko erresuma ;
Zure eskua. noiz-artekoaezin asma.

III

14 EGIA JAUNAK, beti egia erranetan;
Saindu da eta dena bihotz da egintzetan.
15 Jaunak laguntzen bidean ezin joan guziak;
Altxatzen ditu berak altxatzen eroriak.

16 Guzi guzien begiak daude, Jauna, Zuri
Eta heieri behar orduan Zuk janari.
17 Zure eskua duzu zabaltzen Zuk, Jainkoa,
Eta badute hasdun guziek nahikoa.

18 Zuzen da Jauna bere bidetan, beti zuzen;
Egin lanetan zoin dena bihotz den agertzen!
19 Hurbil da Jauna Hari otoizka daudeneri,
Hari otoizka bihotza zintzo eta garbi.

20 Jainkozaleek duten nahia egiten du
Heien oihua entzutean da lagun heldu.
21 Maite dutenak Jainkoak ditu denak zaintzen;
Etsai zaizkonak , goiz edo berant denak galtzen.

22 Nere ezpainak Jainko Jaunari kantuz beude;
Gizon guziek eskerrak Hari mendez mende.

(23) Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.

## 145

1 NERE ARIMA, pitz kantari
Bizian kanta Jainkoari.
2 Eginen diot banaizeno
Jaunari kantu eta salmo.

3 Ez jaun handirik hauta Jainko :
Gizonkia zer salbatzeko ?
4 Hatsa joan-etahilen dire,
Heiek errana joanen ere.

5 Dohatsu Jaunak lagundua,
Jaunak bideanargitua;
6 Egin baititu zeru-Iurrak
Bai itsasoa eta denak.

7 Jaunak betiko baitu zaintzen,
Bertzek joentzat Hura zuzen.
8 Gosetueri Harek ogi,
Gakotueri Harek argi.

9 Itsutueri Jaunak begi,
Lehertueri dio : "Jeiki"!
10 Jaunak Iaguntzen urrun joanak,
Hazten umezurtz, alargunak.

11 Jaunak zuzenak ditu moite ;
Gizon makurrek traban dute.
12 Jainkoa Jainko betiere :
Gure Jauna Jaun mendez mende.

## 146

1 AIPA JAINKOA, ona boita;
Hain boita gozo Hari kanta.
2 Jerusaleme altxatu du,
Herritik joanak berritz bildu.

3 Bihotz hautsiak piztu ditu
Eta zauriak berak lotu.
4 Zenbat izar den kondu baitu,
Beren izenaz deitzen ditu.

5 Handia Jauna izigarri,
Zuhurtasunaz ezin neurri.
6 Apalak ditu xut ezarri,
Buru harroak hits igorri.

II

7 KANTA JAUNARI denek betan
Hari eskerrak soinuz eman.
8 Zerua baitu lanoz jauntzi,
Lurrerat uri jautsarazi.

9 Gainetan eman belar-hazi,
Gizonak oro diten bizi.
10 Bai Harek ditu denak hazi,
Xoriak ere Hari dauzi.

11 Zaldi ederraz deus ez dio,
Gizon azkarra deus etzaio.
12 Fededunak bai on zaizkio,
Hartan dutenak amodio.
(13) Ospe Aitari, Semeari
Bai Izpiritu Sainduari.

## 147

1 Jerusaleme Jainko Jaunari kantuz egon,
Zure Jaunari kanta Zion !

2 ZURE ATEAK azkartu eta zaindu ditu,
Zure semeak zutan boztu.
3 Mugetan dautzu bake osoa gozarazi,
Ogi-gozoaz zaitu hazi.

4 Hitz bat lurrerat Harek igorri bezein sarri,
Munduz-mundu da !aster ari.
5 Haren elurraz denak ardile bezein xuri,
Haren lantzurdaz hauts iduri.

6 Haren harria zer ogi bihi erauntsia !
Zoin jasan gaitza Haren hotza !
7 Harek solas bat eta guziak berritz urtzen,
Aize bat eta urak jauzten.

8 Jakobtarreri zabaldu dauku bere hitza
Jaunaren legen ezagutza.
9 Eztu horrela ,egin edozoin jendakiri :
Bertzek ez dute legen berri.

## 148

1 AIPA JAINKOA zeruetan,
Aipa zazue gain gainetan.
2 Aipa zazue Aingeruek,
Aipa zazue goi-indarrek.

3 Aipa iguzki ilargiek,
Aipa izairen so dirdirek.
4 Aipa zeruko zeru gainek,
Aipa gaineko hedoi-urek.

5 Aipa, mundua, Jaun izena,
Egina zaitu berak dena.
6 Hitz batez manu du emana,
Manu betikotz dirauena.

7 Aipa zazue Iurrekoek,
Arrainek eta urpekoek.
8 Harri, elurrek, su, Ianoek,
Mutil zaizkoten aize gaitzek.

9 Mendi guziek eta gainek,
Fruitu zuhaitzek eta denek.
10 Bas-abereek, aziendek,
Sugeek eta hegaztinek.

11 Lurreko jaunek eta jendek,
Buruzagiek, zuzentzailek.
12 Bai gizon gaztek, bai neskatxek,
Xaharrek eta haur guziek.

13 Aipa guziek Jaun izena,
Hura da hura den gorena.
14 Nork aski aipa Jaun izena
Zeru-lurreri Nausi dena.

15 Izraeli zain dagokio :
Gaitzeko indar eman dio.
16 Jauna, sainduen laudorio;
Izraeldarren bozkario.

## 149

1 KANTA JAUNARI kantu berri,
Kantuz bildurik eman gorarik Haren berri.
2 Nundik Izrael ez airostu ?
Egile baitu, Errege baitu : Hari kantu !
3 Aipa bezate Jeun izena :
Guziek jauzi, guziek soinu ! ai! zerJauna

4 Bere jendea baitu ma ite,
Bihotz apalak garrait-indarrez jauntzi arte,
5 Pitz beite Jaunaz, harenak pitz :
Haren bakean kanta bezate, kanta berritz.
6 Jauna dutela zintzurrean,
Ezpata zorrotz izigarriak ahurrean.

7 Etsai-jendetan ditela sar
Erakusteko ba ote duen Jaunak indar.
8 Errege jaunak gakoz eman,
Heien gizonak gatetan eta itzalean.
9 Jaunak nahia baita hori :
Horra zer duten Jainkoarenek orok sari.

## 150

1 Aipa Jainkoa elizetan,
Aipa gaineko zeru hartan.
2 Aipa Jainkoa, egin kantu,
Indarrak Harek gaitzak ditu .
3 Aipa Jainkoa, egin kantu,
Ospez berdinik nihun eztu.

4 Aipa denek joz adar-oihu,
Xilintx, atabal eta txistu.
5 Aipa soinu joz herriz herri :
Denek munduan Besta-Berri!

6 Aipa eta jo esku-zarta,
Jo mendi-soinu, itsas-tuta.
7 zeru-lurren irrintzina ;
Guzi guziek aipa Jauna !

# KANTIKAK

**EZEKHIÀZ-en KANTIKA (Iz. 38, 10-20).**

1 ERRAN DUT ERRAN:"Nere biziak ez eguerdi
Eta bizirik ezin geldi.
2 Hilen artekozilorat noa erdiz-erdi,
Ondar urteridiot : adi".

3 Erran dut erran: "Nik orai Jaunaezin goza
Bizi direnen mundu huntan.
4 Hemendik harat nik orai nihor ezin mintza
Lurrean dauden guzietan".

5 Joaten du gerdin artzainak bere gau-etxola,
Neri bizia Zuk bezala.
6 Ari da berdin biribilkatzen dendaria,
Zankan dadien motz aria.

7 Eguna joan da, gaua heldu da, joa nauzu;
Goizeraino nik oihuz-oihu.
8 Hezurrak neri lehoinen pare Zuk xehatu :
Eguna joan da, gaua heldu.

9 Ainara-sistuz, Iertxun-marrakaz nagokizu,
Uso-kurrukaz dena pleinu.
10 Begiak dauzkat deika zerurat kasik itsu:
Ez nauke, Jauna, eman esku.

II

11 ZER ERRAN ORAI ? Hitzemana du, egina du:
Jauna bera danitan ari.
12 Hara nun zaitan galdu bizia berritz heldu:
Nausi nitzaio ni gaitzari.

13 Eginen dautzu nere bihotzak, Jauna, kantu:
Nik Zuretzat dut nahi bizi.
14 Sendatu nauzu eta bizirik begiratu :
Osasunean pitz-arazi.

15 Bai Zuri esker nere arima joan ez baita
Arrunt galduen ziloraino.
16 Bota ditutzu zure bixtatik urrun bota
Nere hobenen zorrak oro.

17 Ezin dagoke Zuri kantatzen hil-ziloa,
Zure goresten herioa.
18 Ezin dagoke neholaz-ere Zure beha
Ziloratua den jendea.

19 Bizirik denak harek bai Zuri laudorio,
Nola ni Zuri gaur bainago.
20 Bizirik deno bereSemeri aitak dio
Zuk zer betiko amodio.

21 Jaunak zaintzeninau: hortako dugu kantatuko
Kantika berri eta salmo,
22 Egun guziez eta biziak diraukuno
Haren etxetik zeruraino.

**HIRU GAZTEN KANTIKA (Dan. 3, 52-56).**

1 ON ETA SAINDU Zu gure Aiten Jainko Jauna:
Zoin aipagarri, zoin goresgarri mendez mende !
2 On eta saindu Zuk bai ospea, bai izena :
Zoin aipagarri, zoin goresgarri mendez mende!

3 On eta saindu Zu gain hartako tenplo hartan :
Zoin aipagarri, zoin goresgarri mendez mende
4 On eta saindu Zu sekulako Erresuman:
Zoin aipagarri, zoin goresgarri mendez mende !

5 On eta saindu Zu zerutik so leizez leize :
Zain aipagarri, zoin goresgarri mendez mende!
6 On eta saindu zeru gain hartan Jaun baitzaude.
Zoin aipagarri, zoin goresgarri mendez mende!

**DIREN GUZIEN KANTIKA (Dan. 3, 57-90).**

7 ESKERRAK EMAN diren guziek Jainkoari,
Aipa zazue' bai-ta goraipa mendez mende.

8 Eskerrak eman, gaineko urek, Jainkoari,
Eskerrak eman, zeru-zeruek, Jainkoari.
9 Eskerrak eman, Jainko-indarrek, Jainkoari.
Eskerrak eman, goi-aingeruek, Jainkoari,

10 Eskerrak eman zuk, iguzkia, Jainkoari,
Izarrek eta zuk, ilargia, Jainkoari.
11 Eskerrak eman, ihintz uriek, Jainkoari,
"Eskerrak eman, aize guziek, Jainkoari.

12 Eskerrak eman, suak, beroak, Jainkoari,
Eskerrak eman, hotzak, goxoak, Jainkoari.
13 Eskerrak eman, uhar, ihintzek, Jainkoari,
Eskerrak eman, garroin, izotzek, Jainkoari.

14 Eskerrak eman, hormek, elurrek, Jainkoari,
Eskerrak eman, gauek, egunek, Jainkoari.
15 Eskerrak eman, argi, ilunbek, Jainkoari,
Eskerrak eman, ximixt, hedoiek, Jainkoari.

II

16 LURRAK DITZOLA eskerrak eman Jainkoari
Aipa dezala bai-ta goraipa mendez mende.
17 Eskerrak eman, mendi ta gainek, Jainkoari,
Eskerrak eman, hazi, landarek, Jainkoari.
18 Eskerrak eman, iturburuek, Jainkoari,
Zuek, itsaso eta ibaiek, Jainkoari.

19 Eskerrak eman, itsas-arrainek, Jainkoari,
Hegaztin eta xori guziek Jainkoari.
20 Eskerrak eman, aberek oro, Jainkoari,
Aipa zazue bai-ta goraipa mendez mende.

III

21 EMAN, gizonen haurrek, Jainkoari :
Eskerrak eman, lzraeldarrek, Jainkoari.
22 Eskerrak eman, Jainko apezek, Jainkoari,
eskerrak eman, Haren gizonek, Jainkoari.
23 Eskerrak eman, gizon zuzenek, Jainkoari,
Bihotzez apal eta sainduek Jainkoari.

24 Eskerrak eman zuk, Anania, Jainkoari,
Zuk, Azaria, bai-ta Mizael, Jainkoari.
25 Eskerrak eman garren artetik Jainkoari,
Aipa-zazue bai-ta goraipa mendez mende.

26 Eskerrak Aita, Semea eta Gogoari :
Aipa ditzagun bai-ta-goraipa mendez mende.
27 Eskerrak Zuri„ zeru gain hartan Jaun baitzaude:
Aipa zaitzagun bai-ta goraipa mendez-mende.

**MAGNIFICAT (Lk. 1, 46-55).**

1 KANTUZ ARI ZAIT nere arima Jainkoari,
Haren goresle kantuz ari .
2 Haren loriaz bozkariotan dut gogoa:
Salbatzaile dut nik Jainkoa.

3 Naizen neskato apal hau baitu hautatua ,
Mendeek neri : "Dohatsua"!
4 Zoin handi nitan Jainko Jaun guziz indartsua!
Haren izena zoin saindua !

5 Urrikalmenduz betea dago mendez-mende,
Sineste duten jenden aide.
6 Bere besoan duen indarraz Harek ditu
Bihotz hantuak barreiatu.

7 Beren alkitik handi-mandiak kendu ditu,
Apalak aldiz goraltxatu.
8 Gose zaudenak nasaiki ditu gozarazi,
Aseak aldiz hutsik utzi.

9 Behatu dio Izrael bere jendeari,
Lehen bezala urrikari.
10 Erran baitzuengintuela gu lagunduko
Abrahamtarrak sekulako.

**ZAKHARI-en KANTIKA (Lk. 1, 68-79).**

1 JAINKO JAUNARI eskerrak eta laudorioi
Israeleri eskua zabal jausten zaio .
2 Salbamenduko indar nasaia pizten dio :
Haren Dabiden etxean dela bozkario .

3 Sainduen ahoz errana zuen lehen hori
Berak argituz baitziren mintzo munduari
4 Gu gintuela bertzen azpitik libratuko
Ez gauden beti gure etsaien eskupeko .
(5) Aiter agertuz bere betiko bihotz ona
Eta berrituz mendez mendeko batasuna

6 Abraham gure aitari zion hitzemana
Izanen zela gure alderat guziz ona .
7 Gure etsaien eskuetarik libratuak
Bete ginetzan bai Haren nahi bai manuak,
(8) Zuzen joan ginten eta sainduki Hari beha
Eremaitean mundu huntako bizitzea .

9 Eta Zu, Haurra, Jaun Goikoaren Oihulari,
Bide apaintzen joanen zitzaio Jainkoari.
10 Haren jenderi erranez nundik nola ibil
Beren gaizkien barkamendua dezaten bil

11 Gure Jainkoa jautsi baitzaiku dena bihotz
Gure arimen arrangureri ez dauke hotz.
12 Hilen gaupean ilun daudenen goiz-iguzki,
Hari so denek bake bidea dugun aurki.

**ZIMEON-en KANTIKA (Lk, 2, 29-32).**

1 ORAI ZURE HAU, Jaun zerukoa, utz.hiltzera,
Zure hitzaren arabera .
2 Nere begiek baitute orai ikusia
Salbamenduko goiz-argia.

3 Hura baituzu erakutsiko agerian
Jende guzien aintzinean.
4 Herri guzien Jainkoratzeko zer argia ,
Izraelentzat zer loria !